



EUSKAL
LANKIDETZA
PUBLIKOA
Prestakuntza-eskuliburua

COOPERACIÓN
PÚBLICA
VASCA
Manuales de formación

6

EMAKUMEAK GARAPENERAKO LANKIDETZAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES



EUSKAL
LANKIDETZA
PUBLIKOA
Prestakuntza-eskuliburua

COOPERACIÓN
PÚBLICA
VASCA
Manuales de formación

6

EMAKUMEAK GARAPENERAKO LANKIDETZAN

Clara Murguialday Martínez

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

MURGUIALDAY MARTÍNEZ, Clara

Emakumeak garapenerako lankidetzan / Clara Murguialday Martínez ; [koordina-tzailea, Amaia del Río Martínez]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

p. ; cm. – (Euskal Lankidetzaren Publikoa. Prestakuntza-eskuliburuak = Cooperación Pública Vasca. Manuales de formación ; 6)

Contiene, además, con portada y paginación propias, texto contrapuesto en castellano: “Las mujeres en la cooperación para el desarrollo ”

ISBN 84-457-2344-8

1. Mujeres en el desarrollo. I. Río Martínez, Amaia del. II. Euskadi. Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales. III. Título. IV. Título (castellano). V. Serie. 338.1:316.346.2-055.2

Argitaraldia:	1.a, 2005eko urria
Ale kopurua:	1.500 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea:	Clara Murguialday Martínez
Koordinatzailea:	Amaia del Río Martínez
Azalaren diseinua:	Marra Publicidad
Fotokonposizioa eta inprimaketa:	RGM, S.A. Padre Larramendi, 4 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2344-8
LG:	BI - 2382-05

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	13
1. HEGOALDEKO EMAKUMEEN IRUDIAK	17
1.1. Antzinatik datorren baztertzea... ..	19
1.2. 100 milioi emakume baino gehiago <i>desagerturik</i> ...	21
1.2.1. Semeak nahiago eta alabak baztertu	21
1.2.2. Neskek aukera gutxiago dute elikagaiak eta arre- ta lortzeko	22
1.2.3. Emakume helduen artean desnutrizio tasak eta erditzearen ondoriozko heriotza tasak oso altuak dira	23
1.3. Lana eta enplegua globalizatutako munduan	26
1.3.1. Guztizko lan-denboraren banaketa	26
1.3.2. Ugaltze eta zaintze lana	32
1.3.3. Enplegu merkatuan parte hartzea	35
1.3.4. Ekoizpen baliabideak eskuratzeko aukera des- berdina	51
1.4. Egitura Egokitzapen Politiken eta globalizazio neolibe- ralaren eragina	52
1.5. Pobreziaren emakume aurpegia	56
1.6. Emakumeen aurkako indarkeria	58
1.7. Politikatik kanpo utziak	60
1.8. Eskubide desberdinak	64
2. NOLA IKUSI DITU EMAKUMEAK GARAPENERAKO LANKIDETZAK?	67
2.1. Emakumeak <i>ikusezinak</i> dira garapenerako	71

2.2.	Ongizatearen ikuspegia (familiakoa)	71
2.3.	Emakumeak Garapenean estrategia (EG)	74
2.3.1.	Ekitatearen ikuspegia	78
2.3.2.	Pobreziaren aurkako ikuspegia	80
2.3.3.	Eraginkortasunaren ikuspegia	84
2.4.	Hegoaldeko ikuspegia	86
2.4.1.	Emakumea eta Garapena ikuspegia (E eta G)	87
2.4.2.	Boteretzaren estrategia	89
2.5.	Generoa Garapenean estrategia (GG)	92
2.5.1.	<i>Emakumeetarik generoen erlazio desberdinetara</i> garapenaren arazo gisa	93
2.5.2.	Giza Garapena eta Genero Ekitatea	99
2.5.3.	Generoko <i>Mainstreaming</i> -a	102
3.	EMAKUMEEN GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO POLITIKA ETA MEKANISMOAK	105
3.1.	Emakumeak alde askotako lankidetzan	109
3.1.1.	Nazio Batuak eta emakumeen garapena	109
3.1.2.	Munduko Biltzar eta Gailurrak: adierazpeneta- tik konpromisoetara	112
3.1.3.	<i>Generoa integratzea</i> : PNUDein estrategia	120
3.1.4.	<i>Emakumeengan inbertitzea</i> : Munduko Bankua- ren genero politikak	124
3.2.	Emakumeak gobernuen arteko lankidetzan	129
3.2.1.	Garapena Laguntzeko Batzordea (ELGA): emak- ume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko jarraibideak	129
3.2.2.	Europar Batasuna: genero politikak Lomeko Hi- tzarmenetan	133
3.2.3.	Emakumeak eta Garapena Espainiako lankide- tza ofizialean	138
3.2.4.	Emakumeak Euskadiko lankidetzan publikoan	142
4.	EMAKUMEAK ETA GENEROA GOBERNUZ KANPOKO LANKIDETZAN	149
4.1.	GGKEak, emakumeak eta genero ekitatea garapenean	151
4.1.1.	Genero ikuspegia instituzionalizatzeko meka- nismoak	152
4.1.2.	Ekitatearen onurarako aldaketa prozesuak: bul- tzadak eta erresistentziak	162
4.2.	<i>Praktika onak</i> Hegoaldeko emakumeekin egindako lan- kidetzan	166

4.2.1. <i>Emakumeen Arteko</i> sarea: Iparraldea eta Hegoaldearen arteko lankidetzaren esperientzia . . .	166
4.2.2. Emakumeak Garapenean Europan (WIDE): Europako emakumeen sarea Hegoaldeko emakumeekin lankidetzan	167
4.2.3. Generoa eta garapenaren inguruko lan taldeak Europako GGKE sareetan	168
4.2.4. <i>Genero espazioak</i> Espainiako Estatuko gobernuz kanpoko lankidetzan	170
BIBLIOGRAFIA	173
Gomendaturiko oinarrizko bibliografia	175
Emakumeei, Generoari, Garapenari eta Lankidetzari buruzko erreferentzia bibliografikoak	178
Generoan eta Garapenean trebatzeko eskuliburu eta gidaliburuak	182

KOADROEN AURKIBIDEA

1. KAPITULUA:

1. koadroa. Haurren artean, neska gehiago hiltzen dira mutilak baino	22
2. koadroa. Sexuaren araberako lan karga, garapen bidean dauden herrialde hautatueta	29
3. koadroa. Sexuaren araberako lan karga, herrialde industrializatu hautatueta	29
4. koadroa. Lan karga eta denboraren banaketa	30
5. koadroa. Lan indarrean emakumeen proportzioa handitu egin da ia leku guztietan	36
6. koadroa. Emakumeen jarduera ekonomikoaren tasak gora egin du herrialde askotan, gizonenak, aldiz, behera egin du	37
7. koadroa. Herrialde gehienetan gizonen eta emakumeen enplegua zerbitzuetako sektorean erdibanatzen da	38
8. koadroa. Herrialde gehienetako emakume eta gizonen artean lan modurik nagusiena agindupeko eta soldatapeko lana da	39
9. koadroa. Proporzionalki emakume enplegatzaile gutxiago daude gizonak baino	40
10. koadroa. Lanaldi partzialeko enplegua	42
11. koadroa. Egituratu gabe dagoen sektoreak emakumeen lan indarraren proportzio handiagoa hartzen du gizonezkoena baino	43
12. koadroa. Emakumeen langabezi tasak gizonenak baino altuagoak izaten jarraitzen dute, baina diferentzia murriztu egin da zenbait herrialdetan . . .	44
13. koadroa. Emakumeen soldatak gizonen soldaten portzentaje gisa, 1997 inguruan	49

14. koadroa.	Emakumeak informatika programatzaile eta sistema analista lanbide berrietan, 1999-2000 . . .	55
15. koadroa.	Pobreziaren proportzioa generoaren arabera aukeratutako herrialdeetan, 1980ko hamarkadan	57
16. koadroa.	Parlamentuan dauden emakumeen irudikapena, 2002ko azaroa	61
 3. KAPITULUA:		
17. koadroa.	«Emakumeak Garapenean» sektoreari zuzenduriko garapenerako alde biko laguntza ofiziala . .	141
18. koadroa.	Emakumeei zuzenduriko proiektuak (1988-1994)	145
19. koadroa.	Emakumeentzako proiektuak jarduera sektoreka (1988-1994)	147
20. koadroa.	Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko emakumeei zuzenduriko proiektuak eta genero ikuspegia duten proiektuak (1988-1997)	147

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa.	Munduan desagertutako emakume kopurua . .	25
2. grafikoa.	Emakumeek gizonek baino ordu gehiago lan egiten dituzte	28
3. grafikoa.	Emakumeek egindako lan gehiena oraindik ez da ordaintzen, aintzatesten edo balioesten . . .	32
4. grafikoa.	Bigarren hezkuntzako eskolatzeko maila, emakumeen eta gizonen portzentajea	46
5. grafikoa.	Nekazaritza ez den sektorean 1999-2000 urteen artean gizonen eta emakumeen arteko batez besteko orduko sarreraren erlazioa, aukeratutako Latinoamerikako herrialdeetan	51

AURKEZPENA

Gaur egun ez dago emakumeek eta gizonen eskubide berdinak dituzten gizarterik. Bestelako izate horrek sortzen du emakumeek gizartearen garapenari egiten dioten ekarpen handiaren eta etekinetan duten parte-hartze txikiaren arteko aldea.

Hitz horiekin hasten da Garapenerako Nazio Batuen Programak (GNBP) 1995ean egindako Giza Garapenari buruzko Txostenaren bigarren kapitulua, emakumeek munduan zein egoera duten eta emakume edo gizon izatearen arteko desberdintasunak analizatzen dituenak. Ateratzen dituen ondorioak oso argiak dira: nahiz eta azken hamarkadetan emakumeek beren ahalmenen garapenean aurrerabide handia egin duten eta hezkuntza eta osasun gaietan gizonekiko berdintasunerantz hurbildu diren, ekonomiaren eta politikaren esparruetan parte hartzeko dituzten aukerak, oraindik ere, mugatuak dira.

Bi hamarkada daude, halaber, txosten horren eta Emakumearen Nazioarteko Urtean (Mexikon, 1975ean) egindako aldarrikapenen artean eta azken hauek eman zioten hasiera «emakumeak eta garapena» auziaren ikuspuntu berri bati. Munduko Lau Biltzarrek, diagnostiko eta ikerketa kopuru izugarriak, komunikabideetan isuritako tinta jarioak eta, batez ere, Hegoaldeko gizarteetako emakumeen mobilizazioak, nahiko datu eta analisi eman dituzte erlazionaturiko bi errealitate ulertzeko: ez da garapenik izango emakumeek parte hartu gabe, baina beraien parte-hartzea ere ezinezkoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun zuloa ez-tabaidatu gabe.

Garapenari buruzko idatziek, askotan, herrialde pobreetako emakumeak euren bizi-baldintza gogorrei aurre egiteko kanpoko laguntza behar duten biktima pasibotzat aurkezten dituzte. Emakume askok desabantaila egoera jasaten dutela egia bada ere, irudi horrek ez ditu merezi duten lekuan jaritzen emakume askoren sormena eta kemena, horietara jotzen baitute, banaka edo taldeka, garapen oker horren ondorioei aurre egiteko eta, era berean, beren bizitzetan autodeterminazio maila handiagoak lortzeko.

Gure garaian ere, ezinbestekoa da aitortzea emakumeek ekonomian funtsezko papera betetzen dutela eta oraindik argitu ez den moduan laguntzen diotela gizartearen garapenari. Haien lana eta arretak nahitaezkoak dira milioika pertsonen bizi baldintzak oraindik gehiago ez okertzeko, eta gainera, eguneroko bizitzako gizarte sareek martxan mantentzen dituzte familia eta komunitate erakundeak. Gizarte garapena etengabe sustatzen dute, eta nahiz eta baztertuak egon, emakumeak parte hartzen saiatzen dira eta berdin hartzen dute parte auzoko erakundeetan, eskolakoetan, erlijiosoetan, lanekoetan, sindikatuetaoetan, kulturakoetan eta politikakoetan.

Eskuliburu honek ez ditu azaltzen Hegoaldeko emakumeak munduko biztanleriaren heren bat pobretzen duten nazioarteko erlazioen jokoko galtzaile nagusi gisa soilik, baina azaltzen du, halere, munduko ordena ekonomiko horren ageriko aurpegia —askotan ezkutuan dagoena—.

Ez du izan nahi, ezta gaitzespen-zerrenda bat ere, emakumeak historikoki garapenari buruzko eztabaida akademiakoetan eta euren bizitzetan, azkenean, eragina izango duten politikak eta programak lantzen diren gunetan egon izan ez direla eta. Baina, badauzka ausentzia horren arrazoiei buruzko eta horrek garapenerako lankidetzaren praktikan dituen ondorioei buruzko zenbait argudio.

Era berean, eskuliburu honek ez du adierazi nahi nola moldatzen diren Hegoaldeko emakumeak krisialdi eta pobrezian bizirauteko, beste aukera batzuk eraikitzen eragile aktiboak izateko... baina jasota uzteko asmoa du beren erakundeetatik abiatuak, emakumeek, beren lanekin eta ehuntzen dituzten gizarte sareekin, familiaren eta komunitatearen ongizatearen aldeko sakrifizio ahalmenarekin, gizartearen garapena eraikitzen dutela, ahalmenen eta aukeren horizontea zabaltzen dutela, bai beraiena eta bai beren hirikideena.

Eskuliburu honen xedean badago, dudarik gabe, erabiliko dutenak konbentzitu nahia, Hegoaldeko emakumeek ba-

dutela eskubidea bitza duina eta gizon-emakumeen arteko erlazio ekitatiboak izateko euren desioak garapenerako proposamenetan eta ekintzetan sar daitezten.

Horretarako ezinbestekoa da lankidetzak estrategiak diseinatzen dituztenek emakumeen ahotsak entzutea, haien bizi esperientziak kontuan hartzea eta garapenari egiten dizkionten ekarpenak balioztatzea. Eta hori errazagoa izango da jarrerara horiekin batera, Hegoaldeko emakumeek egindako ekarpen teoriko eta politikoen argitan, beren ikusmoldeak eta proposamenak errebisatzeko borondatea agertzen badute.

1

Hegoaldeko emakumeen irudiak

1.1. ANTZINATIK DATORREN BAZTERTZEA...

Milurtekoaren amaieran betetzen dira «emakumeak eta garapena» auziaren inguruko eztabaidak eta ekintzak hasi zirenetik hiru hamarkada, eta horren guztiaren ageriko helburua izan da emakumeei bizitza duina izateko aukerak gehien mugatu dizkieten alderdiak aldatzea.

Intentzio onak eduki arren, munduko azterketa, analisi, bilera eta gailurren emaitzek, egun, maila desberdinetan bada ere, munduan emakumeen bizi baldintzak markatzen dituzten gabezien mapa marrazteko aukera ematen digute, eta aldi berean erakusten dute nola martxan jarritako erakunde politiak eta mekanismoak ez diren behar adinakoak milioika emakumeren bizitzak gidatzen dituzten bidegabeke-riak ezabatzeko, bereziki munduko herrialderik pobreenetan bizi direnenak.

1995eko Giza Garapenari buruzko Txostenak adierazten du «giza garapena pertsona guztien aukerak zabaltzeko prozesua dela (...) emakume gehienak etekinen banaketatik kanpo geratzen direnean, bidegabeko eta baztertzaile bihurtzen dena». Txosten horren ondorio garrantzitsuenek nabarmen-tzen dute ez dagoela gizarterik non emakumeek gizonen es-kubide berdinak dituzten, nahiz eta azken bi hamarkadetan aurrerapen nabarmenak lortu diren haien giza ahalmenaren garapenean, osasuna eta hezkuntza erdiesteari eta bizi itxa-ropena luzatzeari dagokionez.

Beste gauza bat ere azpimarratzen du: emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria ezabatzea ez dela herrialdea-

ren aberatasun mailaren araberakoa, «berdintasunean aurrea egitea ez baita helburu teknokratiko bat, pentsamendu mota berri bat eskatzen duen prozesu politikoa baizik (...) pertsona oro, edozein delarik ere bere sexua, aldaketarako ezinbesteko eragile gisa hartu behar duena».

Bestalde, 1995ean Pekinen bildu ziren hogeita hamar mila emakume, Emakumearen inguruko Munduko Laugarren Biltzarra zela bide, eta garapenaren eta modernitatearen ekintzek eta hutsegiteek emakumeei eragindako kalteen inbentario bat egin zuten. Haien diagnostikoaren eta Giza Garapenari buruzko Txostenaren arteko parekotasuna ikusita, ondoriozta daiteke emakumeen garapena pobrezia eta indarkeriak beren eguneroko bizitzan duten geroz eta eragin handiagoak oztopatzen dutela, bai eta osasun eta hezkuntza zerbitzuetara, ekonomia aukeretara eta erabaki politikoetako espazioetara heltzeko aukera desberdintasunek ere.

Jarraian emandako datuek —guztiak Giza Garapenari buruzko Txostenetik (1995-2000) eta UNIFEMetik (2002) ateratakoak dira— emakumeek jasaten dituzten bidegabekeriaren larritasuna eta Hegoaldeko gizarteetan emakumeen bizitzak eta gizonenak banantzen dituen amildegia erakusten dute:

- Emakumeek munduko biztanleriaren erdia osatzen dute, baina munduan dabilen diruaren %10en eta planetan lantzen den lurraren %1en jabe besterik ez dira.
- Garapen bidean dauden herrialdeetan, emakumeek egiten dute lan guztiaren %53, baina lan horren herenagatik bakarrik jasotzen dute ordainsaria. Gizonek lanaren %47 egiten dute, baina lanaren hiru laurden baino gehiagoren ordaina kobratzen dute.
- 2000 urtean emandako nekazaritzarako maileguen %2 eskas izan zen emakumeentzat.
- Eguneko bost dolar baino gutxiagorekin bizirauten duten 2.800 milioi pertsonetatik gehienak emakumeak dira, eta eguneko dolar bat baino gutxiagorekin bizirauten duten 1.200 milioien artean ere bai.
- Kalkulatu da munduan 854 milioi pertsona heldu daudela analfabeto funtzionalak direnak, eta horietatik 544 milioi emakumeak dira.
- Lehen hezkuntzako eskoletan matrikulatuak ez dauden 113 milioi haurretik %60 neska dira.

- Irakurtzen eta idazten ez dakiten 15 eta 24 urte bitarteko 140 milioi gazteren artean 86 milioi emakumeak dira. Egungo eskolatze tasak mantentzen badira, 2015ean 107 milioi gazte analfabeto egongo dira eta horietatik 67 milioi emakumeak izango dira.
- Emakumeak dira burdin faltagatik anemia edo hipotrofia nutrizionala duten 1.500 milioitik gora pertsonen %60.
- ACNURek bere historian zehar zaindu dituen pertsonen %80 emakumeak eta haurrak dira.
- Munduan parlamentuetako postuen %14 dauzkate emakumeek, ministerio postuen %6 eta ekonomiako zuzendari postuen %14.

1.2. 100 MILIOI EMAKUME BAINO GEHIAGO 'DESAGERTURIK'

Amartya Senek, 1998ko Ekonomiako Nobel sariak, aditza eman du egungo garapen politikek konpontzeko duten arazo larrien eta ahaztuenetako bat ehun milioi emakume baino gehiagoren *desagertzea* dela, desagertze horien arazoia izanik behar baino lehen hiltzen direla hainbat arlotako gabeziak direla medio: elikadura, osasuna, hezkuntza, ordaindutako lana eta ekonomia eskubideak —jabetza eskubideak barne—. Heriotz horiek munduan milioika emakumek jasaten dituzten utzikeria eta gabezien ondorioa dira.

1.2.1. Semeak nahiago eta alabak baztertu

Emakumeen aurkako diskriminazioa jaiotzen diren momentuan hasten da, edo baita lehenago ere. Ia gizarte eta kultura guztietan, mutilak neskak baino nahiago dituzte eta neskek ez dituzten pribilegioak dituzte mutilek, neskek balio ekonomiko txikiagoa dutela pentsatzen baita. Pentsaera hori askotan ezkontzaren, ezkonsariaren eta herentziaren inguruko ohiturek indartzen dute. Badira hainbat ebidentzia enpiriko, Asiako herrialde batzuetan, familia txikiak ohiko direnean, lehentasun hori areagotu egiten dela frogatzen dutenak.

Ekonomia, kultura eta erlijio faktoreen baturak eragiten du gurasoek semeak nahiago izatea eta alabak baztertzea Asiako eta Afrikako herrialde handietan. Lehentasun horrek askotan heriotza izaten du ondorio eta hain sarri gertatzen

dira abortu selektiboa eta nesken hilketa Txinan, Indian, Pakistanen eta Hego Korean, ezen jaiotako neska eta mutilen proportzioak distortsionatzera iristen baitira. Estatu horietako batzuek jaio aurretiko sexua identifikatzeko frogak erabiltzea debekatu dute, baina horrek ez ditu geldiarazi emakumezko fetuen abortuak.

1.2.2. Neskek aukera gutxiago dute elikagaiak eta arreta lortzeko

Munduko leku askotan, batez ere Hegoaldeko herrialdeetako gune pobreetan, nesken aurkako jokamolde diskriminatzaileek bere horretan diraute osasun-zerbitzuak eta elikadura ematean, bai eta mutilen baino lan gehiago eta aisiarako denbora gutxiago ezartzean ere. Ondorioa da, garapen-bidean dauden 13 herrialdetan lau urte baino gutxiagoko nesken heriotza mutilena baino altuagoa dela, eta hori herrialde gehienetan ikusten diren jokamolde biologikoekin alderatzean desberdintasun nabaria azaltzen da.

Sexuaren arabera bereizitako desnutrizio datuak eskasak dira eta badirudi desberdintasun nabarmenak daudela he-

1. koadroa. **Haurren artean, neska gehiago hiltzen da mutilak baino** (urteko heriotzak 1-4 urte bitarteko 1000 haurreko, 1984-1990)

Herrialdea	Nesakak	Mutilak	Neskek heriotzak mutilenen %gisa
Singapur	0,5	0,4	125
Maldivak	9,3	7,8	119
Egipto	6,6	5,6	118
Granada	1,6	1,4	114
Pakistan	9,6	8,6	112
Bangladesh	15,7	14,2	111
Surinam	2,2	2,0	110
Jamaika	1,5	1,4	107
Guatemala	11,3	10,6	107
Honduras	2,9	2,8	104
Siriako Arabiar Errepublikak	2,9	2,8	104
Algeria	12,8	12,5	102
Peru	5,7	5,6	102

Iturria: UNIFEM, 1994.

rialdeen arabera, hala ere, arazoaren larritasuna munduko lurralde askotan azaltzen dute, bai eta elikadura-gabeziak sexu bietan duen eragin desberdina ere. Horrela, Saharaz hoegoaldeko Afrikan nesken %17k eta mutilen %32k pisu falta ertaina edo larria dute, Latinoamerikan eta Kariben proportzioa alderantzizkoa da, nesken %31k eta mutilen %17k dute pisu falta.

Bangladeshen aldiz, ez dira sexuen arteko desberdintasun handiak topatzen datuetan (nesken %59k eta mutilen %56k dute desnutrizio kronikoa), Punjabeko (India) landa inguruneetan pobretasunak gehiago eragiten die neskei elikagaiak eskuratzeko garaian: diru-sarrera txikiak dituzten familietan, mutilen %3k du desnutrizioa, eta aldiz, gaixotasun hori du nesken %21ek. 1995eko Giza Garapenari buruzko Txostenak adierazi duenez, herrialde horretan «diru-sarrera txikiko familietako mutilak diru-sarrera handiko familietako neskak baino egoera hobean daude».

1.2.3. Emakume helduen artean desnutrizio tasak eta erditzearen ondoriozko heriotza tasak oso altuak dira

Nesken nutrizio urritasunen ondorioa da, mundu mailan, emakume gehiagok dutela desnutrizioa gizonek baino: emakumeak dira proteina energia faltagatik anemia edo hipotrofia nutrizionala duten 1.500 milioitik gora pertsonen %60.

Emakumeek ez dutela elikagairik eskuratzeko aukerarik argi geratzen da ugaltzeko etapara iristen direnean: munduko emakumeen heren batek egunean 2.250 kaloria baino gutxiago irensten ditu, bai eta haurdunaldian ere eta ez ditu bere lan kargak murrizten. Bangladeshen, sarrera ertainak dituzten etxeetako haurdun dauden emakumeen %77 eta sarrera txikiak dituzten etxeetako %95ek normala izango litzatekeena baino gutxiago pisatzen dute.

Bestalde, emakumeen heriotzen artean ama izatearekin zerikusia dutenen kopuru handia kritika gogorra dira garapenarentzat. Herrialderik pobreenetan, 100.000 emakumetatik 608 hiltzen dira erditzean (Europar Batasunean, aldiz, 7 dira). Urtero 585 emakume hiltzen dira haurdun oso sarri egoteagatik eta erditzeko momentuan osasun arretarik ez edukitzeagatik eta hirurogeita hamar milak bizia galtzen dute baldintza txarretan egindako abortuen ondorioz.

Amatasun heriotza gehienak Asian gertatzen dira, non urtero milioi bat emakumek galtzen duten bizia eta hegoaldeko Asia da baldintza txarrenetan dagoena: Bangladeshen,

Indian eta Pakistanen munduko erditzeen %28 eta amatasun heriotzen %46 gertatzen dira. Bigarren postuan Afrika dago, non urtero 150.000 emakumek galtzen duten bizia arrazoi horiengatik.

100 milioi emakume baino gehiago falta dira

Maiz esaten da emakumeak munduko biztanleriaren gehien-goa direla. Baina ez da horrela. Uste oker hori Europa eta Iparramerikako egungo egoera orokortzat jotzetik dator, herrialde hauetan emakumeen gizonekiko erlazioa 1,05 edo 1,06koa baita, edo gehiagokoa. Asiako hegoaldean, mendebaldeko Asian eta Txinan, emakumeen gizonekiko proportzioa 0,94 edo oraindik ere txikiagoa izan daiteke, eta asko aldatzen da Asiako, Afrikako eta Latinoamerikako beste leku batzuetan.

Europar, Amerikako Estatu Batuetan eta Japonen, emakumeak gizonak baino askoz ere ugariagoak dira. Emakumeek dauzkaten bizi ziklo luzeenak gaixotasunak jasateko eta indarkeria eta tabakismoa bezalako faktoreen eraginpean gutxiago jartzeko dituzten abantaila biologikoei lotuta azaltzen dira, horiek baitira gizonezkoen artean heriotza gehien eragiten dituzten faktoreak. Badirudi emakumeek gizonek baino heriotza tasa baxuagoak dituztela, adin gehienetan, betiere tratu berdina jasotzen badute bizitzaren eta heriotzaren inguruko gaietan.

Emakumeen patua nahiko desberdina da ia Asia eta Afrikako iparralde guztian, non elikagai eta zerbitzu mediko parekagarrien eskasiaren emaitza, emakume kopuru txikiagoak bizirautea izaten den. Herrialde batean *falta den emakume kantitatea* balioets dezakegu, kopuru hau kalkuluta: herrialde horretan, gaur egungoez gain izango liratekeen emakumeen kopurua, emakumeek gizonen pareko arreta-maila jasotzen duten mundu-eremuetan lortzen den gizon/emakume erlazio berbera balego. Sexu bien arteko proportzio berdindua gauzatuko balitz, Txinako gizon bakoitzeko 0,94 emakumeren proportzio baxuak %6ko defizita adieraziko luke; baina gizonek eta emakumeek arreta-maila bera jasotzen duten herrialdeetan 1,05 ingurukoa da proportzioa, beraz, benetako defizita %11 ingurukoa da.

Horrek esan nahi du Txinan 50 milioi emakume *falta* direla. Zifra horri Indiakoa (23 milioi), Pakistanekoa (3,1 milioi), Bangladeshekoa (1,6 milioi) eta Afrikako iparraldekoa (23 milioi) batzen zaizkionean frogatzen da 100 milioi emakume baino askoz gehiago *desagertu direla*. Zifra horiek desberdintasunez eta utzikeriaz jositako historia tragiko bat adierazten dute, inplizituki, eta horren emaitza da emakumeen arteko heriotza tasa altua.

Iturria: Sen, A., 1991.

1. grafikoa. Munduan desagertutako emakume kopurua

Egoera normalean 95 neska inguru jaiotzen dira 100 mutil bakoitzeko; baina neskek abantaila biologiko handi bat dute mutilleko, baita hilkortasun-indize txikiagoa ere.

Desagertutako nesken eta emakumeen kopurua gaur egungo emakumeen kopuruaren eta diskriminazioirik izango ez bazen egon beharreko haien kopuruaren arteko aldea da.

Munduan desagertutako emakume eta neska kopurua. 1990eko hamarkadaren hasiera

500.000 emakume desagertuak

India 23 milioi



Pakistan 3,1 milioi



Bangladesh 1,6 milioi



Txina 30 milioi



Egipto, Turkia 600.000



Nepal 200.000



Munduko gainerako lekuetan 40 milioi



Iturria: Seager, J., 1997-2000.

Emakumezkoen osasun beharrak guztiz lagata daude. Garapen-bidean dauden herrialdeetan erditzeen erdia baino gutxiagok —eta hegoaldeko Asian heren batek baino gutxiagok— jasotzen dute osasun zerbitzuetako langileen laguntza. Herrialde horietako askotan ez dago erditzen laguntzeko osasun eragile egokirik, ez eta erditzean larrialdiko laguntza emateko ere, jaio aurreko edo jaio ondorengo laguntza onik ere ez dute. Ondorioz, Afrikako emakume batek Europako batek baino 180 aldiz probabilitate gehiago ditu haurdunaldiko arazoen ondorioz bizia galtzeko. Izan ere, mendebaldeko Europako herrialde pobre gehienetan arazo horiek dira seme-alabak edukitzeko adinean dauden emakumeen heriotza arrazoi nagusia.

Bizitzaren lehenengo urteetako arretarik ezaren eta elikadura gabezien ondorio konbinatuek eragiten dute, eta horri gehiturik, amatasun heriotza tasa altuak, Hirugarren Munduko emakumeen bizi itxaropena 62,6 urtekoa izatea, eta herrialde industrializatueta, aldiz, 79,4 urtekoa. Herrialderik pobreenetan emakumeen bizi itxaropena 52 urtekoa da.

1.3. LANA ETA ENPLEGUA GLOBALIZATUTAKO MUNDUAN

Mundu mailako konspirazio bat dago, nahita ez bada ere, emakumeek egiten duten lana eta gizarteari egiten dizkioten ekarpenak gutxiesteko. Zentzuz onartuko balitz emakumearen ekarpen ekonomikoa, guztiz aldatuko lirатеke gizonen eta emakumeen arteko harremanen oinarri egin ditugun premisa sozio-ekonomiko tradizional guztiak (Giza Garapenerako buruzko Txostena, 1995).

1.3.1. Guztizko lan-denboraren banaketa


Munduko ia herrialde guztietan emakumeek gizonek baino lanordu gehiago egiten dituzte; hala eta guztiz ere, parte txikiagoa dute etekin ekonomikoetan. Emakumearen lana modu errealean islatuko balitz estatuko estatistiketan, munduan etxea mantentzen dutenak gizonak direla dioen mitoa bertan behera eroriko litzateke (Giza Garapenerako buruzko Txostena, 1995).

1995eko Giza Garapenari buruzko Txostenerako egindako ikerketetatik, emakumeek eta gizonek merkatuan eta merkatutik kanpoko jardueri eskaintzen dieten denborari buruzkoetatik, honakoa ondoriozta dezakegu:

- Emakumeek gizonek baino lanordu gehiago egiten dituzte herrialde guztietan, garapen-bidean dauden herrialdeetan guztizko lan-denboraren %53 egiten dute eta herrialde industrializatuetan %51, 2. grafikoan eta 2. eta 3. koadroan ikus daitekeen moduan. Afrikan eta Asian emakumeek, astean, gizonek baino 13 ordu gehiago lan egiten dituzte, batez beste, eta Latinoamerikan 6 ordu gehiago.
- Emakumeen lan karga gizonetzkoena baino %5 handiagoa da ELGAko herrialdeetan, %7 handiagoa garapen-bidean dauden herrialdeetako hiriguneetan eta %9 handiagoa ekialdeko Europan eta Estatu Independenteen Komunitateko herrialdeetan. Baina zuloa %15eraino iristen da ekialdeko Europako herrialdeetan, Bulgaria eta Polonia kasu, non ekonomiaren beregituraketak emakumeen lan karga ordaindua zein ordaindu gabea areagotzea eragin duen, baita garapen bidean dauden landa inguruneetan ere, %20 bitarte, zeinetan, gainera, lanegun osoa hirikoa baino %20 luzeagoa den, hala gizonentzat nola emakumeentzat (ikus 4. koadroa).
- Emakumeek eta gizonek ez dute lan denbora berdin banatzen: emakumeek lan denboraren herena merkatura zuzendutako jardueretan (ordainduetan) ematen dute, gizonek, aldiz, garapen bidean dauden herrialdeetan beren lanaren hiru laurdenak baino gehiago zuzentzen dituzte lan horietara, eta bi heren herrialde industrializatuetan (ikus 3. grafikoa).
- Jarduera batzuetan edo besteetan aritzea asko aldatzen da hiriko eta landako inguruneetan. Garapen bidean dauden herrialdeetan, landako emakumeek beren lanaren %62 ordaindu gabe egiten dute, hirikoei dagokienez, %69 da portzentajea. Gizonen kasuan aldiz, landakoek denboraren %24 eskaintzen diote ordaindu gabeko jardueri eta hirikoei %21 (ikus berriz 4. koadroa).

Datu horietatik ondoriozta daiteke, PNUDK egiten duen moduan, «gizonen eskuetara joaten dela diru-sarreraren eta aintzatespenaren zatirik handiena beren ekarpenagatik eta emakumeen lanik gehienak, aldiz, oraindik ere ez dutela jasotzen ordainsaririk, ez aintzatespenik, ez balioespenik (...). Egungo gizartean giza maila dirua irabazteko ahalmenarekin osos sarri parekatzen denez, emakumeen egoera ekonomikoa asko gutxiesten da nahiz eta guztizko lanaren gehien-goaren karga jasaten duten».

2. grafikoa. **Emakumeek gizonek baino ordu gehiago lan egiten dituzte** (gizonezkoen lan denbora = 100)



Iturria: PNUD, 1995.

2. koadroa. **Sexuaren araberako lan karga, garapen bidean dauden herrialde hautatueta**

Herrialdea	Urtea	Lan denbora (eguneko minutuak)			Emakumeen lan karga gizonarekin alderatuz (diferentziaren %)
		Batezbestekoa	Emakumeak	Gizonak	
Landako guneak					
Bangladesh	1990	521	545	496	10
Guatemala	1977	629	678	579	17
Kenya	1988	588	676	500	35
Nepal	1978	594	641	547	17
Goi-lautadak	1978	639	692	586	18
Mendiak	1978	592	649	534	22
Landako mendixkak	1978	552	583	520	12
Filipinak	1975-77	499	546	452	21
Batezbestekoa		566	617	515	20
Parte-hartzea ehunekotan			55	45	
<i>Estatuko inkesta</i>					
Koreako Errepublika	1990	479	488	480	2
Lagineko herrialdeentzat batezbestekoa		514	544	483	13
Parte-hartzea ehunekotan				53	47

Iturria: PNUD, 1995.

3. koadroa. **Sexuaren araberako lan karga, herrialde industrializatu hautatueta**

Herrialdea	Urtea	Lan denbora (eguneko minutuak)			Emakumeen lan karga gizonarekin alderatuz (diferentziaren %)
		Batezbestekoa	Emakumeak	Gizonak	
Australia	1992	443	443	443	0,0
Austria	1992	416	438	393	11,5
Kanada	1992	430	429	430	-0,2
Danimarka	1987	454	449	458	-2,0
Finlandia	1987/88	420	430	410	4,9
Frantzia	1985/86	409	429	388	10,6
Alemania	1991/92	441	440	441	-0,2
Israel	1991/92	376	375	377	-0,5
Italia	1988/89	419	470	367	28,1
Herbehereak	1987	361	377	345	9,3
Norvegia	1990/91	429	445	412	8,0
Erresuma Batua	1985	412	413	411	0,5
AEB	1985	441	453	428	5,8
Lagineko herrialdeen batezbestekoa		419	430	408	5,8
Parte-hartzea ehunekotan			51	49	

Iturria: PNUD, 1995.


.../...

	Urtea	Lan karga		Emakumeak gizonekiko portzentaje gisa	Denboraren banaketa (%)														
		Guztizko lan denbora (eguneko minutuak)			Guztizko lan denbora		Merkatuko jarduerak		Merkatuko ez diren jarduerak										
		Emakumeak	Gizonak		Merkatuko jarduerak	Merkatuko ez diren jarduerak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak									
											Emakumeak	Gizonak							
Aukeratutako ELGAko herrialdeak																			
Australia	1997	435	418	104	46	54	30	62	70	38									
Austria ^d	1992	438	393	111	49	51	31	71	69	29									
Kanada	1998	420	429	98	53	47	41	65	59	35									
Danimarka ^d	1987	449	458	98	68	32	58	79	42	21									
Finlandia ^d	1987-88	430	410	105	51	49	39	64	61	36									
Frantzia	1999	391	363	108	46	54	33	60	67	40									
Alemania ^d	1991-92	440	441	100	44	56	30	61	70	39									
Hungaria	1999	432	445	97	51	49	41	60	59	40									
Israel ^e	1991-92	375	377	99	51	49	29	74	71	26									
Italia ^d	1988-89	470	367	128	45	55	22	77	78	23									
Japon	1996	393	363	108	66	34	43	93	57	7									
Koreako Errepublika	1999	431	373	116	64	36	45	88	55	12									
Letonia	1996	535	481	111	46	54	35	58	65	42									
Herbehereak	1995	308	315	98	48	52	27	69	73	31									
Zeelanda Berria	1999	420	417	101	46	54	32	60	68	40									
Norvegia ^d	1990-91	445	412	108	50	50	38	64	62	36									
Erresuma Batua ^d	1985	413	411	100	51	49	37	68	63	32									
Amerikako Estatu Batuak ^d	1985	453	428	106	50	50	37	63	63	37									
Batezbestekoak^e		423	403	105	52	48	37	69	64	31									

Oharra: a. Gorago azaltzen diren herrialde edo guneetako haziatu gabeko batezbestekoari egiten dio erreferentzia. b. Merkatuko eta merkatukoak ez diren jardueren sailkapenak ez dira 1993an gainbegiratuako Nazio Batuen Nazioko Kontu Sistemari zorrozt oinarritzen, beraz, herrialde eta guneen arteko alderaketak arretaz egin behariko dira. c. Israel eta Letonia ere biltzen ditu, nahiz eia ez diren ELGAko herrialde kideak. d. Harvey 1995. e. Gorago azaltzen diren aukeratutako ELGAko herrialdeen haziatu gabeko batezbestekoari egiten dio erreferentzia (hau da, Israel eta Letonia ez gainerako guztiak).

Iturria: PNUD, 2002.

3. grafikoa. Emakumeek egindako lan gehiena oraindik ez da ordaintzen, aintzatesten edo balioesten



Iturria: PNUD, 1995.

1.3.2. Ugaltze eta zaintze lana

Benetako kezka giza garapena denean, zaila da argudiatzea merkaturako ondasun eta zerbitzuak ekoiztera zuzendutako denborak garrantzi handiagoa duela giza bizia sortu, mantendu eta zaintze zuzendutakoak baino (Giza Garapenerako buruzko Txostena, 1995).

Caroline Moserek (1991) kontzeptualizatu duen moduan, emakumeek bultzatu egiten dute garapen ekonomikoa, ugaltzetaren, ekoizpenaren eta komunitate kudeaketaren alorretako hainbat jardueraren bidez.

—Emakumeen «ugaltze lanetan» berdin sartzen dira ugaltze biologikoarekin zerikusia dutenak (erditzea eta seme-alabak haztea) edo lan indarraren eguneroko mantenuari lotuak (elikagaiak prestatzea, ura eta egurra bil-

tzea, etxebizitza garbitzea eta bertako bizigarritasun baldintzak mantentzea, hornidura, arreta eta laguntza familiako kideentzat), eta beste alde batetik gizarte ordenaren erreproduktzioa zuzendutakoak (seme-alabak gizarteratzea, famili sareak eta elkarrenganako laguntza mantentzea, aktibo kulturalak transmititzea). Lan hori ezinbestekoa da pertsonen bizirauteko baina «etxeko lan» gisa kontzeptualizatuta daude, ez dira ordaintzen ez eta estatuko produkzio gisa zenbatzen ere. Ia beti emakumeek eta neskek egiten dute, eta komunitate pobreetan energia eta denbora asko kentzen du, ez baitute oinarrizko taldeko zerbitzurik ez eta etxetresna elektrikoen laguntzarik ere.

- Emakumeen «ekoizpen lanak» merkatuan diruarekin edo beste ondasun edo zerbitzuekin trukatu diren ondasunak eta zerbitzuak sortzera zuzendutakoak dira. Aurrerago ikusiko dugun moduan, nahiz eta badien ekonomia sektorean lan egiten duten emakumeak, askoz ere gehiago dira nekazaritzako jarduera subsidiarioetan edo «laguntzakoetan» aritzen diren ordaindu gabeko famili langile gisakoak, etxean edo hiriko auzoetan dauden sektore informaletako enpreetan lan egiten dutenak eta zerbitzuen sektorean, bereziki etxeko lan ordainduetan, jarduten dutenak. Nahiz eta emakumeek beren diru sarrerekin mantentzen duten mundu osoko etxeen herena (emakumeak buru diren etxeen kasua), estatistika ofizialek oraindik ez dituzte emakumeen ekoizpen jarduera guztiak kontabilizatzen.
- Azkenik, emakumeen «komunitateko kudeaketa lana» gauzatzen da ekitaldi sozialak, zeremoniak eta auzo ospakizunak antolatzean; beren familientzat eta komunitateentzat oinarrizko zerbitzuak lortzera zuzenduriko ekintzetan; komunitateko sareak mantentzera zuzenduriko jardueretan, eta abar. Estatuak etxebizitza eta zerbitzu kolektiboen gaietan egiten duen hornidura geroz eta desegokiagoa dela eta, sarrera gutxi dituzten emakumeek hartzen dute zerbitzu horien eta landa ingurunearen alde borroka egiteko tokiko erakundeak eratzeko erantzukizuna. Jarduera horiei eskaintzen dieten denbora ez da kontatzen ez eta ordaintzen ere, eta oso gutxitan gertatzen da emakumeek kredituak jasotzea edo komunitatean duten prestigioa eta eragin maila handitzea, eremu horretan egindako ekarpenengatik edo lortutako arrakastagatik.

Ekonomiaren teoria konbentzionalak merkatuan beste batzuekin trukatu daitezkeen ondasun eta zerbitzuak bakarrik hartzen ditu lantzat, era berean, herrialde baten jarduera ekonomikoa neurtzeko Nazioko Kontuen Sistema diseinatu da gizabanakoek egiten duten lanarengatik ordainsari ekonomikoko bat jasotzen duten merkatuko ekonomiaren funtzionamendua islatzen duena. Ondorioz, emakumeek egiten duten lanetik ordaindutakoa bakarrik hartzen da lantzat eta herrialde baten nazio-produktu gordinaren parte gisa gordezten da.

Emakumeek beren familiak eta komunitateak berehalako kontsumorako ondasunez eta arretarako zerbitzuez hornitzeko egiten dituzten jarduerak estatistiketatik kanpo uztean, ugaldetako eta komunitate kudeaketako lan horiek ikusezinak bihurtzen dira, ez dira ekonomiari egindako ekarpen gisa kontatzen eta, ondorioz, ez dira existitzen. Hala eta guztiz ere, 1995eko Giza Garapenerako buruzko Txostenaak kalkulatu du emakumeek eta gizonek egindako lan ordaindu gabeak 16 bilioi dolarretako balioa duela (munduko ekoizpenaren %70aren baliokidea, ekoizpen osoa 23 bilioi dolarretakoa baita), horietatik 11 bilioik adierazten dute mundu osoko emakumeek egindako ekarpen dirurik gabea eta ikusezina.

Teoria konbentzionalen paradigmeekin oso kritikoa den ekonomia feminista pentsamendu-korronteak argudiatzen du emakumeen ugaltze lanak ez dituela gizarteak aintzat hartzen eta ez dutela balioespen ekonomikorik, ugaltze soziala ez delako sistema ekonomikoa eta ekonomia bera hazteko ezinbestekoak diren jarduera multzoaren partetzat hartzen.

Ekonomia merkaturatzen diren salgaiak ekoizteko eta banatzeko funtzionatzen duen lan, ondasun, zerbitzu eta diru fluxu zirkular gisara definitzean, Nazioko Kontuen Sistemak, «ekoizpenaren muga» bat ezartzen du, ekonomia osatzen duten jarduerak eta osatzen ez dutenak bereizten dituena, eta azken talde horretan gelditzen dira, hain justu ere, sexua-aren araberrako lan banaketak emakumeei egotzi dizkien jarduerak («ordainsaririk ez duten arreta lanak» deiturikoak, arreta zerbitzuak, etxeko lana edo ugalketa), alegia, emakumeek ordainsaririk gabe egiten dituztenak, familian edo komunitatean borondatzeko jarduera gisa.

Nahiz eta azken hamarkadan Nazioko Kontuen Sistemari, ondasunen ekoizpen guztia Nazio Produktu Gordinetan sartzea bideratutako aldaketak egin zaikion, oraindik ere kanpoan uzten ditu familiako beste kide batzuentzat edo komunitatearentzat ekoiztutako produktuak. Hala ere, gure bu-

ruari galdetu behar genioke egoki ote den, egiten dituztenei denbora asko eta energia handia eskatzen dizkieten ekoizpen jarduerak, ordainsaririk jasotzen ez dutelako bakarrik, nazioaren kontabilitatetik kanpo uztea.

Azken urteetan, gizakiak prestatzeko eta giza garapenean aurrera egiteko arreta funtsezkoa dela pentsatzeak indarra hartzen du garapenari buruzko pentsaeran, eta horixe adierazten du 1999ko Giza Garapenari buruzko Txostenaren kapitulu bat gai horren ingurukoa izateak. Bertan planteatzen da ekonomiaren globalizazioa, emakumeek gero eta lan ordaindu gehiago lortzen dituztelako, arreta lana tentsio saketara eramaten ari dela, eta horrek murriztu egiten dituela ordaindu gabeko arreta zerbitzuen eskaintza; zerbitzu horietara zuzenduriko gastu publikoaren zerga presioak; eta merkatuak lan horri eskaintzen dizkion pizgarri eskasak: arreta zerbitzu gehienak ez dira ordaintzen —funtsean, egiten dituztenak emakumeak direlako— eta ordaintzen direnean, nahikoa ez den ordainsaria jasotzen dute.

Ugaltze lanaren edo arretaren erantzukizuna emakumeen bizkar uzteak «ugalketaren zerga» jasatera eramaten ditu, lan ordainduetan hasten direnean: lan-jardun bikoitza nozitu behar dute, ez dira errentagarriak nagusientzat beren ama funtzioengatik, joan-etorriak egiteko eta etxetik urrun dauden enpleguak lortzeko arazoak dituzte, eta abar.

Giza Garapenerako buruzko Txostenak (1999) ateratzen duen ondorioa da «gizarteek, arretaren kostua, gizonen eta emakumeen artean eta Estatuaren eta familiaren zein komunitatearen artean, sektore pribatua barne, ekitatiboki banatzeko modua aurkitu behar dutela».

1.3.3. Enplegu merkatuan parte hartzea

Azken hamarkadetan munduko ekonomian izandako aldaketek —globalizazio prozesu azkarrak, teknologian aurrerapenak lortzeko erritmo biziak eta lan sektore informalearen zabaltze azkarrak— emakumeen lan egoeran sakon eragin dute.

Ekonomian parte hartzeari dagokionez, desberdintasunak murriztu egin dira

1980 eta 1997 artean, guztizko lan indarrean emakumeen portzentajea handitu egin zen munduko herrialde guztietan, batez besteko maila %40ra iritsiz. Hazkunderik handiena La-

tinoamerikan eta betidanik parte-hartze baxua izan duten herrialdeetan gertatu zen, Afrika iparraldean eta mendebaldeko Asian, kasu, eta ia ez zen aldatu Afrikako gainerako lekuetan, Europa mendebaldean eta Asia mendebaldean, non 80ko hamarkadaren hasierarako lortua eta gainditua zuten emakumeen presentzia maila hori, 5. koadroan ikus daitekeen moduan.

Mundu osoan ere handitu egin da emakumeen jarduera ekonomikoaren tasa, hegoaldeko Afrikan, Asia erdialdean, ekialdeko European eta Ozeanian izan ezik, eta aldiz, gizonen jarduera ekonomikoa jaitsi egin da leku guztietan, Kariben izan ezik. 6. koadroak azaltzen duen moduan, mugimendu bien ondorio izan da «parte-hartze ekonomikoan generoen arteko etena» (gizonezkoek eta emakumezkoek ekonomian duten parte-hartze tasaren arteko diferentzia) txikiagotzea ia herrialde guztietan, eta bereziki nabarmena

5. koadroa. **Lan indarrean emakumeen proportzioa handitu egin da ia leku guztietan**

	Emakumeen portzentajea lan indarrean	
	1980	1997
Afrika		
Iparraldeko Afrikan	20	26
Saharaz hegoaldeko Afrikan	42	43
Hegoaldeko Afrikan	40	40
Saharaz hegoaldeko gainerako Afrikan	43	43
Latinoamerika eta Karibe		
Hegoaldeko Amerika	27	38
Karibe	38	43
Ertamerika	27	33
Asia		
Asia erdialdea	47	46
Hegoaldeko Asia	31	33
Mendebaldeko Asia	23	27
Ekialdeko Asia	40	43
Hego-ekialdeko Asia	41	43
Ozeania	35	38
Eskualde garatuak		
Mendebaldeko Europa	36	42
Ekialdeko Europa	45	45
Beste eskualde garatu batzuk	39	44

Iturria: Naciones Unidas, 2000.

6. koadroa. **Emakumeen jarduera ekonomikoaren tasak gora egin du herrialde askotan, gizonenak, aldiz, behera egin du**

	1980		1997	
	E	G	E	G
Afrika				
Iparraldeko Afrika	21	79	29	77
Saharaz hegoaldeko Afrika	63	88	62	86
Hegoaldeko Afrika	52	85	47	77
Saharaz hegoaldeko gainerako	64	89	64	87
Latinoamerika eta Karibe				
Hegoaldeko Amerika	29	81	45	78
Karibe	44	75	53	75
Ertamerika	31	85	39	83
Asia				
Asia erdialdea	63	76	59	75
Hegoaldeko Asia	44	88	45	84
Mendebaldeko Asia	28	80	33	78
Ekialdeko Asia	57	83	60	80
Hego-Ekialdeko Asia	59	86	62	84
Ozeania	58	88	57	83
Eskualde Garatuak				
Mendebaldeko Europa	42	75	49	69
Ekialdeko Europa	57	76	53	70
Beste eskualde garatu batzuk	47	78	55	74

Iturria: Naciones Unidas, 2000.

izan da Amerikan, mendebaldeko Europan eta Afrikako iparraldean.

Egia da emakumeek lan ordainduan gehiago parte hartzeak nabarmenagoa egiten duela bere ekarpen ekonomikoa, baina datu hori nahikoa al da emakumeen egoera nabarmenki hobetu dela baieztatzeko? Galdera horri erantzuteko beharrezkoa da emakumeak lanean zein baldintzetan dauden eta zein motako lanak dituzten analizatzea, gizonekin alderatuz.

Lan baldintzetan desberdinkeriek diraute

Ebidentzia enpiriko nabarmena da lan merkatuan lana generoka banatzen dela, eta banaketa horren arabera emakumeei gordetzen zaizkiela ekonomiako sektore eta lanpostu jakin batzuk, ustez emakumezkoenak omen diren trebeta-

sun eta gaitasunekin loturikoak eta emakumezkoek jokatuta-ko ugaltze eta arreta eginkizunetan oinarrituak. Emakume askok ordaintzen duten «ugalketaren zerga»ren ondorioz, lan merkatu prekarioan sartzera eta lan ezegonkorrak edo gaizki ordainduak onartzera behartuta daude, euren familia erantzukizunekin bateragarriak baitira lan egindako orduei, ordutegiaren malgutasunari edo lan lekuari dagokienez. Ikus dezagun nola adierazten den lanaren banaketa «generizatu» hori lan merkatuaren eremu desberdinetan:

a) *Ekonomia sektoreetan presentzia desberdina*

Azken bi hamarkadetan, lan indarrak gehienbat nekazaritzakoa izateari utzi dio eta industriako eta zerbitzuetako bihurtu da, Saharaz hegoaldeko Afrikan eta Asiako zatirik handienean izan ezik, non enplegu proportziorik handiena nekazaritza sektorean dagoen edo zerbitzuetako lanarekin berdintzen den. Honela, beraz, 7. koadroan ikus daitekeen moduan, ekonomiako hainbat sektoretan gizonen eta ema-

7. koadroa. **Herrialde gehienetan, gizonen eta emakumeen enplegu zerbitzuetako sektorean erdibanatzen da**

	Emakumezkoen lan indarra			Gizonezkoen lan indarra		
	Nekazaritza	Industria	Zerbitzuak	Nekazaritza	Industria	Zerbitzuak
Afrika						
Iparraldeko Afrika	30	21	48	17	31	52
Saharaz hegoaldeko Afrika	65	7	28	57	16	27
Latinoamerika eta Karibe						
Hegoaldeko Amerika	5	13	81	12	31	56
Karibe	6	12	80	17	29	53
Ertamerika	8	18	73	40	22	38
Asia						
Erdialdeko Asia	42	14	43	39	24	34
Hegoaldeko Asia	66	18	15	54	13	32
Mendebaldeko Asia	21	16	63	17	33	50
Ekialdeko Asia	14	23	63	11	33	56
Hego-ekialdeko Asia	46	13	41	45	20	35
Eskualde garatuak						
Mendebaldeko Europa	5	16	79	7	38	55
Ekialdeko Europa	16	29	55	17	44	39
Beste eskualde garatu batzuk	3	13	84	6	31	64

Iturria: Naciones Unidas, 2000.

kumeen banaketa nahiko antzekoa da herrialde guztietan (Erdialdeko Amerikan eta ekialdeko Europan izan ezik, non gizonetakoak gailentzen diren nekazaritzan eta industrian, hurrenez hurren). Emakumeak, orokorrean, gizonak baino gutxiago dira industrian eta beti gizonak baino gehiago zerbitzuetan; azken sektore horretan, emakumeak etxeko zerbitzuetan, osasunekoetan, hezkuntzakoetan eta gizartekoetan biltzen dira; gizonak aldiz, sektorean hoberen ordaintzen diren lanetan ari dira oro har, hau da, finantza, higiezin eta merkataritzako zerbitzuetan, eta administrazio publikoan.

b) *Enplegu kategorietan presentzia desberdina*

Herrialde gehienetako emakume eta gizonen artean lan modurik nagusia agindupeko eta soldatapeko lana da, Saharaz hegoaldeko Afrikan eta hegoaldeko Asian ezik (8. koadroa). Hala eta guztiz ere, emakumeak familia-langile laguntzaileak (familia-langile ez ordainduak ere dira mundu

8. koadroa. **Herrialde gehienetako emakume eta gizonen artean lan modurik nagusia agindupeko eta soldatapeko lana da**

	Emakumezkoen lan indarra			Gizonzkoen lan indarra		
	Agindupeko eta soldatapeko langileak	Langile autonomoak	Familiako eta laguntzako langileak	Agindupeko eta soldatapeko langileak	Langile autonomoak	Familiako eta laguntzako langileak
Afrika						
Iparraldeko Afrika	62	10	25	65	26	7
Hegoaldeko Afrika	55	11	22	67	10	14
Saharaz hegoaldeko gainerako Afrika	30	27	35	37	36	18
Latinoamerika eta Karibe						
Hegoaldeko Amerika	58	31	7	61	33	3
Karibe	81	15	2	71	24	2
Ertamerika	63	28	7	61	32	6
Asia						
Hegoaldeko Asia	36	20	40	40	41	11
Mendebaldeko Asia	54	8	34	60	32	7
Ekialdeko Asia	81	10	8	77	21	1
Hego-Ekialdeko Asia	53	20	25	54	35	9
Eskualde garatuak						
Mendebaldeko Europa	85	11	4	79	20	1
Ekialdeko Europa	84	10	6	79	17	4
Beste eskualde garatu batzuk	87	10	3	84	15	1

Iturria: Naciones Unidas, 2000.

9. koadroa. **Proporzionalki emakume enplegatzaile gutxiago daude gizonak baino**

	Emakumezkoen lan indarraren portzentajea, 1997/97		Gizonezkoen lan indarraren portzentajea, 1990/97	
	Enplegatzaileak	Nork bere konturako langileak	Enplegatzaileak	Nork bere konturako langileak
Áfrika				
Tunis	1	13	3	22
Hegoaldeko Amerika	3	32	8	26
Bolivia	4	40	12	23
Kolonbia	3	25	6	32
Ekvador	5	28	10	28
Paraguay	2	23	5	15
Peru	3	42	8	32
Karibe	2	15	4	20
Antigua eta Barbuda	3	13	5	15
Antilla Nederlandarrak	1	3	4	6
Barbados	<1	9	1	15
Granada	2	10	5	12
Jamaika	2	29	3	40
Dominikar Errepublika	1	29	5	43
Saint Kitts eta Nevis	3	11	5	12
San Vicente eta Granadinak	3	15	7	20
Trinidad eta Tobago	2	14	5	20
Ertamerika	3	25	7	27
Belize	4	17	9	25
Costa Rica	4	18	9	20
Salvador	3	38	7	24
Honduras	2	39	6	36
Mexiko	2	22	6	26
Panama	2	17	4	33
Asia	2	11	4	30
Bangladesh	<1	8	<1	43
Israel	5	4	10	9
Pakistan	<1	13	1	46
Singapur	2	3	8	9
Sri Lanka	1	15	3	31
Tailandia	1	20	4	40
Mendebaldeko Europa	3	10	8	16
Alemania	4	3	6	7
Austria	3	5	7	5
Espainia	3	12	7	16
Grezia	3	16	10	32
Irlanda	3	5	7	20
Islandia	3	7	9	14
Portugal	4	22	8	20
Ekialdeko Europa	2	6	5	11
Eslovakia	1	2	3	5
Eslovenia	2	6	4	12
Estonia	1	1	4	4
Hungaria	3	5	6	10
Letonia	2	9	5	10
Txekiar Errepublika	4	5	7	10
Errumania	1	16	2	24
Beste eskualde garatu batzuk	3	8	6	12
Australia	3	8	5	12
Japon	1	7	4	10
Zeelanda Berria	4	8	10	15

Iturria: Naciones Unidas, 2000.

guztian, Erdialdeko Amerikan eta Kariben izan, deiturikoak) gizonak baina askoz ere proportzio handiagoan ezik, aldiz langile autonomo direnen proportzioa gizonena baino askoz ere txikiagoa da, salbuespen gutxirekin.

Lan autonomoa (enplegatzaileena eta nor bere konturako langileena) azken hamarkadetan pisu garrantzitsua hartzen joan da guztizko enpleguaren barruan, 80ko eta 90eko hamarkadan garapen-bidean dauden ia herrialde guztietan egitura egokitzeko ezarri ziren politiken ondorioz ekonomiaren sektore formalean soldatapeko lana gutxitu izangatik. Langileak iraunkorki enplegatzen dituztenen multzoan, gizonen proportzioak emakumeena ia hirukoiztu egiten du; norberaren konturakoen taldean emakumeen proportzioa nabarmena da Latinoamerikan eta Kariben: emakumezkoen lan indarraren %15 eta %32 bitartekoa (9. koadroa).

c) *Enplegu mota prekarioak*

Duela bi hamarkaz geroztik, lan merkatuetan egiturapen arinagoko enplegu mota malguagoen aldeko joera izan da (denbora partzialeko lana, etxeko lana, aldi baterako lana, eta abar), eta emakume askorentzat ordaindutako lanerako aukerak zabaldu baditu ere, enplegu horien kalitatea murriztu egin dute.

Munduko herrialde guztietan emakumeak dira denbora partzialean lan egiten dutenen gehiengoa, mendebaldeko Europako hamar bat herrialdetan %80 edo gehiago izatera iristen direlarik (10. koadroa). Azken bi hamarkadetan, lanaldi partzialeko lanen igoera bat ikusi da hala gizonengan nola emakumeengan alderdi horri buruz datuak ematen dituzten herrialde guztietan (herrialde horietako gehienak herrialde garatuak dira), baina emakumeak izan dira lan modalitate hori gehien erabili dutenak, ordaindutako lana erreproduzio eta arreta lanarekin bateratzeko ematen dien aukera dela eta. Hala ere argi dago, lan mota horiek maila profesional baxuarekin, soldata txikiagoarekin eta igotzeko aukera gutxiagorekin eta ezarekin ere lotzen direla.

Ekonomiaren ez egituratutako sektoreak (sektore informala ere deitzen dena) emakumezkoen lan indar gehiena hartzen du garapen-bidean dauden herrialdeetan eta %90 baino altuagoak diren mailetara iristen da Afrika, India eta Indonesiako hainbat herrialdetan, 11. koadroan ikus daitekeen moduan. Informazioa bilduta dagoen Latinoamerikako hamar herrialdeetatik bostetan, emakumezkoen lan indarraren bi herenak sektore honetan erabiltzen dira, eskala txikiko

10. koadroa. Lanaldi partzialeko enplegua

Herrialdea eta gunea	Lanaldi partzialean enplegatutako biztanleria helduaren portzentajea				Lanaldi partzialeko enpleguan emakumeek duten portzentajea (%)	
	1990/1993		1996/1998		1990/1993	1996/1998
	E	G	E	G		
Karibe						
Bahamak	14	11	15	11	53	52
Barbados	9	6	6	4	54	59
Jamaika	12	7	10	5	59	59
Surinam	32	8	24	8	68	61
Trinidad eta Tobago	21	18	17	14	39	41
Ertamerika						
Belize	33	16	38	21	47	42
Mexiko	31 ^a	10 ^a	30	9	61 ^a	64
Asia						
Koreako Errepublika	6	3	8	3	59	62
Turkia	20	5	13	3	63	64
Mendebaldeko Europa						
Alemania	25	2	30	4	89	86
Austria	22 ^a	3 ^a	21	3	84 ^a	86
Belgika	30	5	32	5	80	83
Danimarka	30	10	24	11	72	64
Finlandia	10	5	11	6	68	62
Frantzia	22	4	25	6	80	79
Grezia	12	4	14	5	61	63
Irlanda	20	4	27	7	72	73
Islandia	38	7	37	8	82	77
Italia	18	4	22	5	71	71
Luxenburgo	19	2	24	2	83	82
Norvegia	39	7	37	8	83	80
Herbehereak	53	13	55	11	70	78
Portugal	12	3	17	5	74	73
Erresuma Batua	40	5	41	8	85	80
Suedia	25	5	23	7	81	76
Suitza	46	9	48	8	80	83
Ekialdeko Europa						
Bulgaria	2	2	1	1	48	42
Eslovakia	5	2	4	1	73	74
Eslovenia	4	3	10	7	53	57
Hungaria	4	2	8	3	66	71
Letonia	12 ^a	12 ^a	14	12	48 ^a	52
Polonia	13	9	14	8	54	57
Txekiar Errepublika	10	3	10	3	74	74
Errumania	17 ^b	10 ^b	18	12	60 ^b	55
Beste eskualde garatu batzuk						
Australia	36	11	38	14	69	67
Kanada	27	9	29	11	70	70
Amerikako Estatu Batuak	20	8	19	8	68	70
Japon	33	9	36	12	71	68

Oharra: a. 1995eko datuak; b. 1994ko datuak.

Iturria: Naciones Unidas, 2000.

11. koadroa. **Egituratu gabe dagoen sektoreak emakumeen lan indarraren proportzio handiagoa hartzen du gizonezkoena baino**

	Egituratu gabeko sektorean erabilitako nekazaritzakoa ez den lan indarra, 1991/1997		Egituratu gabeko sektorean erabilitako nekazaritzakoa ez den emakumezkoen lan indarra, 1991/1997
	Emakumeak	Gizonak	
Áfrika			
Benin	97	83	62
Txad	97	59	53
Ginea	84	61	37
Kenya	83	59	60
Mali	96	91	59
Hegoafrika	30	14	61
Tunis	39	52	18
Latinoamerika			
Bolivia	74	55	51
Brasil	67	55	47
Txile	44	31	46
Kolonbia	44	42	50
Costa Rica	48	46	40
Salvador	69	47	58
Honduras	65	51	56
Mexiko	55	44	44
Panama	41	35	44
Venezuela	47	47	38
Asia			
Filipinak	64	66	46
India	91	70	23
Indonesia	88	69	43
Tailandia	54	49	47

Iturria: Naciones Unidas, 2000.

produkzio unitateak («etxeko enpresak» sozietate gisa erregistratuak ez daudenak) osatzea ezaugarri duenean, non norberaren kontura lan egiten duten pertsonak batzutan langile kopuru mugatu bat kontratatzen duten edo familia lan lagungarria erabiltzen duten.

Emakumeek nahikoa arrazoi dauzkate beren etxea ekoizpen lekua bihurtzeko, sarrerak lortzea eta bere etxeko erantzukizunak bateratzeaz gain beren mugikortasuna edo beren familiakoak ez diren gizonekin duten tratua mugatzen duten jarraibideei men egin behar dietelako. Hala eta guztiz ere,

emakumezkoen negozioiak txikiak izan ohi dira («mikroenpresak»), etekin gutxien ematen dituzten sektoreetan jartzen dute arreta —batez ere merkataritzan eta zerbitzuetan, baina bai eta artisautza eta elikagaiak ekoizteko jardueretan ere—, lehiakortasun handiaren mende daude eta hazteko aukera gutxi dituzte.

Lehen aipatu ditugun arrazoi berdinengatik, emakumeak dira etxean lan egiten duten langileen artean gehiengoa, %70eko portzentajeak gainditzen dituzte hainbat herrialdetan, Benin, Brasil, Txile, Peru, Tailandia eta Tunez, kasu.

d) *Emakumezkoen langabezi tasak handiagoak dira*

1997 eta 1990 artean, emakumeen eta gizonen langabezi tasa handitu egin zen datuak zeuden zortzi herrialdeetatik seitan (12. koadroa). Nahiz eta aldiaren amaieran emakumezkoen langabezi tasa gizonezkoena baino altuagoa zen ia herrialde guztietan, genero zuloa langabeziari dagokionez Afrikako iparraldean eta Europako ekialdean murriztu egin zen gizonezkoen langabezia emakumezkoena baino gehiago handitu zelako. Kariben ere distantzia murriztu egin zen, baina bi sexuentzako langabezi tasak erori egin ziren.

12. koadroa. **Emakumeen langabezi tasak gizonenak baino altuagoak izaten jarraitzen dute, baina diferentzia murriztu egin da zenbait herrialdetan**

	1980		1997	
	E	G	E	G
Afrika				
Iparraldeko Afrika	19	10	24	17
Latinoamerika eta Karibe				
Hegoaldeko Amerika	10	8	12	8
Karibe	20	13	17	12
Ertamerika	9	7	11	8
Asia	6	4	6	4
Eskualde garatuak				
Mendebaldeko Europa	8	5	10	7
Ekialdeko Europa	10	7	12	11
Beste eskualde garatu batzuk	6	6	6	7

Iturria: Naciones Unidas, 2000.

Lan segregazioa

LANEK berriki lan munduan diskriminazioa analizatzeko egin duen txostenean adierazten du «gizonek kargu nagusiak, postu finkoak eta hoberen ordainduak daudenak edukitzeko aukera gehiago dituztela. Emakumeek aldiz, postu periferikoak eduki ohi dituzte, ezegonkorrak eta ospe gutxien dutenak. Emakumeak zenbait lan motetatik kanpo edo segregatuak gelditzen dira gizonezkoen onurarako diren kontratazio praktikak edo lanean igotzeko edo hobetzeko oztopoak direla eta» (LANE, 2003).

LANEK 41 herrialdeetan egindako ikerketa batek, herrialde bakoitzean 175 lanbide biltzen zituenak, ondorengo azaltzen du:


- a) ikertutako lanbideen ia erdian sexu bat gailentzen dela;
- b) langileen erdia baino gehiago sexu bat gailentzen den lanbideetan jarduten da;
- c) emakumeek gizonek baino lanbide gutxiagotan lan egiten dute: nekazaritzakoak ez diren lanbideetan gizonezkoak gailentzen diren lanbideak emakumezkoak gailentzen direnak baina zazpi aldiz gehiago dira (Anker, 1998).

Sexuen lan segregazioa kaltegarriagoa izan da emakumeentzat gizonentzat baino: emakumezkoen lanbideak (emakumeak lan indarraren %80 baino gehiago diren lanbideak) zerbitzuetara zuzenduak daude edo otzantasuna edo etxean lan egitea bezalako emakumezkoen estereotipoekin erlazionatuak eta okerrago ordainduak daude, teknifikazio maila eta erosteko ahalmen txikiagoa eskatzen dute, eta igotzeko aukera gutxiago dituzte.






Lan segregazioa lan merkatuaren ezaugarri iraunkor eta etengabea izan da, eta LANEK emakumeen aurkako diskriminazioaren frogatzat hartzen du, eta Emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak kentzeko Hitzarmenak (165 herrialdek berretsitakoa) berariaz zigortzen du. Generoko lan segregazioak bi eredu desberdin hartzen ditu:

- «segregazio horizontala»: gizonek eta emakumeek enpleguaren egiturako lanbide desberdinetan lan egiten dute. Asian eta Pazifikokoan dago segregazio mota horren mailarik baxuena eta Ekialde Ertainean eta Afrikako iparraldean altuena. Azken bi hamarkadetan, segregazio horizontalaren mailak behera egin du ia herrialde guztietan, Txinan, Hong Kongen eta mendebaldeko Europan izan ezik, non ekonomiaren erreformak eragin

4. grafikoa. **Bigarren hezkuntzako eskolatzeko maila, emakumeen eta gizonen portzentajea**



Iturria: UNIFEM, 2002.



duen emakumeak esportaziora zuzendutako industria berrietan sartzea.

- «segregazio bertikala»: gizonak eta emakumeak postu desberdinak dituzte lanbide berean. Normalean, gizonak hobe ordainduta dauden, erabakitzeko botere gehiago eta gizartearen leku hobeak duten postuak izaten dituzte, bai eta emakumeak gailentzen diren lanbideetan ere. Nahiz eta argudioa izan ohi den emakumeen eta gizonen hezkuntza maila desberdina, datuek erakusten dute bigarren hezkuntzako generoko zuloa nabarmen txikitu dela mundu guztian (ikus 4. grafikoa), nahiz eta horrek ez duen autoritatea eta erabakitzeko erantzukizuna eskatzen duten postuetan banaketa ekitatiboagoa ekarri.

Emakumeak ordaintzen duten «Erreproduzio zerga», emakumezkoek aginte lanak egin ezinaren ustearen genero aurreiritzia, enpresen barruan profesionalak sustapenerako ezinbestekoak diren sare formal eta informaletatik kanpo uztea dira emakumeei tradizionalki gizonak izan dituzten kargu profesional eta teknikoak, administraziokoak, finantza kudeaketakoak eta goi mailako zuzendaritzakoak edukitzea zailtzen dien «beirazko sabaia» puskatzea eragozten dieten faktoreetariko batzuk.

Dauden datuek aditzera ematen dute segregazio horizontala gutxitzean segregazio bertikala gehitu ohi dela, bai eta emakumeentzat lanbide asko sortzen direnean ere, batez ere esportaziora zuzendutako lan eskuko manufaktura intentsiboetan eta informazio eta komunikazio teknologia berrien eremuan, horrek ez baitu zergatik lan segregazioa murriztea eragin behar.

Ordainketetan diskriminazioa

Genero analisiak aditzera ematen du oro har onartua dagoen ideiak, emakumeen sarrerak etxean sarrera subsidiarioak edo «laguntzakoak» direla dioenak, laguntzen duela emakumeak lanerako bigarren mailako indartzat hartzea eta justifikatzen duela egungo gizarte guztietan gizonen eta emakumeen artean dagoen soldata desberdinkeria: emakumeak gizonen soldaten %53 eta %97 bitarte kobratzen dute eta batez bestekoa %78 da, 13. koadroan ikus daitekeen moduan.

Emakumeak enplegu informalean biltzea, gutxi kalifikaturiko lanbideetan emakumezkoen gehiegizko ordezkaritza eta sindikatuen jardueren artean negoziaketak egiteko ahalmenik ez izatea dira soldatetan hain genero zulo garrantzitsua egotearen arrazoietariko batzuk. Hala eta guztiz ere,

13. koadroa. **Emakumeen soldatak gizonen soldaten portzentaje gisa, 1997 inguruan**

	Industria eta zerbitzuak	Manufaktura
Iparraldeko Afrika eta Saharaz		
hegoaldeko Afrika		
Egipto	97	74
Eritrea	58	e.e.
Swazilandia	e.e.	71
Erdialdeko eta mendebaldeko Asia		
Azerbaijan	53	e.e.
Txipre	62	60
Jordania	87	62
Kazakhstan	72	e.e.
Kirgistan	72	e.e.
Turkia	n,d	99
Uzbekistan	81	e.e.
Asia eta Pazifikoa		
Koreako Errepublika	62	56
Malasia	e.e.	58
Myanmar	e.e.	96
Singapur	76	60
Sri Lanka	90	85
Tailandia	72	68
Latinoamerika eta Karibe		
Argentina	87	e.e.
Bolivia	75	e.e.
Brasil	76	54
Kolonbia	95	e.e.
Costa Rica	85	86
Txile	73	e.e.
Ekuador	88	e.e.
Salvador	89	95
Guatemala	85	e.e.
Honduras	78	e.e.
Mexiko	78	71
Nikaragua	67	e.e.
Panama	83	e.e.
Paraguay	74	77
Dominikar errepublika	88	e.e.
Uruguay	83	e.e.
Venezuela	79	e.e.

.../...

.../...


	Industria eta zerbitzuak	Manufaktura
Ekialdeko Europa		
Bulgaria	69	e.e.
Eslovakia	78	e.e.
Eslovenia	86	e.e.
Estonia	73	e.e.
Hungaria	77	70
Letonia	80	89
Lituania	71	81
Polonia	79	e.e.
Txekiar Errepublika	81	e.e.
Errumania	76	e.e.
Errusia	70	e.e.
Ukraina	72	e.e.
Mendebaldeko Europa eta beste herrialde garatu batzuk		
Alemania	e.e.	74
Australia	90	85
Austria	e.e.	66
Belgika	80	80
Danimarka	e.e.	85
Finlandia	e.e.	79
Frantzia	81	79
Grezia	e.e.	81
Irlanda	e.e.	75
Islandia	71	e.e.
Luxenburgo	70	63
Norvegia	e.e.	87
Zeelanda Berria	81	78
Herbehereak	77	e.e.
Portugal	67	69
Erresuma Batua	80	72
Suedia	e.e.	90
Suitza	67	69

Oharra: e.e. = datuak ez daude erabilgarri.

Iturria: UNIFEM, 2000.

dauden datu gutxiek aditzera ematen dute zulo hori txikitu egin dela industria eta zerbitzu sektorean azken hamarkadan (5. grafikoa).

5. grafikoa. **Nekazaritza ez den sektorean 1999-2000 urteen artean gizonen eta emakumeen arteko batez besteko orduko sarreraren erlazioa, aukeratutako Latinoamerikako herrialdeetan**



Iturria: OIT, 2001.

1.3.4. Ekoizpen baliabideak eskuratzeko aukera desberdina

Emakumeek egiten duten lanaren herenaren trukako ordainsaria bakarrik jasotzek bi ondorio nagusi ditu: lehenengoa haien sarrera mailei dagokiena da, munduko emakumeen per capita BPG errealaren batez bestekoa 1997an 4.523 dolarekoa zen urtean, eta gizonena 8.103 dolaretakoa (Giza Garapenerako buruzko Txostena, 1999); eta bigarrena, beste ekoizpen baliabide batzuk edukitzeko aukerei dagokiena: emakumeek egiten duten lanaren gehiengoetatik diru ordainsaririk jasotzen ez dutenez «existitzen ez diren entitate» bihurtzen dira ekonomia transakzioetan, sarrera erregularrik, soldata nominarik edo bankuetako maileguetarako berme gisa onar daitezkeen ondasunik ez dutelako.

Emakumeek eta gizonak ez dituzte aukera berdinak lanaren ordaintzetan, ez eta ekoizpen baliabideetan eta aukera ekonomikoetan oro har ere. Gizonak dute lurrak, maileguak, haziak, teknologia eta azpiegiturak bezalako aktiboen eta sargaien kontrola. Nahiz eta emakumeak izan garapen bidean dauden herrialde askotan elikagarrien ekoizpenaz arduratzen direnak, ez dute lantzen dituzten lurren gaineko kontrol legalik, ez eta etxeko burua emakumea den kasuetan ere. Gainera, garapen proiektuek tradizionalki beraiena zen lurren eskubidea kalte-

tu dute lurren jabetza gizonei emanaz, Afrikan gertatu den moduan (Giza Garapenerako buruzko Txostena, 1995).

Garapen-bidean dauden herrialde gehienetan emakumeak dira familiaren kontsumorako balioko duten baratzeak eta etxe-ko animaliak zaintzearen arduradunak, bai eta beren etxeak urez eta egurrez hornitzearenak ere. Hala eta guztiz ere, joan den mendeko azken hamarkadetan egindako nekazal erreformatatik kanpo utzi dira emakumeak (El Salvadorren, Hondurasen, Mexikon eta Nikaraguan emakumeak erreforma horien onuradunen artean %4 eta %25 bakarrik dira, jabetza tituluak familia buruei eman zitzaizkielako eta pentsatu zelako horiek gizonak zirela) eta jabetzetara heltzerakoan eta lurrak alokatzerakoan bereizi egiten dira: Kenyan emakume bat lurren jabe izan daiteke senarra edo seme bat bizirik badauka; Burkina Fason, 1980ko hamarkada bitarte, alokairu berri guztiak gizonei eman zitzaizkien, nahiz eta emakumeak ziren familiaren sostengurako elikagai guztiak lantzearen arduradunak.

Nekazaritza trebakuntzako zerbitzuak ez daude landako emakumeei zuzenduak, ez eta emakumeak nekazaritzako ekoizleen artean gehiengoa diren herrialdeetan edo sexu bien arteko komunikazioan kultura mugak dauden herrialdeetan ere. PNUDek Saharaz hegoaldeko Afrikararentzat emandako datuen arabera, nekazaritzako trebakuntza ikastaroetan parte hartzen dutenen batez besteko %85 gizonak dira, aldiz, nekazaritza lanaren %60-80 emakumeek egiten dute. Gainera, programa horien arduradunen %87 gizonak dira (Giza Garapenerako buruzko Txostena, 1995).

Emakumeek kredituak lortzeko ere mugaketak dituzte. Banku gehienek ezartzen dute mailegatzaileek soldata bat irabazi edo maileguaren berme gisa balio duen jabetzaren bat eduki behar dutela. Maileguetarako egin beharreko izapide konplexuek, emakumeek duten hezkuntza mugatuak eta hurbilen dagoen bankuaren urruntasunak oraindik gehiago zailtzen dute horietara iristea. Horren guztiaren ondorioz, emakumeek kreditu erakunde formaletako mailegatzaileen oso proportzio txikia osatzen dute. 1990ean banku multilateralek garapen-bidean zeuden herrialdeen landa maileguari 5.800 milioi dolar eman zitzaizkien eta zenbateko horretatik %5 bakarrik iritsi zitzaizkien emakumezko nekazariei.

1.4. EGITURA EGOKITZAPEN POLITIKEN ETA GLOBALIZAZIO NEOLIBERALAREN ERAGINA

Emakumeak ekonomia krisiaren erdian egon dira 1980ko hamarkada geroztik eta egitura egokitzapeneko programen

eragin nagusia jasan dute. Nahiz eta herrialdeek ekonomia erreforma modu desberdinetan erabili duten, ebidentzia empiriko ugari dago makroekonomia egonkortze eta egokitzapen sistemek emakumeei gizonen baino karga gehiago ezarri dizkietena. Biek parte hartzen badute ere programa horietan —eta biei eragiten badiete ere programa horiek—, hori guztia gizon eta emakumeentzat modu desberdinean gertatzen da paper desberdinak, behar desberdinak dituztelako eta mugaketa desberdinei egin behar dietelako aurre ekonomia politiken aldaketei erantzuten dietenean.

Emakumeek dituzten paper desberdinek eta ekonomia aldaketei aurre egiteko dituzten baliabide urriek zehaztu dute egokitzapenak beren bizi eta lanean eduki duen eragina:

- Ordaindutako ekoizle eta langile gisa, emakumeei negatiboki eragin diete eskaeraren kontrolaren politikek —eta horiek sortzen edo larritzen duten ekonomia atzeraldiak— egonkortasun programen ezaugarri direnak. Emakumeek beren sektore publikoan lan egiteko aukerak murriztu direla ikusi dute sektore informaleko ordaindutako eta esportaziorako manufaktoretako lanean hasteko beharragatik, non lana gaizki ordainduta dagoen eta laneko baldintzak oso ezegonkorak diren.
- Ama eta etxeko kudeatzaile direnez, emakumeei asko eragin diete gastu publikoa murrizteko politikek, dirulaguntzak kentzeak eta prezioak liberalizatzeak. Horiek mugitu dute etxeak zerbitzu kolektiboetara (hezkuntza, osasuna) eta oinarrizko ondasunetara (elikagaiak, etxebizitza, garraioa) heltzea, eta emakumeak behartu dituzte etxeko lanari denbora gehiago eskaintzera gabezia horiek osatzeko.
- Estatuak ondasun eta zerbitzurik ematen ez duenez, komunitateko kudeatzaile gisa, emakumeek ekimen kolektiboak egiten dituzte (herri-jantokiak, kontsumitzaile kooperatibak, auzoko hartzaindegiak, etab), krisiaren eta egokitzapenaren ondorioei aurre egiteko baliabide urrietako etxeetan, auzoan edo komunitatean doako lana eginez.

Oro har, ekonomia erreformako politikek pobretutako biztanleriaren bizi baldintzak okertzen dituzte, eragin nabaria baitute etxe barruan baliabideak banatzerakoan: kontsumoaren gutxitzeak, eskola uzten duten haurren kopurua gehitzeak eta osasun zerbitzuetara heltzeko aukerarik ez izateak gehiago eragin die neska eta emakumeei. Era berean, etxeko indarkeriak gehiago jasatea, lanean haurren esplotazioa gehitzea eta gizonezkoek familiako erantzukizunak bertan behera uz-

tea, etxean giza erlazioen okertzeari eta gizarte sektore askotan pobretasuna handitu izanarekin loturiko fenomenoak dira.

Zenbait ekonomista feministak egokitzapen politiken urritasunak analizatu ditu genero ikuspegi batetatik. Diane Elsonen ikerlanek (1987, 1995), besteak beste, agerian utzi dute hala egokitzapen politiken «gizonenganako joera» nola horien eraginkortasun eza, ez baitituzte kontuan hartzen genero erlazioak, emakumezkoen lan indarraren mugikortasun mugatuak eta emakumeek jasaten duten «erreprodukzio zergak» ekoizpen baliabideen banaketa eraginkorrean sortzen dituzten aldaketak. Deer eta Leonek (2000) planteatzen dute «Hirugarren Munduko soberakinak herrialde kapitalista aurreratuetera eta langileak kapitalera eramateaz gain, egitura egokitzapen politikek eskulanaren erreprodukzio kostuan aldateta bat eragin zutela, Estatuetatik etxeetara pasatu zena, eta etxe barruan, gizonetatik emakumeetara».

Duela bi hamarkadetatik munduan gertatzen ari den globalizazio neoliberalak eragina izan du emakumeen enplegu aukeretan eta lan munduan genero desberdinkeriak irautean.

Alde batetik, Hegoaldeko herrialde batzuetako emakumeen industria sektorean lan egiteko aukerak handitu direla ikusi dute. Hori gertatu da multinazionalak beren ekoizpen intentsiboa garapen-bidean dauden herrialdeetara eraman dutelako, gehienbat emakumeak kontratatu dituztelako (lan indarraren %70 eta %90 bitarte) beren ehungintza, oinetako, jostailu, elektronikak eta bestelako industrietan lan egiteko, emakume gisa gizarteratzerakoan ikasi dituzten lanerako abilezia bereziengatik, soldata txikiagoa onartzeagatik eta gatazka gutxiago sortzeagatik.

Esportazioarentzat lan egiten duten industriek («laka» ere deiturikoak) lan baldintza oso gogorak eskaintzen dituzte: soldata baxuak eta lan izugarria tailer osasungaitzetan edo arrisku toxikoekin, sindikatu eskubiderik gabe,... Hala eta guztiz ere, badaude frogak emakume askok lan horiek eskura dituen beste batzuk baino nahiago dituenarena (nekezartizako edo etxeko zerbitzuko lana), nahiz sarrera gehiago eskaintzen dizkietelako nahiz etxeko babesetik irteteko eta beren gizarte erlazioak zabaltzeko aukera ematen dietelako.

Bestalde, teknologia berriekin eta finantza sektorearen liberalizazioarekin erlasionaturiko zerbitzu sektoreetan lan egiteko aukerak ere handitu dira. Informazioaren eta Komunikazioaren Tekniken (IKT) lan mota berriak sortu dituzte (informatika programatzaile, sistema analista, informatika sareen kudeatzailea, etab.) eta emakumeek horietariko askotara heltzeko aukera izan dute, teknologia berriek trebatze-

ko eta produktuak munduko merkatu birtualean merkataltzeko eskaintzen duten aukera aprobetxatzeaz gain.

Nahiz eta IKT emakumezkoen enplegu eremu berria den eta Hegoafrika, India, Malasia eta Brasil bezalako herrialdeetan zenbait emakumek lan indarraren goiko mailalara iristea lortu duten, genero zuloak mundu digitalean jarraitzen du. Emakumeak azken erabiltzailerera zuzendutako edo informazioa sortu eta datuak prozesatzearekin —emakumeak tradizionalki bete duten idazkari karguaren goi teknologiko baliokidearekin— erlazionaturiko postuetan biltzeko joera dute, kudeaketa postuetan ez dira agertzen aldiz, ez eta sareen mantenu eta diseinuan, sistema eragileenean edo informatika programak sortzean ere (14. koadroa). Gainera, zuloa erabiltzaile direnean ere mantentzen da, emakumezkoak gutxienekoa direlako Internet erabiltzen eta ingeniariak eta informatika teknologiek erlazionaturiko zientziak ikasten dituztenen artean.

14. koadroa. **Emakumeak informatika programatzaile eta sistema analista lanbide berrietan, 1990-2000**

Herraldea	Gertueneko urtea	Lanbide «berrietako» emakumeen portzentajea (gertueneko urtea)	Ordezkapen proportzioa (gertueneko urtea)	Lanbide «berrietako» emakumeen portzentajearen aldaketa, 1990-2000b
Alemania	2000	18,0	0,42	—
Beralus	1999	50,9	1,00	—
Koreako Errepublika	2000	23,4	0,65	—
Amerikako Estatu Batuak	2000	28,5	0,60	-5,3
Frantzia	1999	19,6	0,43	-2,3
Hong Kong (Txina)	2001	23,8	0,54	1,9
Polonia	2001	25,0	0,55	-44,1
Tailandia	2000	47,7	0,98	—
Batezbestekoa (haztatu gabea)		29,6	0,65	-12,5

Oharra: a. Ordezkapen proportzioa da lanbide batean emakumeen portzentajearen eta nekazaritzakoa ez den lan indar guztiaren emakumeen portzentajearen arteko zatiketaren emaitza. Adierazten du zein puntutaraino dagoen feminizatua lanbide bat (bere balioa 1,0 baino handiagoa denean) o edo ez dagoen feminizatua (bere balioa 1,0 baino txikiagoa denean) herrialde batean ohikoa denean. b. Aldaketa portzentajea hamar urtetako epealdi batetara egokitzen da (adibidez, aldaketa bost urtetako epealdietan neurtzen bada, balioa bikoiztu egingo litzateke, 20 urtetako epealdia izango balitz, erdira zatituko litzateke). Aldaketa datuak daude Frantziarentzat 1990 eta 1999 artean, Amerikako Estatu Batuentzat 1991 eta 2000 artean, Poloniarentzat 1994 eta 2000 artean eta Hong Kongentzat 1991 eta 2001 artean.

— = ez dago daturik.

Iturria: OIT, 2003.

1.5. POBREZIAREN EMAKUME AURPEGIA

Nahiz eta ez dagoen ebidentzia enpiriko nahikorik, munduan emakumeek bizitzen duten egoerari buruzko txostenek adostasun nabaria azaltzen dute egunean bi dolar baino gutxiagorekin bizirauten duten 2.800 pertsonen artean, bai eta egunean dolar bat baino gutxiago duten 1.200 pertsonen artean ere, emakumeak gehiago direla esatean (PNUD 2002).

«Pobretasuna emakumetzea» kontzeptua errealitate hori islatzen saiatzen da baina bere definizioa ez da adiera bakarrekoa, ondorengo ideia bat edo gehiagori egiten dio erreferentzia:

- a) Emakumeen kopurua handiagoa izatea gizonena baino pertsona pobreen artean (15. koadroa).
- b) Biztanleria pobrearen arteko emakumeen proportzioa handitu egin da: pobreziaren emakumetzea prozesu bat da —ez gauzen egoera soila egoera historiko berezi batean— eta badago pobreen artean emakumeen ordezkapen neurrigabea pixkanaka handitzeko nola-baiteko joera.
- c) Pobreziaren arrazoiaren «generoko joera»: emakumeek eta gizonak paper eta jarrera desberdinak dituzte gizartean, eta pobreziak biengan duen eragin desberdina gertakari horren halabeharrezko ondorioa da.
- d) Emakumeak pobretasunaren eraginpean gehien jartzten dira, generoko erlazioen sisteman gizonen mendeko egoeratik pairatzen dituzten ziurtasun gabezia, kolokatasun eta ahultasun maila altuagoak direla eta.

Amartya Senek (1990) generoen arteko desberdinkeriak azaltzeko erabilitako «haustura jarrera» erreminta oso baliotsua da emakumeen pobrezia arriskua ulertzeko: etxeke unitate batetako kideak elkartuak mantentzen dituzten erlazioak puskatzen direnean, kide bakoitzaren jarrerak nabarmen alda daitezke; orokorrean, familian edo bikotean haustura bat gertatzeak emakumeak lan merkaturako gaitasun, esperientzia eta lotura gutxiagorekin uzten ditu (haurrak zaintzen eta etxean lan egiten espezializatuak daudelako) eta ondorioz gizonak baino dirua irabazteko ahalmen gutxiagorekin; denbora eta autonomiari dagokionez ere mugatuagoak daude, espero delako seme-alaben kargu egiten jarraituko dutela.

15. koadroa. **Pobreziaren proportzioa generoaren arabera aukeratutako herrialdeetan, 1980ko hamarkadan**

Herrialdea	Boskunik* pobrenean ¹ 100 gizoneko emakume kopurua
Saharaz hegoaldeko Afrika	
Botswana (1993)	192
Boli Kosta (1986-88)	123
Etiopia (1989-90)	127
Ghana (landakoa) (1987-88)	140
Ghana (hirikoa) (1987-88)	141
Madagaskar (1992)	109
Niger (1989-90)	113
Rwanda (1985-86)	132
Asia eta Pazifikoa	
Bangladesh (1992-93)	130
Filipinak (Bukidnon) (1984-85)	93
Indonesia (1988-89)	124
Nepal (1991-92)	93
Pakistan(1986-89)	106
Latinoamerika eta Karibe	
Guatemala (1988)	95
Honduras (1988-89)	105
	Pobrezi mailaren azpiko₁ gizon bakoitzeko₂ emakume kopurua
Mendebaldeko Europa eta beste herrialde garatu batzuk	
Alemania (R.F.) (1984)	1,29
Australia (1985-86)	1,38
Kanada (1987)	1,28
Amerikako Estatu Batuak (1985)	1,41
Italia (1986)	1,02
Herbehereak (1987)	1,02
Erresuma Batua (1986)	1,19
Suedia (1987)	0,90

Oharrak: ¹ = helduetan oinarriturik. ₁ = herrialde horren batezbesteko errentaren %50 (familiaren tamainari egokituta) baino errenta erabilgarri (zergak eta transferentziak ordaindu ondoren gelditzen dena) txikiagoa duen etxe batean bizitzea bezala definitzen da. ₂ = 18 eta 57 urte bitartekoak.

* Itzultzailearen oharra: ez da baliokide zuzenik aurkitu eta gaur egun erabiltzen ez diren hitz horiek adiera horretarako berreskuratu dira.

Iturria: UNIFEM, 2000.

Emakumeek pobretasun prozesuetarako duten ahultasunik handiena ordaindu gabeko lanei eskaintzen dieten denbora ugaria, eta gizonekin alderatuz lan merkatuan sartzera-

koan dituzten desabantaila baldintzak, elikadura, hezkuntza eta osasun arreta urritasunak, eta ekonomia, gizarte eta kultura aktibo gutxiago izatea dira. Gainera, garapen bidean dauden herrialde gehienetan 1980 geroztik aplikatu dituzten egonkortasun eta egitura egokitzapen politikek baliabide eskasetako emakumezkoen sektoreen pobretzeko arriskua areagotu dute.

Bina Agarwalek (1988) planteatzen du dauden pobrezia indizeak berrikustea, gehien erabili ohi den metodoak —familia pobreak irizpide zehatz batzuen bidez identifikatzea gero kopuru osoa kalkulatzeko, suposatuz kide guztiak pobretasun maila bera dutela— informazio gutxi ematen duelako gizon eta emakumeei dagokien pobretasunari buruz, aldi berean pobreen kopuru osoaren datuak okertzen dituelarik. Familian baliabideen banaketetako desberdintasunen ondorioz, pobretasunaren marraren gainetik dauden sarrera edo kontsumo mailak dituzten familietan emakume pobreak daude; edo alderantziz, marra horren azpitik dauden familietan pobreak ez diren gizonak daude. Horren guztiaren ondorioz, informazio eta analisi unitate nagusi gisa etxea hartzen den bitartean, estatistiketarako datuak biltzeko sistema nagusiek emakume eta gizonen arteko ekonomia desberdintasunak gordetzen dituzte, eta herrialde askotan pobretasunaren emakumetze maila neurtzea zailtzen dute.

1.6. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria arazo unibertsala da, kultura, geografia, arraza, etnia, klase eta erlijio mugak gainditzen dituena. Haurtzarotik zahartzarora, emakumeen bizitzak indarkeria mehatxuek iluntzen dituzte —eta, milioika kasutan, gertakariak—.

Emakumeen aurkako indarkeria oztopo bat da emakumeek garapen prozesuetan parte hartzeko, mugikortasun fisikoa eta lekualdatzeak eragozten baitizkie, ekonomia, gizarte eta politika mailan parte hartzeko saiakerak mugatzen baitizkie, haien paper tradizionalak aldatu eta etxeko erlazioetako mugak gainditzeko adorea kentzen dielako.

Herrialde askotan legeek esaten dute senar-emazteen arteko indarkeria familiako arazo pribatua dela, eta ez duela legearen esku-hartzea justifikatzen ez eta administrazioaren esku-sartzea ere. Hala eta guztiz ere, arazo honen eragina oso larria da: Amerikako Estatu Batuetan, egunero 10 ema-

kume hiltzen dira etxeko tratu txarren ondorioz, aldiz, Pakistaneko emakumeen %80k, Japonen %59k, Tanzaniako %60k, Costa Ricako %54k eta Guatemalako %49k diote beraien egungo edo aurreko senarren edo bikoteen indarkeria jasan dutela.

Emakumeen aurkako indarkeria...

Jaiotza baino lehen hasten da: zenbait herrialdetan fetuaren sexua ezagutzeko frogak emakumezkoa bada abortatzea dute helburu.

Bizitzako lehenengo urteetan kalteak sortzen ditu: kalkulatzen da 100 milioi neskek mutilazio genitalak jasan dituztela; urtero milioi bat haur, gehiengoak neskek, prostituzioan jardutera behartzen dituzte Asiako herrialdeetan; milioika neskek mundu guztian zehar tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzte.

Ezkontzan ohikoa izatera pasatzen da: Txilen, Mexikon, Papua Ginea Berrian eta Korean egindako ikerlanek adierazi dute ezkontutako emakumeen bi herenek indarkeria jasan dutela senarren edo bikoteen aldetik.

Bortxaketetan azaltzen da: hainbat herrialde industrializatuak datuek azaltzen dute hiru emakumetik batek bere bizitzan zehar bortxaketen bat jasaten duela.

Erailetan amaitu dezake: Bangladesheko, Brasilgo, Kenyako, Papua Ginea Berriko, Tailandiako eta Errusiako txostenek adierazten dute emakumeen erailketa guztien erdia baino gehiago haien egungo edo iraganeko bikoteek egin zituztela. 1988 eta 1993 artean, Indian 20.000 emazte erail zituzten edo bere buruaz beste egin zuten ezin ziotelako ezkontzaren ordainketari aurre egin.

Edo bere buruaz beste egiteko arrazoia izan daiteke: baude Afrikan, Hegoamerikan, Amerikako Estatu Batuetan eta Melanesiako hainbat irletan bikoteko indarkeria emakumeen suizidio arrazoi nagusienetarikoa dela zehazten duten frogak.

Eta erasoak gerra garaian ugaritu egiten dira: emakumeak dira gatazka armatuaren kaltetu nagusiak, nahiz eta armada erregularren %2 besterik osatzen ez duten. Errefuxiatuentzako Goi-Komisarioaren Bulegoak (ACNUR) jakinarazi du dirulaguntza eman zaien nazioarteko errefuxiatuen %80 emakumeak eta haurrak zirela. Emakumeak bortxatzea da gerran arerioa menderatzeko erabili ohi diren taktiketako bat.

Iturriak: PNUD, 1995. Seager, J., 1997.

1.7. POLITIKATIK KANPO UTZIAK

1995eko Giza Garapenari buruzko Txostenak dio «espazio publikoa hiritar guztiena dela, baina gizonek monopolizatzen dutela (...) Gizartearen aldaketak prozesu politikoen bidez egin ohi direnez, emakumeek aukera politikorik ez izatea larrizko arrazoia dela».

2002an emakumeek parlamentuko aulkien %14 eta ministerioko karguen %6 besterik ez zituzten betetzen munduan (Giza Garapenerako buruzko Txostena, 2002). Boto eskubidea edukitzeak —emakumeek herrialde industrializatuetan xx. mendeko lehenengo hamarkadetan lortu zutena, eta garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeek independen-tziaren momentuan, liberazio nazionalako borroketan parte hartu izanaren ondorio gisa— ez du esan nahi emakumeek libreki erabiltzen dutenik edo asko direnik ordezkari aukerazten dituztenak, nahiz eta hautesleen erdia izan.

UNIFEMen (2002) datuen arabera, 11 herrialdek bakarrik lortu dute Beijingo Munduko Ekintzarako Plataforman ezarritako helburua, beren parlamentuko aulkien %30 emakumeek edukitzea (ikus 16. koadroa). Guztiek kuoten sistema-ra jo dute hori lortzeko.

Herrialde aberats batzuetan emakumezkoen ordezkaritza parlamentuan herrialde pobre askotan lorturikoaren azpitik dago; adibidez, Amerikako Estatu Batuetan emakumeak parlamentarien %12 dira, garapen bidean dauden 38 herrialde-tako portzentajea baino gutxiago. Horrek frogatzen du emakumei aukera politikoak ez ematea ez dela herrialdearen garapen edo sarrera mailaren araberakoa, ez eta emakumeen hezkuntza mailaren araberakoa ere, beste kultura eta gizarte mugaketei lotua dagoela baizik.

Egoera oraindik desberdinagoa da kabinete eta lehenengo ministro postuetan, non emakumeak ez diren beren parlamentuko ordezkaritza ahulera ere iristen. 2000 urteko datuek adierazten dute emakumeek ministerioko postuen %30 zituztela 20 herrialde eskasetan, eta horietatik zazpik giza garapen ertaina eta baxua zuten (Kolonbia, Cabo Verde, Hegoafrika, Honduras, Zinbawe, Gambia eta Mali), eta horrek aurrez planteatu den tesia berretsiko luke (Giza Garapenerako buruzko Txostena, 2002).

Tokiko administrazioetako ordezkari diren emakumeen proportzioa parlamentuetan eta estatuko gobernuetan dagoena baino altuagoa da. Informazioa bilduta dagoen 78 herrialdeetan, 46tan tokiko administrazioetan estatukoetan baino

16. koadroa. **Parlamentuan dauden emakumeen irudikapena, 2002ko azaroa**

	(%)
Saharaz hegoaldeko Afrika	
Hegoaldeko Afrika	30,0
Mozambique	30,0
Ruanda	25,7
Uganda	24,7
Seychelles	23,5
Tanzania	22,3
Namibia	20,0
Burundi	19,5
Senegal	19,2
Botswana	17,0
Angola	15,5
Eritrea	14,7
Mali	12,2
Kongo	12,0
Zambia	12,0
Cabo Verde	11,1
Liberia	11,1
Gabon	10,9
Lesotho	10,7
Zimbabwe	10,0
Burkina Faso	9,9
Sudan	9,7
Malawi	9,3
Ghana	9,0
Kamerun	8,9
Ginea	8,8
Boli Kosta	8,5
Madagaskar	8,0
Ginea Bissau	7,8
Etiopia	7,8
Afrika Erdiko Errepublikak	7,3
Swazilandia	6,3
Benin	6,0
Maurizio	5,7
Gambia	5,7
Kamerun	5,6
Ekuatore Ginea	5,0
Togo	4,9
Kenya	3,6
Nigeria	3,2
Mauritania	1,8
Niger	1,2
Djibuti	0,0

.../...

.../...

	(%)
Iparraldeko Afrika	
Tunis	11,5
Algeria	4,0
Egipto	2,4
Maroko	0,5
Erdialdeko eta mendebaldeko Asia	
Turkmenistan	26,0
Israel	14,2
Tadjikistan	12,0
Kazakhstan	11,2
Txipre	10,7
Azerbaijan	10,5
Siria	10,4
Irak	7,6
Uzbekistan	7,2
Georgia	7,2
Kyrgyzstan	6,6
Turkia	4,2
Jordania	3,3
Armenia	3,1
Libano	2,3
Yemen	0,7
Asia eta Pazifikoa	
Vietnam	27,3
Ekialdeko Timor	26,1
Laos PDR	22,9
Txina	21,8
Korea, DPR	20,1
Filipinak	17,0
Malasia	14,5
Singapur	11,0
Mongolia	10,5
Tailandia	9,6
Kanbodia	9,3
Bhutan	9,3
India	8,9
Indonesia	8,0
Maldivak	6,0
Samoa	6,1
Nepal	5,9
Koreako Errepublikak	5,9
Fiji	5,7
Sri Lanka	4,4
Irango Errepublika Islamiarra	4,1
Bangladesh	2,0
Vanuatu	1,9

.../...

.../...

	(%)
Latinoamerika eta Karibe	
Costa Rica	31,6
Argentina	31,3
Kuba	27,6
Nikaragua	20,7
Barbados	20,4
Guyana	20,0
Surinam	17,6
Peru	17,5
Trinidad eta Tobago	16,7
Mexiko	16,0
Jamaika	16,0
Dominikar Errepublika	15,4
Ekuador	14,6
Belize	13,5
Uruguay	12,0
Kolonbia	11,0
Bolivia	10,2
Chile	10,0
Panama	9,9
Venezuela	9,7
Salvador	9,5
Haiti	9,0
Guatemala	8,8
Paraguay	8,0
Brasil	6,7
Honduras	5,5
Ekialdeko Europa	
Bulgaria	26,2
Polonia	21,0
Bielorrusia	18,3
Letonia	18,0
Estonia	17,8
Mazedonia	17,5
Kroazia	16,0
Txekiar Errepublika	15,6
Eslovakia	14,0
Moldaviako Errepublika	12,9
Eslovenia	12,2
Lituania	10,6
Errumania	9,2
Hungaria	9,1
Errusiako Federazioa	6,4
Bosnia-Herzegovina	6,4
Jugoslavia	6,2
Albania	5,7
Ukraina	5,1*

.../...

.../...

	(%)
Mendebaldeko Europa eta beste herrialde garatu batzuk	
Suitza	42,7
Danimarka	38,0
Finlandia	36,5
Norvegia	36,4
Islandia	34,9
Holanda	31,5
Alemania	31,0
Zeelanda Berria	30,8
Australia	27,0
Espainia	26,6
Austria	25,1
Belgika	24,8
Kanada	24,0
Suedia	22,0
Portugal	19,1
Erresuma Batua	17,0
Luxenburgo	16,7
Irlanda	14,6
Amerikako Estatu Batuak	12,0
Frantzia	11,8
Japon	10,0
Malta	9,2
Italia	9,1
Grezia	8,7

Iturria: UNIFEM, 2002.

emakume gehiago daude; 13 herrialdetan, tokiko hautetsien laurdena baino gehiago emakumeak dira. 1994an, Indiako gobernuak *panchayat*-eko (tokiko udalbatza) aukien herena gorde zuen emakumeek har zitzaten, horren ondorioz, gutxienez 800.000 emakume tokiko bide politikoan sartu ziren eta hortik estatuko buruak aterako dira (Giza Garapenerako buruzko Txostena, 1995).

1.8. ESKUBIDE DESBERDINAK

Emakumearen aurkako diskriminazio era guztiak desagerarazteari buruzko hitzarmenak (Nazio Batuen Batzar Nagusiek onartua) pausu garrantzitsu bat adierazten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ibilbidean. Hala

eta guztiz ere, Nazio Batuen kide diren 163 herrialdek bakarrik izenpetu eta berretsi dute Hitzarmena, beste lauk ez dute izenpetu baina ez haustea onartu dute.

Emakumeek egunero diskriminazio legalei aurre egiten jarraitzen dute herrialde askotan, aberats eta pobreetan, industrializatueta eta garapen bidean daudenetan, demokratioetan eta autoritarioetan. Horien adibide bat ondorengoa da:

- Nazionalitatea edukitzeko eskubidea: Asia mendebaldean eta Afrikako iparraldean, atzerritarrekin ezkondu diren emakumeek ezin diete beren senarrei hiritartasuna eman, egoera berdinean dauden gizonek, aldiz, egin dezakete.
- Ondasunak transmititzeko eskubidea: Bostwanan, Txilen, Leshoton, Namibian eta Swazilandian ezkonduko emakumeak beren senarren tutoretzapean daude eta ez dute ondasunak administratzeko eskubiderik.
- Sarrerak irabazteko aukera edukitzeko eskubidea: Bolivian, Guatemalan eta Sirian, senarrek mugatu dezakete beren emazteek etxetik kanpora lan egitea.
- Bidaiatzeko eskubidea: zenbait herrialde arabiarretan, senarrak bere baimena eman behar du emazteak pasaporte lor dezan, baina alderantziz ez da beharrezkoa. Iranen emakumeek ezin dute herrialdetik irten beren senarren baimenik gabe.

2

**Nola ikusi ditu emakumeak
garapenerako lankidetzak?**

1960ko hamarkadatik, garapenerako lankidetzaren emakumeak beren gizarteetako garapenean sartzera zuzenduriko esku-hartzeak egiten ari da. Jarduera horiek hala gizarte eragileek emakumeek gizartean duten paperari buruz dituzten ikusmoldeek nola lankidetzaren helburu diren herrialdeetan praktikan jarri diren hainbat garapen eredu eta horien ondorioek zehaztu dituzte; jarduera horiek, beraz, aldaketa garrantzitsuak jasan dituzte eta aldaketa horiek emakumeei zuzenduriko proiektuetan eta garapen agendan «emakumeen gaiek» lortu duten erakundetze mailan ikusten dira.

Horrela, 1970ko hamarkadaren erdialdetik Hegoaldeko herrialdeetako sarrera gutxiko emakumeei laguntzeko diseinaturiko programak eta proiektuak ugaritzen ari dira, baina programa eta proiektu horiek beti ez dituzte eragin positiboak izan bizi baldintzak hobetzerakoan. Jarduera batzuk etxeko unitateen ekoizpen baldintzak ahuldu dituzte eta horrekin, emakumeen familia eta gizarte estatusa ere bai, beste batzuk haien ugaltze jarduerak gutxietsi dituzte emakumeen lan-jarduna luzatuz, edo horien ekoizteko ahalmena gehiegi esplotatu dute emakumei abantaila gehigarririk eman gabe, kalifikazio pertsonalei, produktibitateari edo sarrerei dago-kienez.

Oro har, baieztatu daiteke emakumei zuzenduriko politiken planteamenduak haien behar eta interesen hasierako ikusezintasunetik egungo ikuspegira pasa direla, genero mendekotasuna garapenarentzat oztopo gisa ikusten duenera. Caroline Moserek (1991) azken hamarkadetan indarrean egon diren ikuspegiak sistematizatu ditu genero ikuspegitik

analizatuz, hau da, emakumeen funtzioak¹, erantzukizunak, beharrak eta interesak² nola hartu ziren, garapenerako lankidetzako inguruetan batzuk eta besteek onespena zein baldintzetan lortu duten, bete nahi dituzten helburuak, lortzen dituzten emaitzak identifikatuz, hau da, emakumeek sostengatzen dituzten ikuspegien arabera programa eta proiektu mota bakoitzetik itxaron dezaketena.

Moserek adierazitako ikuspegiak, neurri batean ala bestean, garapen erakundeek emakumeek gizartean duten papera kontzeptualizatzeko erabili dituzten hiru moduei erantzuten diete, hau da:

- a) Emakumeak «gizarteko sektore ahula» dira, garapenaren ekintzen hartzaille pasiboak eta, amak direnez, bi-tartekariak, haien seme-alabek ondasun eta zerbitzu jakinak eskuratu ahal izan ditzaten.
- b) Emakumeak «ekonomia eragileak» dira, beren etxeko pobrezia arintzeko —egiten duten ordaindu gabeko lanaren bitartez— eta beren familia eta komunitatei Estatuak ematen ez dizkien zerbitzu kolektiboak emateko erabili daitezkeenak.
- c) Emakumeak dira «generoko erlazio desberdinen mende-ko poloa», eta horrek eragozten die baliabideetara eta boterera gizonen baldintza berdinetan iristea.

Ikuspegi desberdin horiek sortu dituzte Hegoaldeko gizarteetako emakumei zuzenduriko hainbat politika, programa eta proiektu. Nahiz eta politikak gutxi gorabehera aldi berean azaldu diren eta guztiek ez duten onarpen berdina izan garapenerako lankidetzako eta gizabidezko laguntzako inguruetan, garapen erakundeetan azken berrogei urteetan eduki duten indarraldia irudika daiteke.

¹ Moserek (1991) adierazten du sarrera txikiko Hirugarren Munduko emakumeek *funtzio hirukoitza* dutela, erreproduktzio, ekoizpen eta komunitateko kudeaketa funtzioak betetzen dituztelako.

² Molyneuxen (1986), Moseren (1991) eta Youngen (1991) obrez geroztik, emakumeen *generoko behar praktikoak* emakumeek lanak tradizionalki izan duen sexuaren araberako banaketak egokitzen dizkienak bezala definitzen dira. Bizi baldintza ez egokiek eta baliabide faltarekin oso erlasionatuak daude, eta, oro har, generoen arteko ekitatea bultzatzea helburu ez duten epe motzerako helburuak dira. Emakumei zuzenduriko proiektu gehienek emakumeek beren buruak eta familiak mantentzeko borrokan dituzten behar praktikoei jartzen diete arreta. Horiek ez bezala, *generoko interes estrategikoak* emakumeen mendekotasunaren analisisa abiapuntu hartuta azaltzen dira, eta oro har, epe luzearako helburuak dira generoen arteko ekitatea eta emakumeek gizartean duten lekua hobetzera zuzentzen direnak.

2.1. EMAKUMEAK 'IKUSEZINAK' DIRA GARAPENERAKO

Nazioarteko lankidetzako lehenengo urteetan, garapena sustatzeko ardua zuten erakundeek emakumeak «ez zituzten ikusi». Uste zen modernizazioak gizon eta emakumeei berdin egingo ziela mesede eta, ondorioz, emakumeen behar bereziak hazkunde ekonomikoarekin itsututako garapen paradigma batean galdua gelditu ziren.

«Itsutasun» horren adibide da urte horietan garapenari buruz argitaraturiko testuen %1 baino gutxiagok biltzen zituela emakumeen egoerari buruzko erreferentzia zehatzak, eta Garapenaren Lehenengo Hamarkada aditzera ematen zuen NBERen deklarazioak ere ez zituela aipatzen.

Emakumeak biztanleria espezifikoko gisa ez azaltzea garapenaren antolamendua maizegi orientatu duen premisa batekin ulertzen da: gizonentzat ona dena bere familia guztia-entzat ere ona da. Gizonek beren familietan, eta ondorioz komunitateetan, duten jarrera menderatzailea dela eta, emakumeen eta haurren interes eta beharren ordezkari egokiak direla pentsatzera jotzen da; garapenaren etekinak bere familia osatzen dutenen artean bidez eta zuzen banatzen dituztela; eta familiaren ongizatea bermatzeko beharrezkoa dena landu eta ekoizteaz arduratzen diren hornitzaileak direla.

Gizarte gehienetan sendo sartuta dauden uste horietan oinarriturik, planifikatzaileek kontsideratu zuten emakumeak garapenaren lorpenen zeharkako jasotzaile pasiboak zirela eta, ondorioz, ez zela beharrezkoa proiektuetan sartzea lorpen horiek gizonei mesede egiten bazieten, emakumei ere automatikoki mesede egingo zitelako. Ondorioa da garapen ereduaren ezaugarri diren nekazaritzaren modernizazioak eta industrializazio intentsiboak ez zituztela emakumeen bizi eta lan baldintza bereziak kontuan eduki, ez eta haien etxearen eta komunitatearen mendeko egoera ere. Emakumeak denbora askoan garapenarentzat «ikusezinak» izan ziren.

2.2. ONGIZATEAREN IKUSPEGIA (FAMILIAKOA)

Emakumeak garapen proiektuen berariazko hartzaile gisa azaldu ziren lehenengo aldia haien funtzioen eta ugaltze erantzukizunen aintzatespenari lotuta etorri zen, eta bereziki, baliabide urriko amak «sektore ahultzat» hartzeari lotuta. Planifikatzaileek emakumeak «ikusi» zituztenean, aitortu zen

horien lehenengo beharra haien seme-alaben zaintzarekin erlazonaturikoa izan zen. Ikusmolde hori da Nazio Batuek (1960ko hamarkadan) babesturiko Garapenaren Lehenengo Hamarkadan nazio produktuaren hazkunde azkartua lehenesten zuen garapen eredu baten inguruan ezarritako lankidetzaren politiken ezaugarri izan zen «ongizatearen ikuspegiaren» oinarria.

Ikuspegi horren jatorria Bigarren Mundu-Gerraz geroztikoa da, talde ahulei (emakumeak, haurrak, gaixoak edo ezgaituak) zuzenduriko ongizate programak, ekonomia berreraitziera zuzenduriko laguntza ekonomikorekin batera, Europa guztian zehar zabaldu zirenekoa. Laguntza zuzenean sarrera gutxiko emakumeei ematen zitzaienten, uste zelako horiek zirela beren familien ongizatearen interesdun nagusiak, eta inplementazioa eraginkorra eta merkea izan zedin klase ertaineko emakumeen laguntza zuten agentzia pribatuek egiten zuten banaketa.

Ez da zaila frogatzea Amerikako Estatu Batuek gerraostean Europari eskaini zioten garapenean laguntzeko eredia —ekonomiaren hazkunderako kanpo inbertsioa eta gizarteko talderik ahulentzako laguntza— Europako herrialdeek beren antzinako kolonietara eta Hegoaldeko herrialdeetara zuzendu zituzten lankidetzaren politika askotan errepikatu zela. Horrela bada, nazioarteko laguntza ekonomikoak industriaren eta nekazaritzaren kapital intentsiboaren ekoizpena laguntzea lehenesten zuen estatuaren hazkundera azkartzeko, familiaren ongizaterako laguntza, aldiz, emakumeei ematen zitzaienten eta haren kudeaketa gizarte ongizaterako ministerioen —normalean azpifinantzatuak eta herrialde horietako estatuko erakundeetan baztertuta zeudenen— edo karitate erakunde boluntarioen esku geratzen zen. Iparraldeko gobernuz kanpoko erakundeak, gehienak erlijio izaerakoak, laguntza garapen bidean zeuden herrialdeetako gizarte eta erlijio erakundeetara zuzentzen hasi ziren, «arriskuan» zeuden biztanleei iritsi arazteko, bitartean, UNICEF, FAO eta ACNUR bezalako nazioarteko erakundeek Hegoaldeko gobernuentzako laguntza programak hasi zituzten helburu berdinarekin.

Ongizatearen ikuspegiaren arabera, emakumeek asistentzia laguntza besterik ez dute merezi (elikagaiak, elikadura hezkuntza, osasun arreta) familiaren biziraupena bermatzeko garapenean «mirariak» gertatu bitartean. Ama/seme-alaba binomioa lankidetzak mesedetu behar duen unitate gisa identifikatzen du garapenak, eta laguntzaren helburu zehatza da amei erakustea etorkizunean langile

osasuntsuak eta emankorrak izango direnak nola hazi behar diren.

Ongizate programen lehenengo kezka, eta oraindik ere garrantzitsua dena, da familiak fisikoki bizirautea eta haurrei eta haurdun dauden edo bularra ematen ari diren emakumeei elikagaiak ematea, bai eta amei elikadura hezkuntza eskaintzea ere. Programa horiek aplikatu ohi diren eremuak dira biztanle errefuxiatuei laguntza ematea —ACNURek aurrera eramaten dituen proiektuek emakume errefuxiatuen ama zerreginetan jartzen dute arreta batez ere— eta hondamendi naturalen edo goseteen biktimei larrialdiko laguntza eskaintzea.

Ildo horretan bertan, Hegoaldeko herrialde guztietan garatu diren ama-haurrentzako osasun programa ugariak emakumeei haurdunaldian, erditzerakoan eta erditu ondoren arreta eskaintzen zieten, programaren arreta ama/ seme-alaba binomioan jarriz eta hazkunde eraginkor bat bermatzeko beharrezkoak diren baliabidez eta abilitatez hornitzea interesatzen zaien bakarrak emakumeak direla onartuz.

1960ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, ongizatearen ikuspegia zabaldu egin zen biztanleriaren kontrola sartzeko, familia-plangintzako programen bitartez. Modernizazioak hazkunde erritmo bizia izatea ezaugarri zuten biztanleriaren joera sortu zuen eta erritmo horiek erraz gainditzen zituzten nazio produktuan lortutakoak. Desoreka horri pisu erlatibo eman zitzaion pobreziaren arrazoi gisa eta ondorioz, biztanleriaren gaiak leku nabarmena hartu zuen nazioarteko erakundearen agendan. Ez zen denbora asko pasa garapen agentziek emakumeak beren familien tamaina mugatzearen arduradun gisa identifikatu zituzten arte eta emakumeen artean antisorgailuen informazioa eta teknologia zabaltzearen bitartez ugalkortasuna murriztu hutsarekin pobrezia murriztu zitekeela planteatzera ere iritsi ziren.

Nahiz eta, duten laguntza izaeragatik, ongizate programek mendekotasuna sortu ohi duten emakumeen autonomia lagundu baino gehiago, oraindik ere oso ezagunak dira, hala nazioarteko lankidetzako erakunde batzuen artean nola Hegoaldeko gobernuen artean, tradizionalki emakumeari emandako funtzioak eztabaidatzen ez dituztenez ez dutelako gizarte edo politika gatazkarik sortzen. Hori guztiarekin ulertzen da egun antzeko programak pobretuen dauden herrialdeetan zabaltzea eta egoera larrian daudenetan geroz eta gehiago ezartzea.

Ongizatearen estrategiak oinarritzat dituen suposamenduak

- Emakumeak garapenaren onuren hartzaile pasiboak dira.
- Ez da beharrezkoa emakumeak garapen proiektuetan sartzea, horiek gizonen onurarako badira, automatikoki beraien onurarako ere badirelako (modernizazioari esleitu zaion ur-jauzi efektuaren hedadura, generoko bertsioan).
- Beraz, garapen prozesuetan ez dira ez eragile ez parte-hartzaile aktibo gisa hartzen.
- Amatasuna da emakumeek gizartean duten funtziorik garrantzitsuena. Horiek dira familia ongizatearen arduradunak eta beren herrialdeetako garapenari egiten dioten ekarpenik garrantzitsu eta eraginkorrena haurrak haztea da.
- Ama/semi-alabak binomioa da laguntzak eragin behar dion oinarritzko unitatea. Asistentzia izaerakoa denez, haurrei eta haurdun dauden emakumeei elikagaiak banatuz egikaritzen da, bai eta elikadura eta ama eta haurren osasunari buruzko trebatze programekin ere.
- Garapen-bidean dauden gizarteetako familiak herrialde industrializatueta nagusia den nukleoko familia eredu jarraitzen dute: gizon bat, beti ekoizle/hornitzaile dena, emakume bat, etxeko-ugaltze funtzioak bakarrik betetzen dituen, eta mendeko adin txikikoak.
- Emakumeak (ama gisa eraginkorrak ez izatea, atzerapena, ugalkortasun altua,...) dira arazoa, eta ez baliabide eza, eta ondorioz, beraiengan dago konponbidea.
- Treatze ekintzak biltzen direnean, ordainsaririk jaso gabe lan egiten duten etxeko andreentzat eta amentzat egokitzat jotzen diren abileziak bakarrik hartzen ditu kontuan.
- Estrategiak anbiguotasun bat azaltzen du programen benetako onuradunei dagokienez: Emakumeak dira, edo hobe esanda, haurrak, familia eta komunitatea?

2.3. EMAKUMEAK GARAPENEAN ESTRATEGIA (EG)

Emakumei «begiratzeko» bigarren moduak beste ezer baino lehen haien ugaltze funtzioak irudikatzen ditu eta ohikoa bihurtu zen garapenaren plangintzan 1970eko hamarkadaren hasieran, hainbat gertakarik emakumearen gaia garapenerako nazioarteko lankidetzaren agendan sartzeko aukera emango zuen egoera politikoari forma ematen ziotenean.

Alde batetik, garapen tesien porrotak modernizazioak sortutako pobrezia aurre egiteko esku-hartze berriak diseinatu behar izatea eragin zuen, garapen politiketan birbanatzeko elementuak sartuz. Ondorioz, NBEk bultzatutako Garapenaren Bigarren Hamarkadarentzako proposamena (1970eko hamarkada) «birbanaketa duen hazkunde ekonomikoa» dela esanez laburtuko genuke.

Bestalde, 1970ean argitaratutako Esther Boserupen ikerlanek argi utzi zituzten emakumeen bazterkeria fenomenoak garapen proiektuetan, bai eta horiek emakumezkoen sektore zabaletan bizi eta lan baldintzetan zuten eragin negatiboa ere. Egiaztatu zen herrialde gehienetan eta gizarteko klase guztietan emakumeek beren estatusa galduta zutela gizonen aldean, nekazaritzako modernizazioak generoen arteko etena handitu zuelako lan produktibitatea eta sarrerei dagokienez. Ikerlanek ere azaltzen zuten nahiz eta askotan emakumeak diren komunitateen oinarrizko ekonomiaren arduradun nagusiak ez zaiola erreferentziarik egiten haien ekarpen ekonomikoari ez estatistika nazionaletan ez eta garapen proiektuak planifikatu eta ezartzeko garaian ere.

Hirugarren gertakari batek garapen agentzietako emakume profesionalen sare baten lanarekin eduki zuen erlazioa. Nazioarteko garapeneko erakundeei eragiten tematu ziren, emakumeak garapenaren ahaleginetan sartzeko beharra aitortzen zuten. *EG Taldean* (Emakumeak Garapenean) bilduta, haien ekintzen lehenengo emaitza izan zen Amerikako Estatu Batuetako kongresuak Atzerriarrak Laguntzeko Legeari Percy Zuzenketan ezartzea onartzea (1973), horrek nazioarteko laguntza bulegoa (AID) derrigortzen zuen emakumeen arazoa lankidetzan plan guztietan kontuan hartzera. Bigarrena izan zen Elikadurari buruzko Nazio Batuen Konferentziak (1973) aitortzea emakumeek elikadura eta nutrizioari buruzko gaietan erabakiak hartzeko prozesuan parte-hartze handiagoa izateko beharra. Hirugarrena 1974ean izan zen, Biztanleriari buruzko NBEren Konferentziak demografia joerak zehazteko emakumeen garrantzia azpimarratu zuen.

Azken egoera bat 1970eko hamarkadaren hasieran hazten ari zen gizarte indarrari lotua egon zen, nazioarteko mailako, eta bereziki, Europako eta Iparramerikako emakumeen mugimendu zen. Feministen aktibismo politikoa, emakumeentzako eskubide eta aukera berdintasunaren alde egiten zuena, NBEk Emakumearen Nazioarteko Urtea izendatzera bideratu zuen, eta horren helburuetako bat zen nazioarteko gobernu

eta erakundeen agendan jartzea emakumeen ardurak, horien artean, garapen prozesuetan berdintasun gehiagoko baldintzetan parte hartzea.

Horren guztiaren ondorioz eta ikusirik emakumeak ez zirela garapenaren etekinetatik kanpo egoteaz gain, beren familia eta gizarte estatusa gizartearen modernizazioaren ondorioz okertzen zela ere ikusi zutenez, alderdi askotako erakundeetan lan egiten zuten akademiko eta funtzionario feministak saiatu ziren ikusgai egiten emakumeek garapenaren osoko helburuak lortzeko egindako ekarpenak. Beren ikerlan eta proposamenekin bide berri bat ireki zuten emakumeak garapen prozesuetan sartzeko: «Emakumeak Garapenean» (EG) deituriko estrategia, duela gutxi arte oso indarrean egon dena nazioarteko lankidetzaren giroan eta haren ezaugarri nagusiak honela laburbildu daitezke:

- Ongizatearen estrategiari —emakumeak laguntza programen hartzaile pasibo gisa hartzen zituenari— kontrajartzeko jarrera moduan sortu zenez, EGk emakumeak subjektu ekoizle gisa aurkezten ditu, ekonomiaren garapenaren laguntzaile aktibo gisa eta, ondorioz, aukera eta ekoizpen baliabide hobeak (enplegua, sarrerak, lanerako trebakuntza, etab.) merezi dituztenen moduan.
- Emakumeak garapenetik kanpo utziak daudenez lanaren sexukako zatiketaren ondorioz ordaintzen ez den ugaltze lana ematen die eta sarrerak sortzen dituzten jardueretatik, merkatutik eta esfera publikotik baztertzen ditu, EGren proposamenik garrantzitsuenak da emakumeak merkatuan eta esfera publikoan sartu behar direla garapenaren onurak eskuratu ahal izateko.
- Feminismo liberalaren eremu teorikoa oinarri harturik emakumei lehiatzeko aukerarik uzten ez dieten oztopo legalak eta kulturalak kentzera deitzen duena, gizonen aukera berdintasunean, sistemaren onurak lortzeko, EGk lege, kultura eta erakunde aldaketa defendatzen ditu, emakumei hazkunde eta aldaketako ekonomia, politika eta gizarte prozesuetan sartzeko aukera emango dietenak.

Azken finean, EGren proposamena bikoitza da: emakumeak garapenaren korrante nagusian sartzea beren estatusa hobetu eta sexu berdintasuna lortzeko, baina bai eta garapena eraginkorragoa egitea ere biztanleriaren ahaztutako erdia lan munduan sartuz.

Nekazaritzaren modernizazioaren eragina enpleguan eta emakumeen estatusen

Nekazaritzaren garapenean, gizonaren laneko produktibitateak gora egiten du, emakumearena, aldiz, gutxi gorabehera egonean gelditu ohi da. Emakumearen produktibitatearen behar-kada erlatiboaren ondorioa da nekazaritzan bere estatusa galtzea; ondorio gehigarri gisa, emakumeei laborantza uztea gustatuko litzaieke etxeko bizitzari arreta jartzeko edo hirira emigratzeko.

Europako kolono, administratzaile eta aholkulariak dira, neurri handi batean, garapen bidean dauden herrialdeetako nekazaritza sektorean emakumeen egoera okertzearen arduradun, emakumezkoen eskulana ahaztu zutelako merkataritzarako nekazaritza modernoa sartu zutenean eta gizonezkoen lanaren produktibitatea bultzatu zutelako. Mendebaldeko pentsaerak, nekazaritza gizonarentzako lana dela dioenak, sinistarazi zien gizonak nekazari produktiboagoak izan zitezkeela nagitasun tradizionala alde batera uzten zutenean.

Nekazaritza tradizionaletik modernorako aldaketak emakume eta gizonen arteko zuloa handitu ohi du, hezkuntza eta eza-gupen mailei dagokienez. Trebatzaileek eta aholkulari teknikoek gizonari erakusten diete laborantza metodo berriak erabiltzen, emakumeek aldiz, teknika tradizionalak erabiltzen jarraitzen dute eta beren ahaleginengatik etekin txikiagoa lortzen dute. Ondorioa da nekazaritzan parte-hartzeko gogoia galtzen dutela eta laborantza uzteaz poztzen direla senarraren sarreretan izandako igoerak aukera ematen dienean.

Gainera, gizonari saltzera zuzenduriko laborantzak irakasten zaizkie eta horiek pixkanaka hobetu egiten dira ikerlan sistematikoa eta administrazio publikoaren beste inbertsio eta laguntzei esker, familiaren autokontsumorako diren laborantzek aldiz, emakumeek egindakoek, ez dute inolako laguntza edo ikerketen babesik. Bestalde, gizonak uzta saltzearekin lortu dituzten etekinen zati bat ekoizpen teknologia berrietan inbertitzeko erabil dezakete, baina emakumeek ez dute beren laborantzak hobetzeko etekinik.

Emaitza da ekoizpen teknika modernoak gizonari erabiltzen dituztela eta emakumeek eskulan umiliagarriak egiten dituztela: gizonen soroan ongarri kimikoak botatzen dituzte, emakumeek ordea, ongarri organikoak bota behar dituzte; gizonak bizikletan, traktorean edo kamioietan ibiltzen dira, emakumeek ordea, buru gainean eraman behar dituzte fardelak, beren amonek egiten zuten moduan. Askotan, joera hori kultura ereduak indartzen dute: gizonari erabaki propioak hartzen dituzten nekazari independenteen papera ematen zaie, emakumeena aldiz, familiari laguntzea edo gizonen jabetzakoak diren lurra lantzeko kontratatutako langilea izatea da.

Gizonak nekazaritza modernoarekin eta emakumeak lan tradizionalekin erlazionatzean, eskuzkoekin edo hain produktiboak ez direnekin, modernizazioari loturiko nekazaritzaren garapenak gizonen ospea handitu eta emakumeen estatusa gutxitzen du. Emakumeek garapen bidean dauden zenbait herrialdetako nekazaritzetan funtzio garrantzitsua bete behar badute, beharrezkoa izango litzateke nekazaritza metodoak irakasten diren ikastaroe-tan sartzeko sexu diskriminaziorik ez egoteko neurriak hartzea eta nekazaritzan aritzen diren emakumeek laborantza sistemak hobetzeko laguntzak jasotzea, aholkularitza zerbitzuek emakumeak ez baztertzea edo beren lurretatik ez botatzea.

Iturria: Boserup, E., 1993.

2.3.1. Ekitatearen ikuspegia

1970eko hamarkadaren erdialdean azaldu ziren emakumeenganako lankidetzaren politiken orientabidea aldatzen ari zenaren lehenengo arrastoak, familiaren ongizatea helburu izatetik emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna izatera pasatuz. Aire berri horiek zehazteari «ekitatearen ikuspegia» deitu zitzaion eta EG strategiaren emakumeak garapenean sartzeko lehenengo formula praktikoa izan zen.

Ikuspegi³ horren hasiera puntua da emakumeak garapenean partaide aktiboak direla, hala bere ekoizpen funtzioetan nola ugaltzekoetan eta ekarpen oso garrantzitsua egiten diotela ekonomiaren hazkunderari, nahiz eta askotan ez den aitortzen, baina gehienbat biziraupen eta ekonomia informaleko sektoreetatik egiten dute eta horrek haien ekarpenak gutxietea ekartzen du.

Ondorioz, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren aldeko esku-hartzeak bilatzen dutena da emakumeek ordaindutako lanpostu bat aurkitzeko dituzten oztopoak gainditzea bai eta soldatetan eta lan baldintzetan sexuen artean dagoen zuloa ere, emakumeek etxean edo merkatuan egiten dituzten ekoizpen jardueretan hobekuntzak eginez. Espero da hezkuntzak eta lan prestakuntzak lan aukerak eta politikako ordezkariak eta ekintzak ugaritzea, horrela gizonak gizartean duten leku berean egongo bailirateke.

³ Kabeerek (1994) Aukera Berdintasunaren Ikuspegia deitzen du, ekitate kontzeptuaren erabilera hori beranduagoko batetik desberdintzeko, zeinaren arabera ekitateak ez du hainbesteko zerikusia gizon eta emakumeen hasierako aukera berdintasunarekin, *emaitza berdintasunarekin* baizik (gerta daiteke helburu horrek emakumeentzako diskriminazio positiboko ekintzak behar izatea).

Ez da zaila sumatzea ikuspegi horren kezka nagusiak gizon eta emakumeen arteko desberdinkeriarekin duela zerikusia eremu publikoan eta pribatuan eta talde sozio-ekonomiko guztietan, gai horrek gehiago islatzen zituen Iparraldeko feministen kezka Hegoaldekoen eskaerak baino, haiek beren bizi baldintzak hobetuko lituzkeen birbanaketa garapen bat eskaintzeko gai zen nazioarteko ordena bat nahi baitzuten. Emakumeen Nazioarteko Urtearen (1975) lema (Berdintasuna, Garapena eta Bakea) Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeen askotariko kezka horiek biltzen zituen, aldiz, handik sortutako Munduko Ekintza Planak generoen arteko berdintasuna lortzea azpimarratzen zuen eta gizon eta emakumeen funtzio tradizionalak aldatzea eta emakumeek garapenaren etekinetan bidezko partaidetza izatea eskatzen zuen.

Nahiz eta Ekintza Planak gobernuen eta garapen agentzien ekintzarako agenda 1985 arte finkatzen zuen eta Iparraldeko eta Hegoaldeko gobernu gehienek onartzen zuten, ekitatearen ikuspegi horretan oinarrituriko programek arazoekin topo egin zuten hasieratik. Alde batetik, ikuspegi horrek merkatuan zuen gehiegizko fedeari buruzko —emakumeen arazoen konponbidea haiek ekonomiaren sektore modernoaren sartzearen esku uzteagatik— eta familia barruko boterearen banaketa desberdinari jartzen zioten arreta gutxiari buruzko, emakumeak sarrerak lortzeagatik edo bere lana produktiboagoa izateagatik automatikoki galtzen ez den desberdinkeriari buruzko galdera teorikoak planteatzen zituen. Bestalde, ez zuen atxikidura politikoa asko zirikatzen, gizonak garapenari emakumeek baino etekin gehiago atera diotela onartzean, berdintasun neurriek hainbat eremutan gizonezkoen boterea zalantzan jartzen zuten birbanaketa elementuak bil zitzaizketelako, lankidetzat agentzien eremua barne.

Izan ere, garapen erakundeen gehiengoa ikuspegi horren aurka azaltzen zen, Mayra Buvinicek (1983) adierazten duen moduan, «emakumeen produktibitatea handitzea helburu duten programek normalean gizartearen kultura sarearen berregituraketa bat eskatzen dute eta garapen agentziek nahiago izaten dute gizarte aldagai ezezagunak ez erabiltzea; metodo praktiko gisa, gizartearen ohiturak mantentzean sinistera jotzen dute, beraz, programa horiek ezartzearen aurkakoak dira».

Era berean, Hegoaldeko herrialde askotan gobernuak ez zituzten politika horiek atsegin feministatzat jotzen zituztelako eta iruditzen zitzaizelako Mendebaldetik esportatutako feminismoak ez zuela garrantzirik Hirugarren Munduko emakumeentzat. Ekintzaile askok kontsideratu zuten «urik, janaririk edo etxerik ez duen emakume bati feminismoa era-

matea txorakeria dela» eta beren herrialdeetako feministei «inperialismoaren aldeko burgesak» izatea egotzi zieten.

Hipotesi askorenganako antagonismo klima batean, ekitatearen ikuspegia azkar utzi zuten alde batera nazioarteko lankidetzako agentzia gehienek, nahiz eta Emakumearen Konferentziak 1975ean onartu izanak herrialde askotako legerietan emakumeen estatusa hobetzeko erabiliko zela ziurtatu zuen. Ikuspegi horren ekarpen garrantzitsuenetariko bat da emakumeentzat lege berdintasuna —dibortziorako, seme-alaben zaintzarako, jabetzarako, mailegurako, botorako eta beste hainbat gauzetarako eskubidea barne— egun munduko gobernu gehienek onartu duten helburua izatea.

Aukera berdintasuna ez da nahikoa

Garapenerako lankidetzako erakunde batzuentzat, proiektu jakin batean parte hartzen duten emakume eta gizonen proportzioa berdina izatea da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko estrategien arrakastaren adierazgarri. Emakume eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna helburu garrantzitsua da, hala eta guztiz ere, esperientziak esaten digu maila horretan berdintasunezko parte hartzea beti ez dela programa edo ekimen batek emakume eta gizonen arteko berdintasuna lagunduko duela ziurtatzeko modurik baliozkoena edo eraginkorrena. Berdintasun estrategiek irakaspen horiek elkarren artean erlazionaturiko bi modutan sartzen dituzte:

- Eraginean jarriz arreta jarduera/ekarpenetan baino gehiago, kontuan hartuz ekimen globalak gizon eta emakumeei eta bien arteko berdintasunari nola eragingo dien, zuzen edo zeharka.
- Berdintasuna helburutzat hartzean arreta jarriz, emakumeak hartzaile talde gisa ikustean baino gehiago, helburu nagusitzat genero ekitatea duten politiken aukeraketa eta diseinua kontuan hartuz edo erakundeen praktiken eta garapen plan-gintzen metodologiaren ikusmoldeetan aldaketak sartuz.

Iturria: Garapenerako Laguntzako Batzordea, 1998.

2.3.2. Pobreziaren aurkako ikuspegia

1970eko hamarkadaren hasieran lasai aitortzen zen modernizazioaren proposamenak porrot egin zuela, hala sarreak birbanatzeko helburuan nola nekazaritzako etxeko unitateen deskonposaketak, hirietaranzko migrazio mugimenduek

eta elikagaien produkzioaren beherakadak eragin zituzten pobrezia eta langabezia arazoaren konponbidean.

Hazkunde ekonomiko azkarraren ondorio positiboen inguruko iragarpen guztiek esandakoaren aurka, garapenaren ustezko onurak ez ziren beherantz «filtratu», alderantziz baizik, hirian eta landan marjinatuen taldeak sortu zituzten. Hain zen begien bistakoa ezen Munduko Bankuak, 1972an, hazkunde ekonomikoaz kezkatzeari utzi eta guztizko pobrezia desagerraraztearen eta «hazkundearekin birbanatzea» sustatzearen aldeko interes handiagoa edukitzea pasa zen.

Testuinguru horretan, bi planteamendu azaldu ziren geroz eta handiagoa zen pobrezia aurre egiteko. Lehenengoak gobernuak behartzen zituen enplegua sortu eta zabaltzera, modu jarraituan langileen sektoreen benetako sarrerak igotzeko. Helburu horrekin bat etorritik, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) mundu mailako programa bat proposatu zuen lana garapen politiken helburu nagusizat hartzen zena, langile pobreak arreta berezia behar zuen talde gisa identifikatzen zituena, eta sektore informala —bere ustezko lana sortzeko gaitasun autonomoarekin— konponbide gisa.

Bigarren planteamendua *premiatzeko beharrena* bezala ezagutu zen eta LANEk 1976an «gizarte batek talde pobreenentzat lortzen saiatu behar duen gutxieneko bizi maila lortzeko ahalegina bezala» definitu zuen. Estrategia horren arabera, garapenaren helburu nagusia zen alde batetik premiatzeko giza beharrak asetzea, elikagaiak, jantziak, etxebizitza, erregaiak eta garraioa kasu, eta bestetik, gizarte beharrak, hezkuntza, giza eskubideak eta gizarte bizitzan parte-hartzearen modukoak, lanaren eta politikan sartzearen bitartez.

Garapenaren politika orokorreko aldaketa horiek EG estrategiaren defendatzaileei aukera eman zieten adierazteko emakumeek ez dutela garapena beren bizi baldintzak hobetzeko bakarrik behar, baizik eta haien ekarpenak baliagarriak direla garapenaren helburuak betetzeko. Ekitate programek pizten zuten erresistentzia saihesteko ahaleginean, EGko emakume profesionalak beren argudioen enfasia aldatu zuten eta «emakume pobreetan inbertitzeak pobrezia aurreratzeko borrokatu behar diren programei ekonomia eraginkortasuneko korrituak ekarriko zizkiela» esatera pasatu ziren.

Horrela sortu zen «pobrezia aurreratzeko ikuspegi», EG estrategiaren bigarren zehaztapen praktikoa. Horren proposamenak emakumeen ekoizpen funtzioan jartzen du arreta, onartzen du pobrezia arintzeak eta hazkunde ekonomiko orkatuaren sustapenak sarrera gutxiago etxetako emakumeek produktibitate handiagoa izatea eskatzen dutela. Ondorioz,

emakumeen lana eta sarrerak sortzeko aukerak handitzea birlatzen du, ekoizpen baliabideetara errazago heltzearen bidez. Gainera, espero da emakumeen hezkuntzak eta enpleguak ugalkortasun tasak jaisten lagunduko duela, demografi eztanda per capita errentaren hazkunde helburuarentzat oztopo bat dela uste delako.

Lankidetzako erakundeek ikuspegi hori «sarrerak sortzen dituzten mikroproiektuen» sustapenean zehaztu zuten eta helburua zen emakume pobreei laguntzea beren familien premiazko beharrak modu eraginkorragoan asetzen. Merkaturako ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko proiektuak normalean emakumeen etxeetan edo horietatik gertu ezartzen ziren eta zalantzazko bideragarritasuna zuten ekonomia jarduerak ziren, emakumeen etxeko-ugaltze funtzioen bateragarritasunagatik aukeratu ziren errentagarritasun ekonomikoagatik baino gehiago. Proiektu horietako gehienek ez zuten emakume pobreak ekonomia marjinaltasunetik ateratzeko balio izan, laguntzako jarduerak bihurtu ziren emakumeen gaitasunak elikagaien, jantzien edo eskulan tradizionalen ekoizpenean garatzeko bakarrik zirenak baliagarri, epe ertainera enplegu eta sarrera iraunkorrak edukitzeko aukerarik ematen ez zutenak.

Nahiz eta ikuspegi horrek emakumeak garapenean sartzeko erabiltzen duen eraginkortasun praktikoa ez den nahi bezain ona, oraindik ere arrakasta handia du garapen agentzien artean, bereziki gobernuz kanpoko lankidetzaren sektore zabal batean. Hori izan daiteke alde batetik etxe pobreetako premiazko beharren inguruan definitzen dituelako emakumeen arazoak (eta ez aukera eta baliabideak eskuratzeko duten aukera desberdinkerian, ekitatearen ikuspegiak egiten zuen moduan); bestetik, emakumeak buru diren familietan jartzen du arreta, «pobreetatik pobreenak» direla esaten denean eta azkenik, emakumezkoen pobretasuna sexuen arteko erlazioen dinamikatik bereizten duelako. Laburbilduz, emakumeak garapenean sartzeko saiatzen da etxe barruko boterearen erlazioak eztabaidatu gabe eta horrek oso onargarria egiten du ikuspegi hori emakume eta gizonen arteko erlazio desberdinei aurre egiteko beldur diren garapen agentzientzat.

Sarrerak sortzen dituzten proiektuen balantze kritiko bat

Azken urteetan sarrerak sortzen dituzten hogeita hamar proiektu baino gehiago ezarri ditugu landako emakume pobreekin, familiaren kontsumorako eta salmentarako ekoizpenerako (nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak, fruitu baratza, okindegiak,

eskulangintza, joskintza) eta komunitate eta familia zerbitzuetarako (dendak, errotak, haurtzaindegiak, jantokiak). Emakumeek proiektu horiek diseinatu eta egikaritzeko etapa desberdinetan parte hartu dute eta horrek haien bizitzetan aldaketa garrantzitsuak eragin ditu: etxearen eremu itxitik ateratzea, beste emakumeekin egotea eta beren beharrak nola asetu bilatzea, beste gizarte eragile batzuekin elkarrizketatzea, arazo berriak konpontzea,... Ziurtasun eta auto-estimua gehiago hartu dute, komunitatean protagonismo berria dute, beren familietan argi ikusten da egiten duten ekarpena. Garrantzitsuak sentitzen dira.

Bestalde, trebakuntza jarduerak sartzen dituztenean, ekoizpen proiektuek ez dute eskulana emakumeek hobe ordainduta dauden edo tradizionalki emakumeenak ez diren lanbideetan aritzeko aukera izateko moduan hartzea jotzen. Ez dute emakume langileen ekoizpen funtzioa ere kontuan hartzen eta ondorioz, proiektuetan parte hartzen duten emakumeen etxeko lana arintzen duten zerbitzu kolektiboak sortzea ez dute haien eragiketa kostuetan sartzen (haurtzaindegiak, garbitegia, jantokiak). Laburbilduz, emakumeek sarrera txikiren bat lortzeari garrantzi handiagoa ematen diete enplegu egonkorra, soldata duina, haien enpresentzako etekinak eta ekonomia autonomia nola lortzen dituztenari baino.

(...) Proiektu horiei ekin genienean pentsatzen genuen emakumeak antolatzekeo tresna onak izango zirela. Ikusi dugu sarrera iraunkorrak eta egokiak ez sortzeaz gain, ez dutela emakumeen antolamendu egonkorra bultzatzen. Laguntza eta trebakuntza, segimendua eta iraunkortasuna badute, horiekin egin daitezkeena da haien auto-estimua indartu eta haien ekoizle edo langile nortasuna sendotu. Diruarekin erlazionatzeko modu berriak eraikitzen, merkatuaren ezaugarriak argitzen, kapitalaren logika aurkitzen lagun diezaiekete. Emakumeei bestelako erronkei aurrera egiteko esperientzia eta ziurtasuna biltzeko aukera emanango dien eskola izan daiteke. Baina ezin diegu eman dezaketena baino gehiago eskatu. Ziur gaude ekoizpen eta zerbitzu proiektu txikiek ezin dituztela emakumeen antolatzekeo jarduera ez eta estatuko erakundeen aurrean egindako eskaerak eta mobilizazioak ere ordezkatu.

(...) Gure esperientziatik ondorioztatzen dugu proiektu txikien ezarpenarekin ez dela emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria konponduko, baliabideak eta botere ekonomikoa eskuratzekeo dagokionez. Milaka proiektu txikirekin, horietatik gehienak ez eraginkorrak eta ez egonkorak direnekin, ez dugu emakumeak estatuko ekonomia garapenean sartzea lortuko, ez eta *pobreen artean pobreenak* bezala aurkezten dituzten estatistiketatik ateratzea ere.

Iturria: Mujeres por la Dignidad y la Vida, 1993.

2.3.3. Eraginkortasunaren ikuspegia

1970eko hamarkadaren erdialdean bistakoa zen munduko ekonomiaren beherakada, bereziki Latinoamerikan eta Afrikan, non atzerapen ekonomikoari esportazio produktuen prezioak jaitea eta kanpo zorra handitzea gehitzen zitzaizkion. Krisiaren eraginari aurre egiteko, geroz eta gobernu gehiagok Nazioarteko Moneta Funtsak (NMF) eta Munduko Bankuak diseinaturiko egonkortze eta doikuntza politikak ezarri zituzten. Politika horiek baliabideen birbanaketa eragin zuten ordainketa balantzaren oreka berrezartzeko, esportazioak handitzeko eta ekonomien hazkundera bultzatzeko.

Nazioarteko finantza agentzien kezka nagusia Hirugarren Munduko zorra kobratzea eta oreka makroekonomikoa lortzea zenez, herrialde behartsuei egindako maileguak ekonomia austeritate, pribatizazio eta liberalizazio programak ezartzeko baldintzapean eman ziren. Programa horien atzean estatuaren kontrola desagitea eta merkatuaren indarrek askatasun handiagoa izatea zirela baliabideak banatzeko eta ekonomia suspertzeko modurik egokienak bultzatzen zuen ideologia neoliberalak zegoen.

Ahalegina ekoizpena eta eraginkortasuna handitzean eta baliabideen banaketaren eraginkortasunean eginez —egituraren egokitzapenerako politiken helburu nagusietan— ez da ustekabekoa *eraginkortasunarena* izatea 1980eko hamarkadaren hasieratik lankidetzak erakundeetan ospe gehien izan duen ikuspegia. Testuinguru horretan sortzen da eta lortzen du bere lekua «eraginkortasunaren ikuspegiak», emakumeak garapenean sartzeko EG estrategiaren hirugarren bertsioak eta eguneratuenak.

Bere analisiak gizarte baten baliabideen erdiak alferrik galtzen direnaren (emakumeak) ondoriozko ekonomiaren ez eraginkortasunean eta ekonomiaren krisi eta egitura egokitzapen garaietan emakumeak garapenean ahaleginen arrakastarako ezinbestekoak direla onartzen du. Bere proposamena diagnostikoarekin koherentea da: emakumeak ekonomian parte hartzeak garapenean ekintzak eraginkorrak izatea egiten ditu eta aldi berean emakume eta gizonen artean baliabide eta aukeren arteko berdintasuna lortzen laguntzen du.

Nazioarteko agentziek eraginkortasunaren ikuspegia hartzeak emakumeek garapenerako duten garrantzia aitortzea islatu zuen. Hala eta guztiz ere, ikuspegi horretan oinarritzen ziren proiektuek emakumeen ekonomiako potentziala erabiltzen zuten moduaren inguruko kritikak azkar azaldu ziren.

Zergatik interesatzen zaizkio emakumeak garapenari?

1980ko hamarkadaren hasieratik GNE (Amerikako Estatu Batuetako garapena laguntzeko bulegoa), Munduko Bankua eta ELGA (Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea) bezalako erakundeek hartu duten ikuspegiaren oinarria da Hegoaldeko emakumeek ekonomian gehiago parte hartzea ezinbestekoa dela garapenerako ahaleginaren eraginkortasunerako eta gainera, automatikoki berdintasun gehiago sortzen duela haiek garapenaren aukera eta baliabideak lortzeari dagokionez. Hala eta guztiz ere, ondorengo aipamenek argi uzten dute erakunde horientzat ekonomiaren eraginkortasuna izan dela beti emakumeekin lan egitearen justifikazio nagusia.

Azken hamar urteetako esperientziak esaten digu emakumeak garapenean kontzeptuaren azpian dagoen ezinbesteko alderdi bat dela, azkenik, ekonomikoa (...) gure interes nagusia da ulertzea garapenaren irismena eta bere emaitzen kalitatea neurri handi batean emakumeek eta neskek ematen duten laguntzaren eta eskuratzen dituzten etekin araberakoa dela (GNE, 1982).

Justizia eta ekitate gaiak alde batera utziz, emakumeek jasaten duten hezkuntza falta neurrigabea, horrek ekoizpen baxuan eta haien familien elikaduran eta osasunean duen eraginak, epe luzera ekonomia kaltetzen duten ondorioak ditu (Munduko Bankua, 1979).

Bi sexuen ekarpenekin bakarrik lortuko dira funtsezko etekinak, emakumeek ezinbesteko funtzioa baitute beren herrialdeen garapenean. Emakumeek ez badute bete-betean garapen prozesuan parte hartzen, ez dira haren helburuak lortuko (ELGA, 1983).

Iturria: Moser, C., 1991.

Moserrek (1991) planteatu zuen emakumezkoen lana erabiltzeari loturiko ustezko eraginkortasuna ordaindutako ekonomiaren (gizarte ekoizpena) kostuak ez ordaindutakora (ugaltzea) lekualdatuz lortzen dela, emakumeek beren ugaltze funtzioekin eta komunitate kudeaketarekin erlazionaturiko jardueretan lan egindako orduak gehitzearen bidez. Horrela bada, sektorerik ahulentzat elikadurarako diru-laguntza selektiboak ematen dituzten askotariko garapen esku-hartzeetan (herri jantokietako programak eta esne edalontzia programa, adibidez) onartzen da auzoetako emakumeak, ama eta komunitateko kudeatzaile gisa, arduratuko direla zerbitzu horiek modu eraginkorren eta dohainik banatzeaz.

Era berean, norberak kudeatzeko osagaiak dituzten etxebizitzak eraikitzeko programetan asko erabiltzen da emakumezkoen lan indarra, pentsatzen delako emakumeak maileguak ordaintzeko garaian gizonak baino fidagarriagoak direla eta norberarentzat eraikitzeko garaian haiek bezain trebeak iza-

teaz gain konpromiso handiagoa azaltzen dutela zerbitzuen mantenua ziurtatzerakoan. Eta hori guztia aipaturiko programetan egindako lanagatik inolako ordainketarik jaso gabe.

Elsonek (1987) ere analizatu zuen egitura egokitzapen politiken eragina eta ondorioztatu zuen haien eraginkortasuna emakumeak kaltetzen dituen «generoko zuloan» oinarritzen zela. Hain zuzen ere, politika horiek ezartzen dituzten estatuak gizarte gastuak murriztu ditzakete hezkuntzan, osasunean, etxebizitzan, garraioetarako diru-laguntzetan eta oinarritzko elikagaietan, jarrera horren eragina emakumeek etxeko lanari denbora gehiago eskaintzearekin amortizatzea espero dutelako.

Politika neoliberalen eraginen aurkako hirugarren kritika UNICEFetik dator, «giza aurpegia» duten egokitzapen politikak diseinatzea exijitzeak Munduko Bankuaren eta NMFaren politiken eraginkortasunaren oinarriari aurka egin zion. UNICEFek babesten du emakumeen kezkak egokitzapen politiken formulazioan sartu behar direla, ahalik eta gehien, eragina gehienbat emakume pobreenengan izatea eragozteko; ekonomiaren erreformak dirauen bitartean sarrera gutxiko biztanleen osasuna eta elikadura babestuko dituen politika konpentsatzaileak ezartzearen alde ere egiten du.

Ikuspegi hori sorburu duten politikek garapenaren baliabideen banaketa eraginkor bat lortzearen alde egiten dute, ordaindu gabeko emakumeen lana erabiliz —Estatuak hornitzez uzten dituen azpiegitura eta zerbitzu kolektiboak komunitateei hornitze aldua— edo emakumeengan zuzenduz giza kapitalaren inbertsioa (hezkuntza, osasuna, maileguak edo trebakuntza teknikoa), emakumeengan inbertitzeak ekartzen dituen «gizarte itzulkin» handiak ikustean beste ekonomia eta gizarte helburu asko lortzeko. Gidaliburu honen 3. kapituluan adierazten diren Munduko Bankuaren genero politikak dira eraginkortasunaren ikuspegiaren azken aldaera horren adibide.

2.4. HEGOALDEKO IKUSPEGIA

1980ko hamarkadan zehar eta EG estrategiak lankidetzak agentzia ofizialetan emakumeen ahots gisa ezartzea lortzen zuen bitartean, nazioarteko mailan beste ahots batzuk ez zetozen bat ez garapenaren bertsio ofizialarekin —neoliberalarekin—, ez eta emakumeak baztertuak daudela eta garapenean sartzeko politika bereziak behar dituztela dioen ikuspegiarekin ere.

2.4.1. Emakumeak eta Garapena ikuspegia (E eta G)

Lehenengo ahots kritikoak feminista marxisten eta estrukturalisten lerroetatik sortu ziren, hala Iparraldekoetatik nola Hegoaldekoetatik. Emakume horiek EG ikuspegiak zalantzan jartzen zituzten bi argudioren inguruan: ikuspegi horiek modernizazio eta egitura egokitzapen prozesuek sortutako emakumeen aurkako diskriminazioak baztertzeko dituztelako, baina ontzat ematen dituztelako —orokorrean— prozesu horiek; eta haiek pentsatzen dutelako ez dela nahikoa emakumeei hezkuntza, enplegua eta sarrerak eskaintzea horiek garapenean gizonen baldintza berdinetan sartzea lortzeko.

Lourdes Beneriak eta Gita Senek, EG politiken lehenengo kritikoetariko bik, 1982an planteatu zuten «Hirugarren Munduko emakumeen arazoak ez direla garapen prozesuan ez sartzeagatik sortzen. Alderantziz, Hirugarren Munduko emakumeen masak oso ondo sartuak daude prozesu horretan, baina hierarkiari eta arazoei loturiko ekoizpen eta metaketa egitura baten beheko mailetan daude».

Horiek bezala, beste emakumezko garapenaren akademiko eta funtzionarioek («Emakumeak eta Garapena» ikuspegiaren ordezkarietat hartzen direnak) adierazten zuten emakumeak inoiz ez zirela ekoizpen egituretatik kanpo egon, barruan baizik, baina itxuraz lan ikusezinetan, gizarte klaseak eta sexuaren araberako lan banaketak zehazturiko prozesuen inguruan.

Haien tesiak defendatzen zuen emakume pobreak zirela kapitalismoak gehien zapaltzen zituenak, momentu hartan bere planteamenduan originalena izan zen «ugaltze» (biologikoa, materiala eta soziala) kontzeptua nola zabaldu zuten azaltzeko emakumeen mendekotasuna etxeko eremuan egindako jardueretan errotzen zela, genero funtzioarengatik egokitzen zitzaizkienetan eta, era berean, pobretasunak areagotzen zituenetan.

Ekoizpen moduetako aldaketak eta generoen arteko desberdinkeriak biltzen zituen analisi bat egin nahi zuten eta horretarako planteatu zuten Hirugarren Munduko emakumeen egoera ulertzeko beharrezkoa dela kapitala pilatzeko prozesuez gain «genero-erlazioak» ere aztertzea, erlazio horien bidez bihurtzen baitira emakumek «baliabide, erantzukizun, ezaugarri eta ahalmen, botere eta pribilegioen banaketan mendeko taldea».

Planteamendu horien babesean, ikerketa eremu berriak sartu zituzten emakumeak eta garapenaren inguruko hausnarketetan. Emakumeek egindako ugaltze eta zaintze lana,

Garapen kapitalistak Hegoaldeko emakumeengan duen eragina

Kapitala metatzearen joerarik indartsuena da ekoizle zuzenak ekoizpen bideetatik banatzea, adibidez, lurretik banatzea, eta aldi berean, bizirauteko baldintzak ezegonkorragoak egiten ditu. Prozesu horrek ondorio kontraesankorrak eduki ditzake emakumeen lanean; ondorengo adibideek adierazten dute emakumeei nola eragiten dieten Hirugarren Munduan kapitalismoa sartzeari loturiko ekoizpen egituraren aldaketek:

- Sexuaren araberako lan banaketa aldatu eta emakumeen lan karga areagotu egiten da.

Ghanan gizonek beren buruak merkataritzako laborantzetan lan egitera edo hiriko eremuetara lan bila emigratzera behartuak ikusi zituzten eta horrek emakumeak bizirauteko nekazaritzako ekoizpenean karga gehiago hartzea behartu zituen. Gainera, lurren jabetza pribatua zenean, nekazari pobreek eta lurrik gabeko jornalariak ezin zituzten komunitateko ur, erregai eta elikagai iturriak erabili eta horrek emakumeak elementu horiek bilatu eta lortzeko denbora gehiago erabili behar izatera bultzatu zituen.

- Emakumeek ekoizpen baliabideen gaineko kontrol eraginkorra galtzen dute, bai eta lan prozesua eta horren produktua ere.

Oaxacan, Mexikon, merkataritza kapitala ehungintzako jardueretan sartzeak emakumeek bere produktuaren salerosketaren gainean zuten kontrola gutxitu zuen. Gainera, laborantza tradizionalak merkaturako kafea ekoiztera aldatzeak eragin zuen emakumeak gehiago zuzentzea urtaroko uztara ehungintzako industriara baino. Ondorioz, baliabide ekonomikoen eta lan prozesuaren kontrola galdu zuten eta nekazaritza ekoizpenean langile marjinalak bihurtu ziren.

- Lanaren banaketa berri bat sortu da eta emakume gazteak soldatapeko langile migratzaileak bihurtu dira.

Emakumeak industrializazio prozesuan garrantzitsuak bihurtzen ari dira Hirugarren Munduko zenbait herrialdetan, kapitalaren beharrak asetzen dituztelako eskulan diziplinatu eta merkeari dagokionez. Emakumeak dira Puerto Rico eta Dominikar Errepublikako merkataritza libreko zonetan lan egiten dutenen %80; bestalde, Malasiako emakume gazteak Singapurrera migratzen ari dira lan intentsiboko industrietan lan egiteko, non sektore horretako langileen %45 diren eta soldata egituraren beheeneko mailetan lan egiten duten.

- Emakumearen gaineko kontrol patriarkaleko modu tradizionalak ahultzen direnean, kapitala metatzeko prozesuak indarturiko kontrol modu berriak sortzen dira.

Mirabe erlazioetatik ekoizpen erlazio kapitalistetara aldatzeak mende erdialdean Cajamarcan (Peru) gizonezkoen kostaldeko sailetarako migrazioa handitzea eragin zuen eta horrek gizonak emakumearen lanarengan zuen kontrola ahuldu zuen eta emakumeari autonomia gehiago eman zion. Baina aldi berean, landako familia askok beren lurak galdu zituzten eta emakumeak soldatapeko gizonen mende gelditu ziren.

Iturria: Benería, L. y Sen, G., 1982.

ahaidetasun egitura eta familia antolamendua, lanaren banaketa etxe barruan eta kanpoan, emakumeek eta gizonen baliabide material eta sinbolikoak lortzeko aukera desberdinak, gai garrantzitsutzat jotzen hasten dira emakumeek gizarte desberdinetan duten lekua eta garapen prozesuek haien bizi baldintzetan duten eragina ulertzeko.

2.4.2. **Boteretzearen estrategia**

Estrategia horrek, bere jatorria 1980ko hamarkadan Hirugarren Munduko emakumeen mugimenduen hausnarketa eta gogoetetan duenak, emakumeen ahalmena eta protagonismoa bultzatzea du elementu nagusi eta hortik dator «emakumeak indartzeko» edo «boteretzeko estrategia deitzea» («empowerment» hitz ingelesaren itzulpen literala).

ELGAREN Garapena Laguntzeko Batzordeak, *Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna: gizakian arreta jartzen duen garapen iraungarriantza* (1988) izenburua zuen agiri garrantzitsuan, emakumearen boteretzea honela definitu du: «aitortzea emakumeak berez gai direla funtzio eraginkor bat betetzeko, eta bete behar dutela, hala indibidualki nola kolektiboki, beren gizarteak eta beren bizitzak zehazten dituzten erabakiak hartzerakoan».

Virginia Vargasek, estrategia hori Latinoamerikan bultzatu zuenetako batek dioen moduan, garrantzitsua da aipatzea ez dela zehazki emakumezkoek garapenean duten parte-hartzearen inguruko ikuspegi bat, «emakumeen gaitasunak eta protagonismoa indartzearen bidez» lortu behar den helburu bat baizik (Guzman y otras, 1991).

Nahiz eta Paulo Freirek garatu zuen hezkuntza herrikoitik datorren, emakumeei loturiko boteretze kontzeptua 1984an sortu zen Indian. DAWN-MUDAR Sareak (Aro Berrirako Ema-

kumeein Garapen Aukerak), urte horretan sortutako Hegoaldeko eta Iparraldeko emakume eta ikertzaile taldeen sare baten, Emakumeei buruzko Munduko Hirugarren Konferentzian (Nairobi, 1985) sartu zuen munduko emakumeen egoera analizatzeaz gain, etorkizuneko gizartearen hautabidearen ikuspegi bat eskaintzeko helburuarekin:

Herrialdeetan edo herrialdeen arteko erlazioetan klasean, generoan edo arrazan oinarritzen den desberdinkeriarik ez dagoen mundu bat nahi dugu. Premiako beharrak oinarritzko eskubideak diren eta pobrezia eta indarkeria modu guztiak desagertu diren mundu bat nahi dugu. Pertsona bakoitzak bere gaitasuna eta sorkuntza garatzeko aukera izango du eta emakumezkoen elikadura eta elkartasun balioak gizon emakumeen arteko erlazioen ezaugarri izango dira (...) Berdintasunaren, garapenaren eta bakearen arteko loturak sakonduz bakarrik azaldu ahal izango dugu pobreen oinarritzko eskubideen eta emakumeak mendeantzen dituzten erakundearen aldaketaren artean dagoen erlazio korapilotsua. Biak emakumeen auto-boteretzearin lor daitezke (Sen y Grown, 1988).

«Boteretzea» emakumeek gutxika ondorengo elementuen kontrola lortzea bezala definitzen da: *a)* baliabide materialak: fisikoak, gizakiarenak edo finantzakoak, ura, lurra, makinak, gorpuzak, lana eta dirua kasu; *b)* baliabide intelektualak: ezaugarriak, informazioa eta ideiak; *c)* ideologia: sineskerak, balioak, jarrerak eta portaerak sortu, zabaldu, defendatu eta instituzionalizatzeko erraztasunak.

Horrek guztiak emakumeek auto-estimua, hezkuntza, informazioa eta eskubideak gehitzea suposatzen du, hau da, boterea irabaztea. Baina estrategia horrek ez du boterea gainerakoak menderatzearen inguruan identifikatzen, emakumeek oinarritzko baliabideen kontrolaren bitartez beren auto-estimua eta indar propioa handitzeko eta aldaketaren norabidean eragiteko duten gaitasuna bezala baizik.

Gainera emakumezkoen mendekotasunaren alderdirik estrategikoenak konpontzeko gobernuaren ekintzen mugaketak aitortzen ditu eta ikuspegi hori defendatzen duten emakumeek azpimarratzen dute beharrezkoa dela emakumeen erakundearen ahalegin jarraitu eta sistematikoa, bizi kalitateari erreferentzi egiten dioten beharretatik hasita, jendea kontzientziazteko eta erabateko aldaketak lortzeko bide gisa.

Emakumeen generoko beharretatik hasiz (proposamen hau ongizatearen ikuspegira hurbiltzen duena), baina generoaren artean dauden desberdintasunak kontuan edukiz (ekitatearenera hurbiltzen duen elementua), boteretzeko estrategiak planteatzen du emakumeek mendekotasuna modu

desberdinean sentitzen dutela arrazaren, klasearen, historia kolonialaren eta beren gizarteek nazioarteko ordena ekonomikoan egun duten egoeraren arabera. Beraz, aditzera ematen du emakumeek maila desberdinetako egitura eta egoera menderatzaileei aurre egin behar dietela eta aldaketarako ezinbesteko indarra direla, ez genero gisa jasaten duten menderotasunari dagokionean bakarrik, bai eta beren gizarteek nazioko autonomiaren, konkista demokratikoen edo ekonomia egituretan aldaketak egotearen aldeko borrokei dagokienean ere.

Estrategia honen balizko izaera desafiatazaileak eragin du nazioarteko lankidetzako agentziek ondo ez ikustea. Beren lanean estrategia hori erabiltzen duten Hirugarren Munduko emakumeen erakunde anitzak azpifinantzatuak daude, emakumeen lan boluntarioari esker mantentzen dira eta Iparraldeko gobernuz kanpoko erakunde gutxi batzuen laguntza besterik ez dute.

Antolamenduaren bitartez boterea lortzea

Hori izan da munduan emakumeen erakunde, mugimendu, sare eta aliantzak animatu dituen helburua. Horiek guztiek gai eta helburu mordo bat biltzen dituzte eta emakumeak botereztearen aldeko interesa banatzen dute, bai eta egitura burokratiko zorrotzak baztertzeko kezka ere, irekiak diren eta hierarkikoak ez direnen alde.

Espereintziak frogatu du erakunderik eraginkorrenak osasun, enplegu eta oinarriko zerbitzuen gaien emakumeen behar praktikoen inguruan sortu zirela, baina horien moduko ardurak erabiltzeko gai izan ziren generoko bestelako interes estrategikoak lortzeko, emakumeek testuinguru sozio-politiko berezietan identifikatzen dituztenak.

- Filipinetan, GABRIELAK (tokiko eta nazioko emakumeen erakundeen aliantza bat) emakumeen tapizak ehuntzeko lan tradizionala eta jarduera ez tradizional bat bateratzen zituen proiektu bat maneiatu zuen, emakumeen legezko eskubideen eta Konstituzioari buruzko eztabaida zen beste jarduera hori. Horrek estatu mailako komunitate, fabrika eta eskoletako eskubideei buruz eztabaidatzea ahalbidetu zuen, azken produktua zen *emakumeen eskubideen tapiza* hartuz liberazio erreminta gisa.
- Bombayko (India) Emakumeak Zapaltzearen aurkako Foroan, 1979an, hasi zen emaztegaiak bortxatu eta erretzeari buruzko eztabaida. Hala eta guztiz ere, sarrera txikiak zizutzen biztanleen %55 legez kanpoko asentamenduetan

- Bombayko (India) Emakumeak Zapaltzearen aurkako Foroan, 1979an, hasi zen emaztegaiak bortxatu eta erretzeari buruzko eztabaida. Hala eta guztiz ere, sarrera txikiak zituzten biztanleen %55 legez kanpoko asentamenduetan bizi zenez, foroa azkar konturatu zen etxebizitzak lehen-tasun handiagoa zuela tokiko emakumeentzat eta gai horretarantz zuzendu zuen ahalegina. Tradizioz emakumeek eskubide propioz etxebizitzak eskuratu ahal ezin zituzten testuinguru batean, senar-emazteak banatzen zirenean edo etxean indarkeria kasuak gertatzen zirenean etxebizitzarik ez edukitzea arazo larria zen. Gai horren inguruan gertatu zen mobilizazioak ere eragin zuen ja-raunspen legedian eta etxebizitza eskubideen interpreta-zioan zegoen zulo patriarkalaren kontzientzia hartzea. Gainera, foroak gobernuz kanpoko erakundeen aliantza bat sartu zuen estatu mailan, gobernua Etxebizitzaren Karta Nazionala onartzera bultzatu zuena, eta horrekin emakumeen etxebizitza beharrak agenda politikoan sar-tzea lortu zuen.
- Bere burua Enplegatu duten Emakumeen Elkarteak (SEWA), Ahmedabaden (India) sortutakoak 1972an, hasiera batean soldata altuagoen alde eta poliziaren zirikatzearen eta bi-tartekarien esplotazioaren aurka borrokatu zuen. Mende-ratzen zuten Ehungintzako Lanaren Elkartearen (TLA) la-guntzarekin, gizonak SEWak banku bat sortu zuen eta sarrera baxuetako emakumeei laguntza eman zien treba-kuntza teknikoko programen, gizarte segurantzako siste-men, ekoizpen kooperatiben eta marketinaren bitartez. Handik gutxira, TLAk SEWA bere erakundetik bota zuen bertako buruak emakumeen geroz eta handiagoa zen au-rrerakadak mehatxatuta sentitzen zirelako eta haien bor-roka metodoak —TLAren konpromiso eta elkarlan politi-ka ez bezala— langileentzat eredu arriskutsua zirelako. SEWA bizirik atera da bere garapenean jasandako hainbat eragozpenetatik, bere kideen eta nazioarteko agentzien kideen laguntzari esker, horrek tokiko politikaren barruan independentzia maila bat edukitzeko aukera eman baitio.

Iturria: Moser, C., 1991.

2.5. GENEROA GARAPENEAN ESTRATEGIA (GG)

1980ko hamarkadaren erdialdetik, eta indar handiagoz hurrengo hamarkadaz geroztik, emakumeek garapenean duten parte-hartzea ulertzeko beste modu bat sortu da. Emakumezko ikertzaileek genero erlazioak eta beste desberdintasun bektore batzuekin artikulatzen diren modua

kontuan hartzea azpimarratzeak, Hegoaldeko erakundeen lanarekin bateratzeak emakumezkoen boteretzearen bila, «Generoa Garapenean» (GG) estrategia izan zuen emaitza, egun nazioarteko erakunde gehienen eta gobernuko nahiz gobernuz kanpoko erakunde gehienen lankidetzeta politikak orientatzen dituen.

2.5.1. 'Emakumeetatik' 'generoko erlazio desberdinetara' pasatzea garapenaren arazo gisa

«Genero» kontzeptua feministek 1970eko hamarkadatik erabiltzen dute gizarteak eraikitzen dituen eta biologikoak ez diren gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak nabarmentzeko. Haien formulaziorik zabalenean, genero honela definitzen da: «kategoria biologiko batean jaio diren indibiduoak, gizonezkoak edo emakumezkoak, gizarteko gizon eta emakume kategoria bihurtzen dituen prozesua, tokian gizonezkoenak eta emakumezkoenak diren ezaugarriak hartuz».

Garapenerako lankidetzaren eremuan, emakumeak arazotzat hartzearen aurkako kritikoak ziren —eta haien egoera gizonen jarrera eta emakumeen egoera sozio-politikoak alde batera utzita analizatzea baztertzen zuten— emakumezko profesionalek eta aktibistek emakumeak garapenean parte hartzeko dituzten oztopoak ulertzeko erabilgarriagoa zen tresna bat ikusi zuten genero kategorian, kontzeptu horrek *erlazio ideia bat* proposatzen duelako «emakume eta gizonen artean eta bere ondorio nagusia da ez bat ez eta bestea ere ezin dela ulertu guztiz banandutako ikerlan batekin, emakumei buruzko informazioa ezinbestez gizoni buruzko informazioa delako».

GG strategiaren ustezko gakoa da «ezer ez dela neutrala generoaren inguruan». Catherine Hasse-k planteatzen duenez, «... Proiektu guztiek, teknikoak direnek ere bai, genero dimentsio bat dute beti gizoni, emakumei edo biei zuzentzen zaizkielako. Horrek adierazten du, emakumeekin edo gizonekin egindako proiektua den alde batera utzita, beti eragingo diola beste generoari. Emakumeen proiektu guztiek gizonen egoerari eragingo diote eta alderantziz. Horregatik proiektuek ezin dute genero neutraltasuna eskatu».

GG ikuspegiak azpimarratzen du emakume eta gizonen nortasunak eta funtzioak sozialki eraikitzen direla eta emakumeek gizartean duten lekua ezin dela gizonen dutenarengandik bereizita ulertu eta generoen arteko erlazioak eta,

Genero dimentsioa eta garapen prozesuak

Sussexeko Unibertsitateko Garapenaren Ikerketetako Institutuko Ann Whitehead izan zen GG estrategia mantentzen duen kontzeptu eta teoria oinarria eman zuenatariko bat. 1978an bere proposamenak honela oinarritu zituen:

- Emakumeei eta garapenari buruzko ikerlanek ezin dute arazoa emakumeak direnaren ikuspegia izan abiapuntu, baizik eta gizon eta emakumeak eta zehazki, gizon eta emakumeen arteko erlazioak.
- Erlazio horiek sozialki eraikiak daude eta ez datoz biologiatik, baina ez dira derrigorrez harmoniatsuak, alderantziz, aurkakoak eta gatazkakoak izan daitezke. Gatazka horiek biologiaren datuak ez direnez, sozialki finkatutako baizik, askotariko formak har ditzakete egoera desberdinetan; askotan gizonezkoengan menderatzailerik eta emakumezkoengan mendekotasun forma hartzen dute. Kasu horretan, emakumeen eta gizonen arteko erlazioak egituratzen dituzten menderatze/mendekotasun forma desberdinak dira analizatu beharrekoak.
- Genero dimentsioa* hartzeak esan nahi du generoen arteko erlazioen eta gizarteko erlazio zabalagoekin dituzten loturen ezaugarri diren formak analizatzea. Esan nahi du nor bere buruari galdetzea zein diren generoen eta pertsonen arteko erlazio ekonomikoen arteko loturak, etxe bereko kide nahiz gizarteko klase desberdinetakoak izan; nola eragiten dieten prozesu ekonomikoek eta lan indarraren ugaltze baldintzek generoen arteko erlazioei.

Iturria: Ostergaard, L., 1991.

bereziki, erlazio horiek emakumeen kalterako nola gertatzen diren analizatzea proposatzen du. Ikuspegi horrek emakume eta gizonen arteko desberdinkeriak eragiten dituzten prozesu eta erakunde sozialak, emakumeak beren lanaren etekinetik nola desjabetzen dituzten, genero bien gaitasun eta jarrera asimetrikoaren balioztapena eta horren guztiaren ondorioz sortzen den baliabideak eta boterea eskuratzeko aukera desberdintasuna analizatzeko aukera ematen du.

Kate Youngen (1993) arabera, «genero erlazioen analisiak izaera holistikoa du, hau da, etxeko nahiz komunitateko mailak hartzen ditu eta estatu eta nazioarteko mailako analisia ere eskatzen du. Eragina duten faktoreak ere biltzen

ditu, klasea, erlijioa eta etnia kasu, bai eta politika, ekonomia eta kultura eremukoak ere, faktore horiek guztiek generoen arteko erlazioak aldatu edo berregituratu, ahuldu edo indartzen dituztelako».

GG estrategia ez da emakumeak munduan nola dauden analizatzeko ingurua soilik; proposamen politiko bat ere bada, genero erlazio ekitatiboak eraikitzearen aldeko konpromisoa eskatzen duelako. Beraz, garapenean —«azpigaruriko gizarteak garaturiko Iparraldean egun dagoen gizarte eredura eramango dituen ekonomia hazkunde jarraituko prozesu gisa ulertua», eta Iparraldeko eredu horren unibertsalizazioa ez da inoiz gertatuko eta ez da desiragarria ere— gailentzen diren kontzeptua eta praktika zalantzan jartzen ditu eta garapen aukera bat errebindikatzen du demokrazia- ren, parte-hartzearen eta berdintasunaren oinarrietan egituratuko den horizontea izango duena.

Aukerakoa, gizon-emakumeena eta iraunkorra den garapen horretan emakumeak ez dira sektore ahul eta pasibo edo baliabide erabilkor gisa ikusten, «aldaketarako eragile aktibo» gisa baizik, eta hortik ondorioztatzen da emakumeak entzuteko beharra hala estrategien eta garapen politiken diseinuan nola proiektuen plangintzan, kudeaketan eta balioz- tapenean eta eragiten dieten erabakiak hartzen diren espazioetan sartzeko garaian.

Horregatik, GG strategiak emakumeak boteretzeko prozesuak bultzatzea proposatzen du, baliabide material eta sinbolikoen erabilera eta kontrola lor dezaten, eragin handiagoa eduki eta gizartearen aldaketan parte har dezaten. Emakumeak boteretzeak ondorengoa suposatzen du:

- a) Konturatzea haien mendekotasunaz eta beren burua- rangan duten konfiantza handitzea («botere propioa» hartzea).
- b) Antolamendu autonomia beren biziei eta desio duten garapenari buruz erabakitzeko («-dun boterea» gara- tzea).
- c) Mobilizatzea beren interesak eta mugatzen dituzten eta beren mendekotasuna betikitzen duten erlazio, egitura eta erakundeak identifikatu eta aldatzeko («-eko boterea» erabiltzea).

Latinoamerikako emakume mugimenduek «autonomia» kontzeptua proposatzen dute emakumeen parte-hartze eta boteretze prozesuak analizatzeko tresna erabilgarri gisa. Es- trategia emanzipatzaile gisa ulertuta, emakumeen autono-

EG eta GG estrategien arteko desberdintasun garrantzitsuenak

	Emakumeak Garapenean	Generoa Garapenean
Ikuspegia	Emakumeak dira arazoa, beraiek aldatu behar dute.	Emakume eta gizonen arteko garapena biltzen du.
Gai nagusia	Emakumeen (eta nesken) egoera.	Emakumeen eta gizonen arteko erlazioak.
Arazoa	Emakumeak garapen prozesutik kanpo uztea.	Botere erlazio desberdinak, giza garapen ekitatiboa eta emakumeen parte-hartze osoa geldiarazten dutenak.
Helburua	Garapena eragingarriagoa izatea.	Giza garapen iraunkorra eta ekitatiboa, erabakiak hartzerakoan emakumeen eta gizonen parte-hartzearekin.
Konponbidea	Dagoen garapen prozesuan emakumeak sartzea.	<ul style="list-style-type: none"> — Emakumeak eta gutxien lagunduriko sektoreak botere-tzea. — Desberdintasun erlazio guztiak aldatzea.
Estrategiak	<ul style="list-style-type: none"> — Emakumeei zuzenduriko proiektuak. — Proiektu integratuak, emakumeentzat jarduera konkreturen bat dutenak. — Emakumeen produktibitatea edo sarrerak handitzea. — Emakumeen gaitasunak handitzea, etxea zaintzeko edo komunitateari doako zerbitzuak eskaintzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> — Emakumeen eta gizonen behar praktikoak identifikatu eta asetzea, haien bizi baldintzak hobetzeko. — Emakumeen interes estrategikoak identifikatu eta asetzea.
Arazoak Ondorioa	<ul style="list-style-type: none"> — Estrategia honek emakumeen lan karga handitu du, botere ekonomiko handiagorik eskaini gabe. — Emakumeei ez zaie galdetu zein motatako garapena eta integrazioa bilatzen duten. — Gizonen munduan <i>integrazioa</i> dira botere erlazioetan aldaketarik egin gabe. 	<ul style="list-style-type: none"> — Esku-hartzeak emakume eta gizonen beren gizarteetan dituzten funtzioetan, erantzukizunetan eta boterean oinarritzen dira. — Emakumeek gizonen aldean duten lekua hobetzen saiatzen dira, gizarte osoaren onurarako izan dadin eta gizarte osoa aldatu dadin.

Iturria: De la Cruz, C., 1998.

Garapenaren plangintza egitea genero ikuspegiarekin

Caroline Moserrek, garapenaren plangintzan genero ikuspegia sartzen aitzindari denak, planteatu du garapenaren helburuak generoen artean desberdinkeria sortzen duten faktoreak kentzea eskatzen duela, faktore horiek emakumeei hautabide eta aukera hobekak edukitzea eragozten dietelako, bai eta erabakiak hartzeko instantzia publikoetan parte-hartzea ere.

«Genero ikuspegiarekin plangintza egiteko» oinarritzko abiapuntua da onartzea emakumeei eta gizonek, etxean jarrera desberdina eta baliabideen kontrol desberdina dutenez, gizartean funtzio desberdinak eta aldakorrek betetzeaz gain behar eta interes desberdinak ere izaten dituztela (*).

«Generoko plangintzak» ezaugarri hauek ditu:

— *Ez da prozesu tekniko hutsa, prozesu politikoa ere bada:* generoen artean ekitatea lortzeko baliabideen eta boterearen birbanaketa egitea eskatzen du eta horrek, era berean, interesen negoziaketa egitea. Horrek esan nahi du plangintza negoziaketaren dimentsio politikoa gai nagusitzat duen metodologia batek lagundu behar duela.

Plangintzak ez ditu *behar praktikoak* bakarrik asetzen, maila teorikoan gera daiteke, baina *interes estrategikoen* eremua jorratzen denean —horiek lortzeko genero funtzio tradizionalak aldatzea eskatzen du— maila politikoa lantzea ere beharrezkoa da.

— *Aldaketa prozesuak eskatzen ditu:* generoen arteko ekitatea lortzeko emakumeei eta gizonek eguneroko jardura jarrera eta moduak aldatzea suposatzen du. Prozesu hori egitura izatera duten gizarte aldaketan bitartez egiten da.

— *Gatazka plangintza prozesuaren parte da:* gizarte plural batean askotan gatazkan dauden interes aniztasuna dagoenaren premisa du oinarri.

Plangintzak proiektuari aurre egin behar dio eta ez saihestu, bai eta interesen negoziaketa tartean dauden eragile sozialen arteko berdintasun baldintzan egin dadin oinarriak sortu ere, eta horrek desabantailan dauden gizarteko taldeentzat, emakumeak kasu, boterea sortzeko prozesuak garatzea eskatzen du.

— *... bai eta interesen eztabaida demokratikoa ere:* plangintza prozesuan interes desberdinak dituzten talde askok parte hartzen dutenez, partaidetza laguntzea prozesu horren zati nagusia da.

Plangintzak erantzungo dien interesen definizioak, *aditu* talde batek egingo duenak, ez du eztabaidarako aukerarik ematen eta botere erlazio tradizionalak indartzeko joera du.

Iturria: Proyecto PROEQUIDAD, 1995.

(*) Generoko plangintzak sortutako kontzeptu, marko analitiko eta adierazleak sakonago ezagutzeko, ikus Moser, C. (1995) eta March, C. y otras (1999).

GG estrategiaren ondorioak lankidetzaren politiketan

- Enfasia garapenerako esku-hartzearen oinarritzko ikuspegiaren aldatzetan jarri behar da, ez jardueraren paralelo gehiago egitean.

Emakumeen interesek garapen politika eta estrategien definizioan islatuak geratu behar dute, ondorioztatutako jardueraren guztiek emakume eta gizonen artean aukera eta etekinaren banaketa ekitatiboa bultzatzen eta bien arteko tartea murrizten ditzaten.

- Helburua desberdinkeria desagerraraztea da eta ez emakumeak talde gisa desagerraraztea.

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna garapeneraren helburu bat izanik, emakumeekin egindako berariazko proiektuek helburu hori laguntzen duten ala ez analizatu behar da. Gainera, politika guztiak kontu handiz aztertu behar dira emakume eta gizonen arteko desberdinkerian duten eragina balioztatzen, baliabideak, aukerak eta beren bizitzari buruzko erabakiak hartzen ahalmena lortzeko dagoenaz.

- Garapenerako esku-hartzea erakunde eta politika testuinguruan egin behar da eta ez proiektuetan bakarrik.

Lankidetzaren egiten den herrialdeetako erakundeek ez badiete berdintasun gaiei beren politiketan eta lankidetzaren erakundeetan beren proiektu partikularrekin aurre egiten, beti ekimen bakartuak izango dira eta epe luzean emaitza oso mugatuak izango dituzte.

- Esku-hartzeak emakume eta gizonen arteko desberdintasunen erantzun hutsa baino gehiago izan behar dute eta desberdinkeria murriztean arreta jarri behar dute.

Lankidetzaren erakundeek asko aurreratu dute emakume eta gizonen jardueraren eta behar desberdinak identifikatzen eta desberdintasun horiek esku-hartze estrategietan kontuan hartzen. Beharrezkoa da emakume eta gizonen arteko desberdinkeria murrizteko aukerak identifikatzea eta berdintasun handiagoko erlazioak lortzeko egiten den edozein aurrerapen laguntzea.

- Lankidetzaren arreta gehiago jarri behar da emakumeen erakunde eta sareei eta elkartutako herrialdeetan aldatzea bultzatzen duten indarrei.

Lankidetzaren egiten den herrialdeetako erakundeetan emakumeek oraindik ere nahikoa ordezkaritza ez dutenez, emakumeen erakundeek lankidetzaren erakundearen laguntzatik etekina ateratu ahal izango lukete ikertzeko, presioa egiteko eta interesak defendatzeko beren trebetasunak eta aukerak garatzeko.

- Lankidetzaren estrategiek arreta handiagoa jarri behar diete gizonen erakundearen aurrerapena eta garapena lortzea oztzatzen duten moduari. Ahaleginak genero ekitatearen helburuan gizon gehiago sartzea zuzenduak egon behar dute.

Iturria: Garapenerako Laguntzako Batzordea, 1998.

miak auto-determinaziora eramaten duten prozesuak nahiz botere erlazio sozialak aldatzera jotzen duten jarduera kolektiboak biltzen ditu. Emakumeen autonomiak lau dimentsio bereiztezin biltzen ditu: «autonomia fisikoa», sexualitatearen eta ugalkortasunaren auto-kontrolari erreferentzia eginez; «autonomia ekonomikoa», ekoizpen bideak lortzeko eta kontrolatzeko berdintasunean oinarritzen dena; «autonomia politikoa», oinarritzko eskubide politikoei dagokiena, orientabide eta proposamen bereziak dituzten presio taldeen trebakuntza barne; eta «autonomia soziokulturala», izaera propioa eta auto-estimua sendotzeko gaitasunean sartzen dena.

Laburbilduz, Garapena Laguntzeko Batzordeak eta GG estrategia bultzatzen duten beste erakunde batzuk mantentzen duten moduan:

- Arazoa ez da emakumeak garapenean sartzea edo hezkuntza, mailegu edo baliabide falta, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria sortzen duten prozesu eta erakunde sozialak baizik.
- Emakume eta gizonen arteko desberdinkeriek ez diete emakumeei bakarrik eragiten, garapen osoari ere eragiten diote; beraz, desberdinkeria gizartearen arazo bat bezala hartu behar da eta ez emakumeen gai bat bezala.
- Desberdinkeria horiei aurre egiteko garaian alderdi tekniko eta politikoak eduki behar dira kontuan: gauza ez da dauden prozesu eta programetan emakume gehiago sartzea, programa horiek emakumeen ikuspegiak, interesak eta beharrak islatuko dituztela eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna lagunduko dutela ziurtatzeko erreformak egitea baizik.

2.5.2. Giza Garapena eta Genero Ekitatea

Giza garapenaren ikuspegiak, hazkunde ekonomikoaren esparru estua herrialde baten garapenaren adierazle gisa gainditzeko enfasiarekin, esparru berri bat zabaltzen du garapenaren helburu nagusia berriz aztertzeko. Garapena «pertsonak dituzten aukerak zabaltzea» bezala definitzen badugu, Garapenerako Nazio Batuen Programak (PNUD) «giza garapen» kontzeptuaren hiru oinarritzko osagai adierazten ditu: a) Gizartean pertsona guztientzat aukera berdintasuna; b) Aukera horien iraunkortasuna, belaunaldi batetik hurrengora; eta c) Pertsonak bultzatzea garapen prozesuan parte hartzera eta handik etekina ateratzera.

Herrialdeen egoera eta bilakaera balioztatzeko ikuspegi hori erabiltzeak PNUDK 1990az geroztik argitaratzen dituen informe sorta bat ekarri zuen. Horiek egiteko per capita sarreraren adierazle desberdinak erabiltzen dira, ulertzen duela pertsonen aukerak, funtsean, bizi luze eta osasuntsua, ezaguerak lortzea eta bizi maila duin bat lortzeko beharrezkoak diren baliabideak eskuratzearen arabera direla.

1995ean, Giza Garapenari buruzko Txostenak emakumeen egoera gehitu zion bere analisi gai nagusiari eta horretarako Emakumearekin Erlazionaturiko Garapen Indizea (EGI) —emakume eta gizonen artean zegoen desberdinkeria neurtzeko, bai eta bietan beren aukeretan aurrera egiten zuten batez bestekoa ere— eta Emakumea Bultzatzeko Indizea (EBI) —erabaki politikoak hartzerakoan dagoen emakumeen parte-hartzeari, dituzten lan aukerak eta sarrerak lortzeko ahalmenari erreferentzia egiten diona— sortu zituen. Oraindik ere indize horiek ondorengo txostenetan sartzen dira bere bilakaera neurtzeko; beren izendapena aldatu egin da genero terminoa sartzeko eta egun GGI eta GBI dira hurrenez hurren.

«Giza garapena bidegabea eta diskriminatzailea dela emakume gehienak beren etekinetatik kanpo uzten dituztelako eta emakumeak aukera ekonomiko eta politiko askotan kanpoan uzteak aurrerabide modernoaren aurkako akusazio autoak behin eta berriz egitea ekartzen duela» dioen gogoe-ta abiapuntu hartuta, PNUDK planteatzen du gizon eta emakumeen arteko desberdinkeria ez dela sarreraren mailaren, ideologia politikoaren, kulturen edo herrialdeen garapen mailaren arabera, eta aldi berean adierazten du «kasu askotan, konpromiso politiko sendo batek bultzatu dituela emakumearen giza garapena hobetzera zuzenduriko ekintzak, nahiz eta baliabide askorik ez eduki» (Giza Garapenerako buruzko Txostena, 1995).

Idoye Zabalek (1999) adierazten duen moduan, giza garapenaren ikuspegiak irekitako esparrua aurrekoak baino onuragarriagoa da agenda feminista bat planteatzeko, garapenaren helburu eta eginkizunei dagokienez. Nahiz eta egia izan erdigunea gizakia dela, zaintzea eta mantentzea (egun-go genero erlazioetan emakumei egokitutako ugaltze lanak) ere hala dira, ondorioz, «garapenak lan hori balioztatu behar du eta egiten dutenei beharrezko baliabideak eskaini behar dizkie, egun gertatzen dena ez gertatzeko, emakumeak ez zigortzeko».

«Genero ekitate» kategoria oso baliagarria da eremu diskurtsibo berri horretan. Emakumeek eta gizonen gizariek

balioztatzen dituen ondasun, aukera, baliabide eta ordainsarrietan baldintza berdinak edukitzeko beharrari erreferentzia egiten dionez, argi uzten du askotan emakumeei baldintza berdinak edukitzea eragozten dieten oztopoak kentzera zuzentzen diren ekintza bereziak jarri behar direla martxan.

Gizon eta emakumeen artean dauden desberdintasun eta desberdinkeriak kontuan hartzeko beharrak «berdintasunerako desberdintasun politikak» edo «ekintza positiboko politikak» azaltzea eragin du, desberdinak direnak desberdin tratatzen dituztenak bi kolektiboen arteko ekonomia, kultura, gizarte eta politika tartekak murrizteko helburuarekin. ekintza positiboko politikak urrunago joaten dira eta praktika sozialen —batzutan neutralak diruditenen— eta gizartearen genero sistemaren ondorio diren diskriminazioei aurka egiteko behin-behineko neurriak planteatzen dira.

Genero ekitatea, giza garapenaren arazo larria

Emakumeen eta gizonen egoeraren berdintasunerantz aurrera egitea ez da helburu teknokratiko bat, prozesu politiko bat baizik. Prozesu horrek pentsamolde berri bat eskatzen du, emakume eta gizonen estereotipoa pertsona guztiak, edozein delarik ere bere sexua, aldaketarako ezinbesteko eragileak direla pentsatzen duen filosofia batek ordezkatu behar du. Ondorioz, beharrezkoa da giza garapenaren paradigma guztiz berri bat sortzea, gizakia bere kezken erdian jarriko duena. Horretarako edozein saiakerak guxtienez hiru printzipio hauek bildu beharko lituzke:

- Beharrezkoa da oinarrizko printzipio gisa hartzea emakume eta gizonen arteko eskubide-berdintasuna. Indibidualizatu eta kendu egin beharko lirатеke, erreforma politiko osoen bitartez eta «informazio ekintza» gogor baten bidez, eskubide berdintasuna erabiltzea eragozten duten lege, ekonomia, politika edo kultura oztopo guztiak.
- Beharrezkoa da emakumeak aldaketaren eragile eta onuradun gisa hartzea. Emakumeen gaitasunean eta horiek bultzatzean haiek beren aukerak erabili ahal izateko egingdako inbertsioak bere horretan balio handiko helburua izateaz gain, hazkunde ekonomikoari eta garapen orokorrari ekarpenak egiteko modurik seguruena ere badira.
- Hortik sortzen den garapen ereduak, nahiz eta emakumeen nahiz gizonen aukerak zabaltzera zuzen daitekeen, ez luke kultura eta gizarte desberdinek aukera horiek erabili behar dituzten modua aurretik zehaztu behar.

Iturria: PNUD, 1995.

2.5.3. Generoko 'Mainstreaming'-a

Genero ekitatea lortzearekin oso erlazionaturik, «gender mainstreaming» deituriko proposamenak emakumeek garapenaren plangintzaren eta nazioarteko lankidetzaren erakundeen mailan dituzten iritziek jasaten duten marjinalizazio politiko iraunkorrari aurre egiteko helburua aipatzen du.

«Generoko mainstreaminga» («integratzea», «gizarteratzea» edo «genero ikuspegia zeharkatzea» ere deiturikoa) honela definitu da: «prozesu politikoen antolaketa (edo berrantolaketa), hobekuntza, garapena eta balioztapena, genero berdintasun eta ekitate ikuspegi bat sar dezaten politika guztietan, maila guztietan eta atal guztietan, normalean neurri politikoak hartzeko prozesuan parte hartzen duten eragileek» Europako Kontseilua, 1998.

Proposamen hori lehenengoz Nairobiko Biltzarrean egin zen eta biltzar horretako erabakiek ezartzen zuten Nazio Batuek praktikan jartzea emakumeen berdintasunari buruzko politika bat eta adierazpenak, helburuak, programak eta bestelako agiri politiko garrantzitsuak epe ertainerako planetan sartzea. Beijingeko Biltzarrean Munduko Ekintza Plataformak generoko mainstreaminga berariaz onartu zuen eta adierazi zuen «governuek eta bestelako eragileek generoko mainstreamingaren politika aktibo eta ikusgaia sustatu beharko luketela beren politika eta programa guztietan, erabakiak hartu baino lehen, emakume eta gizonengan, hurrenez hurren, izango dituzten ondorioen analisia egin dadin».

Europa mailan, generoko mainstreaminga Europako Batzordeko emakume eta gizonen Aukera berdintasunari buruzko Hirugarren Komunitateko Ekintza Programan (1991-1995) aipatu zen eta gai nagusia izatera iritsi zen laugarren Ekintza Programan. 1996an Batzordeak generoko mainstreamingari buruzko komunikatu bat onartu zuen eta ezartzen zuen komunikatu horrek inplikatzeko zuela «neurri eta politika orokor eta bereziak mobilizatzea modu aktibo eta irekian gizon eta emakumeen egoeran izango dituzten ondorio posibleen plangintza egiteko etapen kontuan izanik berdintasuna lortzeko helburuarekin (genero ikuspegia)».

Genero ikuspegia erakundeen praktiketan sartu, gizarteratu edo zeharkatzeko erakunde baten dinamikaren hiru mailatan aldi berean jardun behar da:

- a) Eduki maila, erakundeen politika eta helburuei dagokienez, erakunde publikoen berariazko esku-hartzeen edukiak zehazten ditu.
- b) Egitura maila, erakundeak zuzentzen dituzten prozedura eta mekanismoekin erlazionaturik dago eta hauek biltzen ditu: antolamendu egitura, arauak eta ildoak, langileen trebakuntza, kontratazio irizpideak eta erakunde batek bere funtzioetan generoen ekitateari aurre egiteko duen ahalmena nola indartzen duen zehazten duten gainerako mekanismoak.
- c) Kultura maila, erakundeak bere gain harturiko balioei eta erakundeko kideen jarrerei buruzkoa, genero desberdintasunei dagokienez.

Baina, batez ere, genero ikuspegia sartzek erakundeen lan metodoetan aldaketak egitea suposatzen du, eremu guztietan eta maila guztietan. Politika guztien azalpenak «genero analisi» batekin hasi beharko luke, industriako, nekazaritzako edo garraioko programa ekonomikoak nahiz emakumeen eremu tradizionalak izan, ama-haurren osasuna edo eskala txiki-ko artisautzen ekoizpena kasu.

Generoko mainstreamingak ezin ditu emakumeek gizarte batean dituzten arazoak konpontzera zuzenduriko politikak, aukera berdintasun edo ekintza positiboko politikak, ez ordezkatu ez eta errepikatu ere. Baieztatzen denean genero ikuspegia sartzek genero ekitatea lortzeko estrategia berria dela, azpimarratu behar da ez dituela emakumeei zuzenduriko politikak ordezkatzeko, osatu baizik. Bi estrategia desberdin dira eta paraleloan joan behar dute, estrategia bikoitz bat osatuz gutxienez gizarte osoan genero ekitatearen inguruan benetako kultura eta adostasun bat egon arte.

Berariaz emakumeei zuzenduriko politikak oraindik ere egokiak dira jarraian datozenetatik ondorioztatzen diren emakumeen beharretara zuzentzen direnean: *a)* haien ugaltze ezaugarriak edo ezaugarri fisikoak, amatasunarekin erlazionaturiko heriotza tasa kasu; *b)* osasunean edo hezkuntzan emakumezkoen sektoreak jasaten dituen ga-bezien pilaketa; *c)* ordaindutako lana zein baldintzetan egiten duten: ekoizpen baxua duten, gaizki ordainduta dauden eta sexuen arabera soldata eta lanetan diskriminazio egitura duten jardueretan pilatzea; eta *d)* erakunde propioak indartzea.

Berdintasun politikak generoen arteko desberdinkeria onduko diren emakumeen arazoak eta beharrak asetzera

zuzentzen dira eta eremu konkretuetan eragiten dute eta azkartasun handiz, gainera; generoko mainstreamingak, aldiz, berariazko politika horiek badaudena du abiapuntu eta panoramari politikak egiteko prozesuaren berrantolaketa bat gehitzen dio, parte hartzen duten eragileek genero ikuspegia kontuan eduki dezaten. Estrategia horrek aplikatzeko denbora gehiago behar du baina berdintasun politikek baino aldatzeko indar handiagoa du.

3

Emakumeen garapenerako lankidetzarako politika eta mekanismoak

Nahiz eta emakumeei zuzenduriko nazioarteko lankidetzak jarduerak aurreko kapituluan aipaturiko ikusmolde eta ikuspegietan oinarrituak egon diren, politikak diseinatzearen eta garapenerako laguntzak kudeatzearen ardura izan duten eragileak izan dira (finantza erakundeak, alde askotako agintziak, gobernu-erakundeak eta gobernu kanpoko erakundeak) planteamendu asko jarraibide pragmatiko, erakunde mekanismo eta baliabide bihurtu dituztenak.

1970eko hamarkadaz geroztik aho batez onartzen da eremu horietan emakumeek garapenean duten ezinbesteko lekua eta horrek emakumeak lankidetzan gehiago ikustea ekarri du. Ikerlan ugari adierazi du emakumeek politikan eta programetan gehiago parte hartzeko helburua lortzeko joera, bai eta garapenean plangintza egiten dutenek generoko funtzioei eta erlazioei arreta handiagoa jartzen diotela ere.

Hala eta guztiz ere, emakumeei, batez ere pobrenei, zuzenduriko proiektu asko egin diren hiru hamarkada ondoren, ikerlan askok azaltzen dute ere Hegoaldeko emakume gehienek bizi eta lan baldintzak ez direla hobetu. Kasu askotan, haiek garapenean sartzea herrialdeko emakumezkoen baliabideak modu eraginkorragoan esplotatzeko erabili da, ekonomia, gizarte eta politika sistema bidegabean inguruan.

Hainbeste proiektu emakume pobreei zuzenduak... eta zer?

Agro Action (Deutsche Welthungerhilfe) Alemaniako GGKEak adierazi zuen, 1996an argitaratutako erakunde politikako agiri batean, Hegoaldeko emakumeek aurreko hamarkadetan bizi baldintzetan kalte nabarmenak jasan zituztela eta horretarako ematen zituen arrazoiak hauek ziren:

- Prozesu makroekonomikoek lankidetzan esku-hartzeak baino eragin handiagoa dute emakumeen biziengan. Handitzen ari den kanpo zorraren eta egitura egokitzapen politiken ondorio negatiboak bereziki emakumeei eragiten diete.
- Sektore modernoetako bereziki emakumeenak izan diren gunetan soldata baxuek eta lan baldintza miserableek emakumeen lan karga eta haien baztertzea areagotzen dute.
- Bizirauteko nekazaritzaren garrantzia ez da behar hainbeste kontuan hartzen esportaziora zuzenduriko estatuetako ekonomian.
- Estatistikek ez dute behar bezala biltzen emakumeek etxean, haurrak, adineko pertsonak eta gaixoak zaintzen egiten duten lana, eta sektore informalean eta estatuko ekonomian duten eragina ere ez da kontabilizatzen.
- Emakumeak oraindik ez daude behar bezala ordezkatuak erabakiak hartzen diren egitura eta mailetan.
- Emakumeak garapenean hezkuntza, osasun zerbitzuak eta ordaindutako lana lortzearen bidez sartzen dituen estrategiak emakumeen aurrerapeneko alderdi bakarra laguntzen du, baina ez die haien estrategia interesari arreta jarri eta haien boteretzea lortzearen helburua kontuan hartu ere.
- Iparraldeko eta Hegoaldeko garapena laguntzeko erakunde askok egindako emakumeen aldeko jardueren edukiak eta zabaltasuna arbitrarioak eta zorizkoak dira genero ikuspegia ez dagoelako instituzionalizatua bere ildo programatikoetan ez eta bere antolamendu kulturaren ere.
- Emakumeek garapenean duten funtzioak hiru hamarkadetan arduratu ondoren, genero ikuspegia oraindik ere ez da lankidetzan guztiz sartu. Garapenerako erakundeek emakumeen desabantaileri aurre egitera zuzenduriko jarduerak oraindik ere apendizetako marjinalizat dituzte. Emakumeekin edo generoarekin erlazionaturiko gaiak adituen eskumenekoak izaten jarraitzen dute.
- Askotan onartu da, eta oraindik ere hala egiten da, garapenean onurak gizon eta emakumeei berdinduz banatuak. Hala eta guztiz ere, eragindako sektoreen parte-hartze ezagatik eta generoko funtzioak behar hainbeste kontuan ez hartzeagatik, garapen prozesuak emakumeek gizonen aldean duten egoera okertu egin du.

Iturria: German Agro Action, 1996.

3.1. EMAKUMEAK ALDE ASKOTAKO LANKIDETZAN

3.1.1. Nazio Batuak eta emakumeen garapena

Azken lau hamarkadetan alde askotako lankidetzan gertatutako aldaketak, emakumeen aurrerapen mekanismo eta baliabideei dagokienez, egiaztatu daitezke garapen agentziarik handiena den Nazio Batuen Erakundearen (NBE) adierazpen politikoen eta erakundeen egituren bilakaera ikusiz.

1960ko hamarkadaren hasieratik, erakunde horrek *garapenaren hamarkadarako* proposamen bakoitzean parte hartu du hurrengo urteetarako bere lehentasunak izango zirenak laburtzen zituen adierazpen batekin. Lehenengo Garapenaren Hamarkadaren berri eman zuen adierazpenak ez zien berriaz emakumeei erreferentziarik egiten. Bigarren Hamarkadarako estrategiaren agirian «emakumeak garapenaren ahalegin guztietan sartzea» bultzatzearen garrantziari aipamen labur bat egiten zitzaion.

Emakumeen paperaren kontzientzia berri hori zabaldu egin zen 1980ko hamarkadan, emakumeek «sektore guztietan eta garapen prozesuaren maila guztietan eragileak eta onuradunak» izan behar zutela adierazi zenean. 1990eko hamarkadarako, Nazio Batuek azpimarratu dute «zeregina dela emakumeen arazoak gehiago ulertzea garapenaren lehentasun gisa... (ulertuz) haien boteretzeak garapenari medede handia egingo diola, emaitza hobeei, ekitate handiagori eta gizartearen aurrerapenari dagokionez».

Kontzientzia berri horren premia ere ikus daiteke NBEaren egitura antolamenduan egindako aldaketak kontuan hartuta. Lehen urteetan emakumeen gaiak giza eskubide gaiak bezala ikusten ziren eta, oro har, Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordean eta Batzar Nagusiaren Hirugarren Batzordean sartzen ziren, horrek jorratzen baitzituen gizarte gaiak eta gai humanitarioak.

Hala eta guztiz ere, 1980ko hamarkadaren amaierarako NBEaren organigraman hainbat erakunde arduratzen ziren emakumeak garapenerako ahaleginetan egoteaz: Emakumeentzako Dibisioa, Garapenerako Programan (PNUD); Emakumearentzako Garapen Fondoa (UNIFEM); Emakumeen Bazterkeria Desagerrarazteko Legezko Batzordea, bai eta EG unitateak Nazio Batuen sistema osatzen duten hainbat erakundetan.

Hurbileko aurrekaria du Batzar Nagusiak onartu izana, 1967an, *Emakumeen Diskriminazioa Kentzeari buruzko De-*

klarazioa —beste gauza batzuen artean emakumeek ekonomian gehiago parte hartzea defendatzen zuen haiek garapenean sartzea bermatzeko—, bi faktorek zehaztu zituzten Nazio Batuen emakumeek munduan jasaten duten egoeraren inguruko kezkek: feminismoaren eta Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen 1970eko hamarkadako mugimenduen garapen indartsuak eta biztanleriaren hazkundearen eta elikadura arazoaren inguruko nazioarteko alarmak.

Lehenengo faktoreak nazioarteko garapen programen profesionalek emakumeek garapen politikan jasaten duten bazterkeria zalantzan jartzea eta emakumeek aurrerapeneko ekintzetan eta etekinetan gehiago parte hartzea eskatzea ekarri zuen; bigarrenak emakumeen zenbait arazok 1973ko Elikadurari (Erroma) eta 1974ko Biztanleriari (Bukarest) buruzko Munduko Biltzarretan leku garrantzitsua edukitzea ahalbidetu zuen.

Emakumeek dituzten biztanleriarekin, elikagaien ekoizpenarekin, prozesatzearekin eta merkataltzeararekin eta familiako elikadurarekin erlazionaturiko funtzioak, berariaz errekonozitzeak bi biltzarrak bultzatu zituen gobernuari gomendatzera emakumeen parte-hartze aktiboa sustatzeko haien interesak kontuan hartzen zituzten politikan, elikagaien ekoizpenaren eta elikaduraren inguruan erabakiak hartzean eta hezkuntzaren eta trebakuntzaren inguruan gizonen berdintasun egoeran. Modu horretan, emakumeen arazo batzuk Nazio Batuen garapenari buruzko kezken agendaren parte izatera pasatu ziren.

Gobernu barruan diziplina arteko eta sektore askotako *makinarria* ezartzea, estatuko batzordeak, emakumeen bulegoak eta administrazioeko beste erakunde batzuk kasu, langileria eta aurrekontu egokiekin, trantsizio neurri eraginkorra izan daiteke emakumeentzat aukera berdintasuna eta emakumeak estatuko bizitzan guztiz sartzeko lortzeko. Emakumeek eta gizonek, sektore publikoan politikako erabakiak hartu eta ezartzearen arduradun diren gizarteko talde guztietako ordezkariak izan beharko luke erakunde horietako kide,.

Iturria: Naciones Unidas, 1976.

Bestalde, 1962an NBEk jada beharrezkotzat jo zuen zegoen herrialdeetan emakumeen egoera hobetzeko gomendioak egiteko estatuko batzordeak egotea. Orduetik aurrera, eta indar

handiagoarekin Emakumearen Hamarkadan (1976-1985), NBEk bere arreta estatu mailan erakunde mekanismoak sustatzean jarri zuten (emakumeari zuzenduriko institutu edo ministerioak, estuko egituren inguruan) emakumeen garapenerako estrategiak eraginkorrak egin zitzen.

Ia hiru hamarkadetan zehar, Nazio Batuek funtzio garrantzitsua bete dute emakumeek munduan jasaten dituzten desabantailen salaketan eta dokumentazio, estatistika eta txosten ugari sortu dute emakumeen egoerari buruz. Propaganda eta ideologia funtzio garrantzitsua ere bete dute, emakumeen erakundeen errebindikazioei ikuspena eta legitimitatea emanez eta genero irizpideak nazioarteko mailako programa eta proiektu askotan sartzea lagunduz.

Nahiz eta 1990 bitarte Nazio Batuetako erakundeen proiektuetarako aurrekontuaren %4 baino gutxiago zen emakumeentzat (guztizko aurrekontuaren %2 ematen zitzaizen zuzenean emakumeen proiektuei)⁴; nahiz eta Estatu kideen arteko adostasunaren mugetan kokatzen den eta gobernuei bere hitzarmenak betearazteko mekanismorik ez duen —horrek Nazio Batuen ekintzen eraginkortasuna zalantzan jartzen du—, egia da ere askotariko konbentzio, erabaki, proposamen, agiri eta plataformek legitimatutako eremu pragmatikoak sortu dituztela eta horietan oinarrituko dira gobernuei jarraibideak eta gomendioak planteatzeko, horrela horiek beren erakunde makinan indartu eta emakumeen egoera hobetzera zuzenduriko politikak ezar ditzaten.

Bereziki garrantzitsuak izan dira lehenengo EG ikuspegia (Emakumeak Garapenean) eta ondoren genero analisia sartzeko ahaleginak, hala bere erakundeen mandatu eta programetan nola bere erakunde funtzionamenduan: prozeduretan, jarraibideetan, trebakuntzan eta antolamendu egituren. «Genero gaiak garapenaren dimentsio guztietan sartzeko» estrategiak mundu osoko gobernu eta gobernuz kanpoko erakundeek jarraibideak eman dizkie genero ikuspegia beren politika eta programetan sartzeko.

Nazio Batuetako erakunde batzuen —bereziki UNICEF, PNUD, LANE, FNUAP eta OME— emakumeen munduko aurrerapenaren aldeko ekintza partikularrez gain, NBERi eman behar zaio Emakumei buruzko Munduko lau Konferentzia egiteko baldintzak sortu izanaren eta emakumeen

⁴ STAUD, K. (1990), «Gender politics in bureaucracy: theoretical issues in comparative perspective», *Women-en, International Development and Politics*. Filadelfia.

nazioarteko mugimenduek 1990eko hamarkadan egindako gainerako Munduko Konferentzia eta Gailurretan parte hartzea lagundu izanaren meritua.

3.1.2. **Munduko Biltzar eta Gailurrak: adierazpenetatik konpromisoetara**⁵

Nazio Batuek 1975. urtea Emakumeen Nazioarteko Urtea izendatu zutenetik 1995ean Munduko Laugarren Konferentzia ospatu zen arte, Nazio Batuek eta munduko emakume mugimenduek bi hamarkada pasatu dituzte lan handia eginez, *Emakumeentzat Berdintasuna, Garapena eta Bakea* lortzeko helburu hirukoitzarekin, adierazpen hutsa baino zerbait gehiago den proposamen bat lortzeko.

Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeen helburuen laburpen bat izanik, hiru helburu horiek sakon antolatu ziren Emakumeei buruzko Munduko Lehen Konferentziako (Mexiko, 1975) adierazpen ofizialetan:

Garapenak esan nahi du emakumeek bizitzaren alderdi guztietan hobera eta aurrera egitea: ekonomikoan, politikoan, gizarte-koan eta kulturakoan. Era berean, garapenak planetako baliabideak herrialdeen eta pertsonen artean modu justuagoan eta berdinoan banatzea ezartzera zuzenduriko munduko mugimendu batean sartua egon behar du. Eta bakea ez da iraunkorra izango berdintasunik gabe, maila guztietako desberdinkeriak desagerrarazi gabe: gizon eta emakumeen artekoak, herrialde bakoitzeko aberats eta pobreen artekoak, eta herrialde desberdinen artekoak.

Konferentzia horretan onarturiko Munduko Ekintza Plana izan zen izaera ofizial eta nazioartekoa zuen lehenengo agiri osasunaren eta hezkuntzaren, etxeko lanaren eta enpleguaren, familiako plangintzaren eta politikako parte-hartzearen inguruko emakumeen arazo espezifikoei buruzkoa. Gainera, konferentzian emakumeen aurrerapenera zuzenduriko jarduerak instituzionalizatzeko garrantzitsuak ziren erabaki batzuk hartu zituzten:

—1976-1985 bitarteko epealdia ezartzea Emakumeen Hamarkada gisa, nazioarteko komunitateari gogorarazteko emakumeak existitzen direla eta mendeko egoera jasaten dutela eta desagerrarazi egin behar dela baliabide publikoak haien garapena lagunduko duten jardueretara zuzenduz.

⁵ Emakumeei buruzko Munduko lau Konferentzien garapenaren eta ondorioen azterketa sakonerako ikus Hernández y Rodríguez (1996).

- Emakumearen Sustapenerako Ikerketa eta Gaikuntzarako Institutua (INSTRAW) sortzea, Nazio Batuen eremuan estatutu autonomoarekin.
- Emakumeei laguntza finantzarioa eta teknikoa emateaz arduratzen den Emakumeen Sustapenerako Funtsa Boluntarioa (UNIFEM) antolatzea. 1978an martxan jarri zenetik 1995 arte, funtsak mota anitzetako 300 proiekturi diru-laguntzak eman zizkien eta proiektu horiek elikagaien ekoizpena hobetzetik eta txandakako maileguetatik, emakumeek plangintza teknikak ikasteraino joaten ziren.

**Munduko Ekintza Planaren helburuak
Emakumeei buruzko Lehenengo Munduko Konferentzia,
Mexiko 1975**

- Emakumeen alfabetatze eta hiriko hezkuntza tasak handitzea.
- Nekazaritza eta industriako teknika eta bokaziozko hezkuntza zabaltzea.
- Hezkuntza maila guztietan sartzeko berdintasuna bermatzea eta lehen mailako derrigorrezko hezkuntza.
- Enplegu aukerak ugartzea; langabezi tasa eta enplegu gai eta baldintzetako berezikeria murriztea.
- Sufragiorako eta hautaketarako berdintasuna.
- Emakumeek gehiago parte hartzea tokiko, estatuko eta nazioarteko kargu politikoetan.
- Ongizate zerbitzuak zabaltzea osasun hezkuntzarako, saneamendurako, elikadurarako eta famili plangintzako hezkuntzarako.
- Parekotasuna hiriko eskubide sozial eta politikoak erabiltzerakoan.
- Emakumeek etxean, etxeko ekoizpenean, merkataltzean eta ez ordainduriko gainerako jardueretan egindako lanaren balioa aintzatestea.

Iturria: Hernández y Rodríguez, 1996.

Emakumeei buruzko Munduko Bigarren Konferentziak (Kopenhage, 1980) gobernuen egikaritzea balioztatu eta Ekintza Programa bat adostu zuen Emakumeen Hamarkadaren bigarren erdirako eta lehentasuna izan zuten gaiak emaku-

meen osasuna, hezkuntza eta enplegua izan ziren. NBEk egoera haren inguruan egindako balioztapenean emakumeek munduan duten egoera larria adierazten zen, baieztatu zuelako «nahiz eta emakumeak biztanleriaren %50 diren eta munduan lan egiten diren orduen ia bi heren egiten dituzten, munduko sarreren hamarren eskas bat jasotzen dutela eta planetan landutako lurraren %1 baino gutxiagoren jabe direla».

Emakumeen Hamarkada Munduko Hirugarren Konferentziarekin (Nairobi, 1985) amaitu zen. Bere lorpenik handiena izan zen nahikoa analisi eman zituela ulertzeko, modu osoan eta bateratuan, emakumeek garapenean funtsezkoak diren alderdi guztietan duten eragina, emakumezkoen arazoaren sektoreko ikuspegia gaindituz.

Konferentziak emakumeen egoeraren aurrerapenari buruzko analisi xehea (120 gobernuri bidalitako galdeketa batean oinarrituz egindakoa) eta haiek garapenean zuten paperari buruzko txosten bat ezagutu zituen. Agiri bietatik ondorioztatzen hamarkadaren helburuak lortzea oso urrun zegoela, beste arrazoen artean, emakumeen bizi eta lan baldintzetan garapen osoko prozesuek zuten eragina zela-eta. Bereziki azpimarratu zirenak hauek izan ziren:

- Hartutako esperientziak benetan zalantzan jartzen du oso zabaldua dagoen eta hazkunde ekonomikoak automatikoki emakumei mesede egiten diela dioen ideia;
- Ekonomiaren krisia eta nazioarteko ekonomiaren ordena Hegoaldean eta Iparraldean emakumeen estatusa hobetzeko oinarrizko oztupoak dira;
- Munduko egoera ekonomikoa okertzeak, zorraren krisiak eta egitura egokitzapeneko politikak inposatzeak garapen bidean dauden gizarteetako sektorerik ahulenei eragin diete bereziki eta, batez ere emakumei;
- Inperialismoa, kolonialismoa, atzerriko okupazioa eta menderatzea, arrazakeria, Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko desberdintasunak gehitzea eta nazioarteko ekonomia erlazioak oinarri justu eta demokratiko batean berregituratzeko garatutako zenbait herrialderen borondate politiko falta dira garapenerako oztupoak.
- Emakumeak formulazio politikoetatik eta erabakiak hartzeko prozesuetatik kanpo uztea eragozpen larria da ez emakumeek beren lehentasunak eta interesak gailentzeko eta beren egoera hobetzeko bakarrik, bai eta beraiek garapena modu eraginkorragoan laguntzeko ere.

Emakumeen Aurrerapenerako Nairobiko estrategiak

Ardura eremuak	Estrategiak	Neurriak
Berdintasuna	Gizonekin boterea partekatzea baldintza berdintasunean.	<ul style="list-style-type: none"> — Konstituzionalak eta juridikoak. — Berdintasuna gizarteko eta politikako parte-hartzean.
Garapena	<p>Emakumeak garapeneko prozesuan sartzea, modu eraginkorrean parte hartzea eragozten dieten oztopoak kenduz.</p> <p>Helburu hori maila eta sektore guztietan instituzionalizatzea eta esku-hartze maila guztietan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> — Mekanismoak ezartzea eta baliabideak emakumeen parte-hartzea maila guztietan sustatzera zuzentzea. — Ekintza maila konkretuak: Hezkuntza, Enplegua, Osasuna, Elikadura, Ura, Nekazaritza, Industria, Energia, Merkataritza eta Zerbitzuak, Zientzia eta teknologia,... Etxebizitza, Garraioa, Ingurumena eta Gizarte Zerbitzuak.
Bakea	Emakumeei bakea sustatzea eragozten dieten oztopoak kentzea.	<ul style="list-style-type: none"> — Emakumeek bakearen aldeko ahaleginetan parte-hartzea laguntzea. — Bakerako hezkuntza.

Iturria: Hernández y Rodríguez, 1996.

Emakumeen Hamarkadako lorpenak mugatuak izan diren arren, horren legatu berezi bat izan zen EG ikuspegiak gobernuko erakundeetan eta nazioarteko lankidetzan instituzionalizatzea.

1975 bitarte, Iparraldeko eta Hegoaldeko gobernu gehienek ez zieten emakumeen gaiei norberaren eskubideko gai moduan aurre egin. Munduko Ekintza Planak, urte horretan Mexikon onarturikoak, emakume gaietan kontsulta funtzioetara bakarrik mugatzen ez ziren eta emakumeen aldeko programetan antolatzeke, erabakitzeko eta katalizatzaile funtzioa zuten erakunde mekanismoak ezartzera presatu zituen.

Emaitza izan zen, 1985ean, herrialde gehienek bazutela emakumeekin lan egiten zuen erakunderen bat, eta horietako erdiak hamarkadan zehar sortu ziren. 127 estatu kideetatik, %22 inguruk gizarte gaietako edo gizarte ongizaterako ministerioan kokaturiko emakumeentzako erakundeak zituz-

ten, %16 inguruk ministerio propioetan eta %17 inguruk lehen ministroaren bulegoetan.

Hala eta guztiz ere, erakunde makinaria horrek ez zituen emakumeen itzaropenak asetzen eta NBEk berak adierazten zuen Nairobiri zalantzak zituela eraginkortasunari zegokionez. INSTRAWk 77 herrialdeetako porrotaren inguruan egindako baliotapen batean hori eragiten zuten faktore batzuk identifikatu zituen: langileri eta aurrekontu mugak, emakumezkoen menderatzea legitimatzen zuten jarrerak, ongizatearen ikuspegian arreta jartzen zuten mandatuak, emakumeen proiektu eta departamentuetarako nahikoak ez ziren funtsak eta funtsezko ministerioetan eragiteko baliabide eta denbora falta.

Porrota alde askotako eta alde biko erakundeek aurrekonturik egokitu ezaren ondorio ere bazen. 1980ko hamarkadaren erdialdean, Nazio Batuen proiektuetarako aurrekontuen %4 baino gutxiago zegoen emakumeei zuzendua. Berariaz emakumeei zuzenduriko proiektuek nekez jasotzen zuten funtsen %0,2 eta portzentajea %0,5eraino igotzen zen nekazaritza proiektuen kasuan. FAOren (Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundea) programen %1 baino gutxiagok biltzen zituten emakumeengana iristeko estrategiak. Azkenik, UNIFEMek doi-doi jasotzen zuen PNUDei aurrekontuaren %0,71.

1985ean adostasuna zegoen gobernu eta erakunde emaitzetan emakumeentzako erakundeak sortzeak emakumeen beharrak jorratuko zirenean itzaropena eragin zuenean, baina ez ziren bete. Nazio Batuek onartu zuten hamar urte lehenago egin zuten proposamena asmo handiegikoa zela, beraz Nairobiri erabaki zen gauza bakarra izan zen «monitorizazioarako eta emakumeen estatusa hobetzeko gobernu makinaria egokia falta zen lekuan ezarri behar zela (...) eta, eraginkorra izateko, gobernuaren maila altuan ezarri behar zela eta baliabide, konpromiso eta autoritate egokiak ziurtatu behar zitezkiola».

Nairobiko hitzarmenak beteaz, Nazio Batuek, hamarkada bat beranduago, Emakumei buruzko Munduko Laugarren Konferentziarako (Beijing, 1995) deialdia egin zuten. Konferentziaren aurretik estatu eta kontinente mailako eztabaida sakonak egin ziren eta horietan GKEek eta Hegoaldeko emakumeen mugimenduek aktiboki parte hartu zuten; konferentzia «adierazpen hutsetako konferentzietatik ekintzarako konpromiso konkretua bilatzen dutenetarako» pausua izan zen.

Nazioarteko ekonomiaren ziurgabetasunak eta ezegonkortasunak markaturiko munduko testuinguruan, 1980ko ha-

markadako krisiaren ondorioek, kanpo zorrak, egokitzapenak eta globalizazioak eta korrante kontserbadore eta fundamentalista baten gorakadak eragin zuten NBEk proposatutako zirriborroaren %40 konferentziara oso zalantzan jarrita iristea, batez ere genero berdintasunari eta ikuspegiari zego-kienez. Kontraerasoari eustea eta aurreko konferentzietan lorturikoa finkatzeak eskatu zituen hurrengo konferentziaren prestaketak iraun zuen bi urteetako emakumeen mugimen-
duen ahaleginak.

Adierazpen Politikoa (Beijing, 1995)

Gobernuen konpromiso nagusien mezua jasotzen duen agiria izanik, Adierazpenak aitortzen du emakumeen egoerak aurrera-
pen garrantzitsua izan duela azken hamarkadan, nahiz eta homo-
geneoak izan ez diren, emakumeen eta gizonen arteko desber-
dinkeriak badira eta hori herri guztien ongizaterako oztopo
garrantzitsua dela.

Adierazpen politikoarekin, gobernuek ondorengoak betetze-
ko konpromisoa hartu dute:

- Nairobiko Estrategiak sustatzea mendea amaitu baino le-
hen, emakumeei eta neskei oinarrizko giza eskubide eta
askatasun guztiak bermatzea eta eskubide horien zapalke-
ten aurkako neurri eraginkorrak hartzea.
- Independentzia ekonomikoa sustatzea eta emakumeek ja-
saten duten eta iraunkorra eta geroz eta handiagoa den
pobrezia karga kentzea, horren arrazoiei egitura eko-
nomikoen bitartez aurre eginez.
- Emakume eta gizonen aukera eta tratu berdintasuna ber-
matzea hala hezkuntzan nola osasun arretan eta emaku-
meen sexu eta ugalketa osasuna sustatzea.
- Emakumeen aurrerapenarentzat bakea bermatzea, bakea-
ren mugimenduan duten funtzio nagusia aitortuz, eta guz-
tizko desarmatzearen alde lan egitea.
- Ekintza Plataformaren arrakasta ziurtatzea estatu eta na-
zioarteko mailako baliabideak mobilizatuz eta erabili dai-
tezkeen finantzazio mekanismoetatik datozen baliabide
berriak edo gehigarriak ematea garapen bidean dauden
herrialdeentzat.
- Gobernuen politika eta programa guztiek genero ikuspe-
gia islatuko dutela bermatzea.

Iturria: Plataforma de Acción Mundial, 1995.

Beijingen onartu zen Emakumeen Ekintzarako Plataformak (EEP) aitortu du 1985ean emakumeei aurreratzea eragozten zieten oztopoak oraindik ere badaudela, are gehiago, indartu egin direla. Ondorioz, ardua bereziko hamabi eremu kritiko (pobrezia, hezkuntza, osasuna, indarkeria sexista, gatazka armatua, egitura politiko eta ekonomikoak, boterea eta erabakiak hartzea, berdintasun mekanismoak, emakumeen giza eskubideak, komunikabideak, baliabideak eta ingurumena eta nesken eskubideak) azpimarratzen ditu eta aldi berean oztopo horiek kentzeko aplikatu beharreko neurri multzo bat planteatzen du, eta neurri horietatik gobernuentzako, sektore pribatuarentzako, gobernu-arterako erakundeentzako, NBEko agentzia espezializatuentzako, GKEentzako eta nazioarteko lankidetzarentzako zereginak ondorioztatzen dira.

Laugarren Konferentziaren garrantzia da itzulerarik gabeko puntu bat ezarri zuela emakumeek munduan duten egoerari buruzko eztabaidetan. Momentu horretatik, eskubide eta aukeren berdintasuna nola lortzean jartzen da arreta eztabaidan, gizon eta emakumeen artean ekitaterik ez egotean baino gehiago. Horrela, gobernuak Beijingen hartutako konpromisoak generoen arteko ekitatea lortzeko politika publikoen arara eramaten gaitu, Estatuaren egokitzapen ekonomikoaren eta erreformen testuinguruan.

EEP betetzearen erantzukizunaren hiru laurden baino gehiago gobernuak egokitzen zaizkienez, horiek dute ekintza zehatz eta ez koordinatuak —emakumeen sektore murriztetara iristen dira eta baliabide kopuru oso txikiak adierazten dituzte— hobetzearen eta beren konpromisoak betetzearen erronka genero ekitatea lortzeko helburuarekin. Ana Isabel Garciaarentzat, Gobernuak Bulegoen Latinoamerikako Sarearen eta Emakumeen Estatuak Institutuen koordinatzailearentzat horrek guztiak jarraian aipatzen direnak ditu ondorio:

- Erabakiak mailarik altuenean hartzerakoan eta egikarizterakoan estatuko erakunde guztiak sartzeko gobernuaren konpromisoa;
- Zehazki genero ekitatean lan egiten duten eskumendun erakundeak garatzea, ministerioekin eta estatuko politiken plangintza egiten duten erakundeekin erlazionatzeko administrazio, finantza eta teknika ahalmenekin;
- Genero ekitatearen aldeko Estatuak politikak ezarriko dituen estatuko adostasuna lortzea, politika horien garapena Estatu demokratiko guztietan ekintza egonkor bihurtzeko.

Munduko Ekintza Plataformaren (Beijing, 1995) ondorio politikoak

Laugarren Konferentziak genero ekitatea agenda publikoan sartzeko borrokaren —batez ere emakumeen mugimenduek bultzaturikoarenaren— amaiera suposatu zuen. Saiakeran hamarkadak eman ondoren, gobernuek betiko helburu hori politika publikoen parte gisa sartzeko konpromisoa lortu da.

Munduko Ekintza Plataforma herrialde guztietan emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak kentzeko joera duten politiken hasierarako deialdia da. Politika horien estrategia izaera lau zentzutan azaltzen da:

- Edukiari dagokionez: emakumeei laguntzeko ekintzak izateari uzten diote genero erlazio ekitatiboetarako aldaketa bilatzeko;
- Estalduari dagokionez: estatu dimentsioa hartzen dute, ez diete emakumeen sektoreei edo taldeei bakarrik eragiten, biztanleria osoari baizik;
- Alor politiko-administratiboan: erakunde publiko guztiek egikaritu beharreko Gobernuen konpromisoak bihurtzen dira;
- Gizarte zibilaren erakundeen eta gobernuko erakundeen arteko bateratasuna eskatzen dute, estatuko politika iraunkorak izan daitezzen.

Iturria: GARCÍA, A. I., 1997.

NBEk lagunduriko Munduko Biltzar eta Gailurrei dago-kienez, 1970ko hamarkadaren erdialdetik askotan planteatu da megaforo horietan emakumeek ahots propioarekin hitz egiteko beharra. Nahiz eta hala egin duten aukeretan ez diren bileretan jorratu diren gaiak nabarmenki aldatu, egia da ere ordezkartzetan eta prestaketa taldeetan emakumeak egon direnetan bakarrik lortu dituztela aldeko erabakiak.

Hori egiaztatu ahal izan da hamarkada honetan egindako nazioarteko bileretan. Hasiera batean, biltzar horietan jorratu-
turiko gaiak ez ziren berariaz emakumeen arazoekin erla-
zionaturik azaltzen, baina emakumeen nazioarteko mobili-
zazioa izan da —Iparraldeko eta Hegoaldeko emakumeak
lotzen dituzten sareak osatuz eta kontzeptuak, ideiak, anali-
siak eta proposamenak eginez— genero dimentsioa jorratze-
rakoan ikusezin egitea edo baztertzea eragotzi duena.

Emakumeen erakundeek estrategia berriak garatu dituzte
—presio politikoa, lobbya— emakumezkoen interesak bil-

tzar ofizialetako agenda eta agirietan egongo direla bermatzeko; jada ez dira Emakumeei buruzko Konferentzietan edo GKEek antolaturiko Foro Alternatiboan parte hartzearekin konformatzen, hartutako esperientzia *gai orokorrak* jorratzen diren munduko bilera guztietako eduki eta erabakietan eragiteko erabiltzen dute, gai horiek orokorrak izateagatik emakumeei ere eragiten dietelako.

3.1.3. 'Generoa integratzea': PNUDen estrategia

Garapenerako Nazio Batuen Programa (PNUD) 1966an ezarri zen Nazio Batuen lankidetzaren teknikorako baliabideak koordinatu eta administratzeko. Gobernuen ekarpen boluntarioen bidez mantentzen da (batez ere Eskandinaviako herrialdeenak, Amerikako Estatu Batuek eta Japonen jarraitzen dituzte) eta egitura oso deszentralizatua du: 132 herrialdeetan bulegoak ditu, 7.000 langile (%85 laguntza jasotzen duten herrialdeetan bizi dira) eta urtero estatuko eta nazioarteko 28.000 aditu ingururen zerbitzuak kontratatzen ditu.

Nazio Batuen beste agentzia batzuen moduan, azken hamarkadetan PNUDek emakumeen nazioarteko mugimenduen presioari erantzun behar izan dio, baina bai eta emakumeak garapenean parte hartzearen aldekoenak diren gobernu emaileen presioei ere, bereziki Eskandinaviako herrialdeenari, Holandarenari eta Kanadarenari; gainera, 1990eko hamarkadaren hasieran *giza garapen iraunkorra* PNUDen mandatu orokor gisa identifikatzeak nabarmen eragin zion bere genero politikari.

1970eko hamarkadan EG estrategia Nazio Batuen agendan sendo ezarri zenetik, PNUDek neurriak hartu zituen ikuspegi horiek bere lanean sartzeko. 1976an «EM foku-puntu» bat sortu zuen erakundean, langileria sentsibilizatzen saiatu zena emakumeak garapenean gaiari buruz datuak eta ikerlanak eskuragarri eginez. Hurrengo urteetan, eskualdeetako lau bulegoetan foku-puntuak jarri ziren proiektuen proposamenak balioztatu eta bulegoek emakumeak sartzeko egiten zituzten ahaleginak monitorizatzeko helburuarekin. Hala eta guztiz ere, garai hartan ez ziren lan horretarako baliabide espezifikoak egokitu eta gai gehigarri gisa hartu izana agerian geratu zen emakumeak garapenean sartzeko lehenengo gidaliburuan, 1977an argitaraturikoan, PNUDen programa eskuliburuan «proiektuei buruzko ardura berezi» gisa sartu zenean.

1978 eta 1985ean egindako bi balioztapenek PNUDek gai horren inguruan egindako lanean aurrerapen gutxi egon

zirela azaldu zuen. Azkeneko balioztapenean esaten zen emakumeei eragingo zietela aurreikusten zen sei proiektutik batek baino gutxiagok sartzen zituela tartean proiektua ezartzerakoan eta emakumeei zuzenduriko ia proiektu guztiak ama-haurren osasunarekin erlazionaturikoak zirela. Urte horretan Eskandinaviako herrialdeek PNUD premiatu zuten emakumeen ekoizpen funtzioei arreta jartzera eta ez ugalketakoei bakarrik eta ondorioz hamarkadako gainerako urteetan eraginkortasunaren ikuspegia gailenduko zen beren ekintzetan.

Herrialde emaleek ere presioa egin zuten erakundeak frogaz ezan EG politikaren instituzionalizazioarekin zuen konpromisoa eta helburu horri baliabideak eman ziezazkion. Ondorioz, 1986an, emakumeak garapenean sartzeari izan zen PNUDen lau lehentasunetariko bat eta 1987an Emakumeak Garapenean Dibisioa sortu eta Programa eta Politikak Balioztatzeko Bulegoan kokatu zen eta aholku eta monitoretze funtzioak egokitu zitzaizkion, baina ez proiektuen finantzazio edo egikaritzekoak, horiek UNFEMi egokitutako zereginak baitziren.

Sortu zenetik, Dibisioak mainstreaming estrategia hartu zuen: emakumeei zuzenduriko proiektuak sustatu beharrean, haien egoerarekin erlazionaturiko gaiak PNUDen programa eta proiektuen *korronte nagusian* (mainstream) sartzeari azpimarratu zuen, erakundearen maila eta instantzia guztien birtarte zabalduz emakumeak garapenean sartzeko estrategiak aurrera eramateko erantzukizuna.

1980ko hamarkadaren amaierarako Dibisioak jada bazituen hiru tresna emakumeak/generoa gaia PNUDen jardueretan sartzeko: jarraibide berri batzuk, genero trebakuntza (PNUDeko langileentzat, jasotzen duten gobernuek eta egikaritzen duten agentzientzat) eta «proiektua berrikusteko formatua», genero gaiak aurkeztutako proiektu eta jardueretan sartzen ari ziren jakiteko aukera ematen zuena. Hala eta guztiz ere, garai horretan oraindik aurrerapen gutxi ikusten zen genero gaiak laguntza jasotzen zuten herrialdeetako programetan sartzeari: 1989ko ikerlan batek adierazten zuen PNUDei bere ardurapean zituen estatuko 11 programetatik batek ere ez ziola erreferentzia egiten emakumeak lehentasunezko sektoreetan sartzeari.

1990eko hamarkadaren hasieran, PNUDei bere mandatuak «giza garapen iraunkorra lortzeko estatu gaitasuna eraikitze» gisa birdefinitu zuen. Genero ekitatea giza garapenaren dimentsio gisa ulertzen zuen, mandatuak gobernuek beren gizarteetako emakume eta gizonen arteko desberdinkeriak

Generoa garapenaren korrante nagusian sartzea (generoko *mainstreaming*aren estrategia)

Genero gaiak garapeneko dimentsio guztietan —teoriko eta praktikoetan— sartzean datza eta horrek erakundearen lan metodoetan aldaketa bat eskatzen du, alor guztietan eta maila guztietan. Programa eta proiektu guztien formulazioak «genero analisi» batekin hasi behar du, hala industriako, nekazaritzako edo garraioko programa ekonomikoak badira, nola emakumeen alor tradizionaleri egiten badiete erreferentzia, eskala txikiko artisautzen ekoizpena kasu.

Estrategia horrek ez ditu emakumeei berariaz zuzenduriko jarduerak kanpoan uzten, emakumeen ugalketa ezaugarrietatik eta ezaugarri fisikoetatik ondorioztatutako beharrak bideratzen direnean egokiak izango liratekeenak, amatasunagatiko heriotza, emakumezkoen sektoreek jasandako gabezien pilaketa, osasuna eta hezkuntza bezalako alorretan kasu; ordaindutako jarduerak ekonomikoak zein baldintzatan egiten dituzten: ekoizpen txikiko lanetan jartzen dute arreta, gaizki ordaindutako lanak, sexuaren araberako diskriminazioa soldata eta enpleguetan; ordaindu gabeko emakumeen jarduera ekonomikoaren ikusezintasuna: emakumeen etxeko laneko, elikagaien prozesamendurako edo ura eta egurra biltzeko baldintzak hobetzeari emandako lehentasun eskasa.

PNUDentzat, generoko gaiak zeharka gizarteratzeak elkar loturiko bi dimentsio ditu. Batek kanporako duten jarduerari (herrialde jasotzaileen gaitasunak indartzeko mandatuan, bai eta genero ekitatearen lorpenari dagokionez) egiten dio erreferentzia; bestea barruko dinamikarekin erlazionatzen da eta prozedurak, jarraibideak, langileriaren trebakuntza, kontratazio irizpideak eta antolamendu egitura biltzen ditu eta horiek guztiek zehazten dute PNUDek nola indartzen duen garapenaren alde egiten duen lanean genero ekitatea jorratzeko bere erakunde ahalmena.

Lehenengo dimentsioaren eremuan arrakasta izatea bigarrenaren arrakastaren oso baitan dagoenez, *mainstreaming*ak PNUDei jarduera eta metodoetan ezinbesteko aldaketak eskatzen ditu. Emakumeei zuzenduriko proiektuak formulatzeko modu desberdin bat eskatzeaz gain, programa guztien formulazio prozesuetan aldaketa bat gertatzea eta generoz bananduriko analisia unibertsalki aplikatzea ere eskatzen du.

Beste alde batetik, alor horretan estatuko gaitasunak indartzeak eskatzen du PNUDek lagunduriko jarduera guztiek analisi, helburu eta estrategia koherenteak sartu behar izatea emakumeek beren bizi aukerak ugaritzeko azken helburuarekin.

Iturria: PNUD, 1991.

konpontzeko dituzten gaitasunak indartzea jasotzen zuen; horregatik, PNUDeK 8 milioi dolar zuzendu zituen helburu horri loturiko genero trebakuntza jardueretara. Urtebete beranduago, Dibisioa Generoa Garapenean Programa bihurtu zen, Giza Garapenerako eta Pobrezia Desagerrarazteko Dibisioari atxikia.

Nahiz eta PNUDeK hamarkada honetan egindako adierazpen politikoek aditzera ematen duten nagusitzen diren ikuspegiak genero ekitatearena eta emakumeen boteretearena direla, 1990eko hamarkadaren lehenengo erdian erakundeak ez zuen eraginkortasunaren ikuspegi baztertu eta argudio ekonomikoak erabili zituen behin eta berriz gobernuak eta agentziak emakumeei baliabideak zuzentzeaz konbentzitzeko. Hala eta guztiz ere, *Generoa eta Giza Garapen Iraunkorra: ikuspegi politikoak* titulua zuen 1995eko agirian arazo hori giza garapenarekin modu koherenteagotan kontzeptualizatu zen, genero berdintasuna eta ekitatea planteatuz PNUDen programa eta eragiketen helburu nagusi gisa. Egun, emakumeenganako arreta gutxiago justifikatzen da eraginkortasun argudioekin eta gehiago ekitate eta boteretze helburuekin.

PNUDeK ahalegin nabariak zuzendu ditu genero gaitetan «estatu gaitasuna» eraikitzea defendatzen duelako «garapen ahaleginek ezin dutela arrakastarik eduki ez badago erabakiak hartzen diren lekuetan genero gaiak ulertzeko gaitasunik, estatu mailako plangintzako ministerioen mailan edo garapenerako baliabideak egokitzearen arduradunak diren beste erakundeetan». Era berean, genero trebakuntza «emakumeek beren eskubideak eta ardurak antolatzen ikas-teko eta baliabide eta zerbitzuak eskuratzeko boteretze tresna» gisa ikusteak islatzen du PNUDe konbentzitututa dagoela hala gobernuak nola gizarteak ekitate generoa bilatzeko gaitasunak indartu behar dituztenaz.

Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da *maistreamingaren* estrategiak zaila egiten duela PNUDezentat emakumeei zuzentzen zaizkien baliabideen guztizkoa kalkulatzeko, beste arrazoen artean erakundeak ez duelako herrialdeek emakumeen aurrerapenari eskaini behar dizkioten baliabideen proportzioa ezartzen, ez eta Nazio Batuek berariaz emakumeekin egindako proiektuetara zuzentzen dituztenei buruzko daturik eskaintzen ere. Beijingo Foro Alternatiboan elkarturiko emakumeek azpimarratu zuten moduan, PNUDe *kontuak emateko (financial accountability)* mekanismo falta oraindik ere oztopo bat da garapeneko genero ekitatearekin duen konpromiso erreala balioztatzeko.

3.1.4. 'Emakumeengan inbertitzea': Munduko Bankuaren genero politikak

Munduko Bankua (BM) 1944ean sortu zen Bigarren Mundu Gerra ondorengo Europako berreraiketa eta garapen ekonomikoa finantzatzeko eta, funtsean, gobernuen dirua maileguz ematen dien finantza erakunde bat da, nahiz eta bere historian zehar bere zeregin nagusiaren definizioan aldaketak izan dituen eta emakumeak garapenean sartzeko politikan ondorio desberdinak izan dituen.

Adibidez, 1970eko hamarkadan, pobrezia desagerrarazteak helburu desiragarri gisa aitzatespen gehiago izan zuen (eta emakumeak izan ziren Bankuaren proiektu batzuen onuradunak, ama pobre moduan), baina 1980ko hamarkadan politika neoliberalak ezarri ziren eta ordutik, herrialderik pobrenei Bankuak eskaintzen dizkien maileguak ekonomien egitura egokitzapen programak martxan jartzeko baldintzapean ematen dira eta munduan milioika emakume pobretzea izan zuen ondorio. 1990eko hamarkadaren hasieran, egokitzapenaren gizarte kostuak berraztertzen hasi ziren eta «giza baliabideen garapenaren» diskurtsoak lekua irabazi zuen haien agendan; ondorioz, emakumeak *giza kapitalaren* inbertsioen onuradunak bihurtu ziren, beraiengan inbertitzeak beste ekonomia eta gizarte helburu asko lortzeko ekartzen dituen etekin handiak frogatu ondoren.

Bankuak dituen ezaugarri batzuk direla eta genero ikuspegi bere eragiketetan sartzeko ahaleginei ez zitzaien arrakastarik iragarten: alde batetik, hazkunde eta eraginkortasun ekonomikoa lortzeko zeregina ez da genero ikuspegiaren helburuekin oso bateragarria; bestetik, bere erakunde kultura ekonomia eta teknika analisiek menderatzen dute eta analisi horiek emakumeak eta garapenari buruzko planteamenduetan gailentzen diren gizarte analisirako metodoen aurkakoak dira.

Hala eta guztiz ere, 1970eko hamarkadaren erdialdetik, Bankuak mota horretako eskaerei erantzutera zuzenduriko politika eta mekanismoak hartu ditu. Hori lortu ahal izan da emakumezko funtzionarioak ahalegindu direlako generoko planteamenduak onargarriak egiten erakundeko ekonomialarientzat —ekonomiaren eraginkortasunaren eta produktibitatearen helburuekin lotuz—, baina bai eta Bankuak berak arazo horiekin bateragarriak diren alorretan egin dituen aldaketengatik ere, pobrezia eta parte-hartzea kasu. Bestalde, Beijingo Biltzarretik, Iparraldeko eta Hegoaldeko Emakumeen GKEek ez dituzte egokitzapen politiken ondorioak bakarrik salatzen, Bankuaren maileguen zorro osoak genero jus-

tiziarengan izango duen eraginak (Beijingen martxan jarri zen munduko kanpainan islatu zen: *Munduko Bankua emakumeen begira-puntuari*) sortzen dien geroz eta ardura handiagoa ere azaltzen dute.

MBk emakumeen eta garapenaren inguruan egindako ekintzak 1977an hasi ziren «EG aholkularitza» sortuz proiektuen aholkularien gorputzean, Bankuaren Ikerketa eta Politika alorrean kokatzen zenean. Funtzio zabalak bai —emakumeak kontuan ez hartzeak dituen kostuak jakinaraztea langileei; prestaketa eta balioztatze aldietan dauden proiektuak berraztertzea; kritikak eta gomendioak egitea—, baina egokiak ez ziren proiektuak atzera botatzeko baliabide edo botererik ez zuenez, bere lana urte batzutan konbentzitzea eta iradokizunak egitea bakarrik izan zen.

Alor horretan erakundea ahula izan arren, Bankuak azkar egin zuen *mainstreaming* estrategiaren aldeko aukera. Emakumeari buruzko Mexikoko Biltzarrean aurkeztu zuen agiriak azpimarratu zuen emakumeen gaiak garapen proiektu guztietan sartzeko beharra eta kritikoa zen emakumeentzat espezifikoa ziren proiektu batzuekin. Agian horrekin mota horretako proiektuen bakartzetik ondorioztatutako emaitza negatiboak saihestu nahi zituen, nahiz eta —Bankuaren erakunde kulturaren ondorioz— erresistentzia proiektu horien konnotazio politikoei ere egotzi dakiekeen, 1970eko hamarkadan feministen proposamenei lotuak azaltzen zirenei.

Baina generoa proiektuetan sartzeari ere ez zen lan erraza izan eta 1975 eta 1985 artean, MBk finantzaturako proiektu guztien %7 eskasek zuen emakumeekin erlazionaturiko ekintzen bat. Proiektu horietariko gehienak Afrikan (%37) eta Asian (%26) jarri zuten arreta, bai eta nekazaritzako (%40) eta «giza baliabideetako» sektoreetan ere: osasuna, biztanleria, elikadura eta hezkuntza (%45).

Nairobiko Biltzarrak Estatuetan eta alde askotako erakundeetan «emakumeen makinariak» sortzea behin eta berriz bultzatzeak indar berria eman zion Munduko Bankuan EG ikuspegia erakundetzeari. Politikako deklarazio formalek, ekintza planek eta baliabide gehiagok eragin zuten 1987an gaia Bankuan lehentasuna ematen zitzaien lauetariko bat izatea (pobrezia, ingurumena eta sektore pribatuarekin batera). 1993an, EG dibisioa Genero Analisi eta Politikak (GAP) talde tematikoak ordezkatu zuen eta haren agindua zen genero gaiak Bankuaren eragiketa guztietan sartuko zirela bermatzea, langileak trebatuz eta eremu horretan, herrialdeei laguntzeko estrategietan, «praktika onak» erabiltzera bultzatuko zuten tresnak prestatuz.

Hala eta guztiz ere, 1990eko hamarkadaren hasieran, datuek adierazten zuten *mainstreamingak* oraindik ere ez zituela emaitza hautemangarriak ematen. 1989an, biztanleria, osasuna eta elikadura, hezkuntza eta nekazaritza proiektuei buruzko ekarpen teknikoetako %25ek bakarrik biltzen zituen genero gaiari erreferentzia egiten zioten analisi edo gomendioak. Era berean, 1992an, Bankua eta jasotzaileen arteko elkarrizketan erabilitako agirien %5 eskasek aipatzen zituen emakumeekin erlazionaturiko alderdiak, batez ere Bankuak «ez zuelako gobernuak beren tradizioekin eta kulturarekin gatazkan egongo liratekeen jarrerak hartzera behartzen zituenaren irudia eduki nahi».

Azpimarratzekoa da joan den hamarkadaren amaieran eta Bankua egiten ari zen egokitzapenari buruzko berraztertzea aprobetxatuz, EG taldea frogatzen saiatu zela —Bankuaren erakunde kulturarako onargarriak ziren hitzetan— emakumeen gaiei arreta jartzeak garapenaren helburuei laguntzen diela. Ekonomialariak horretaz konbentzitzeak ekonomia eraginkortasun hitzetan argudiatzea eskatzen zuen eta horregatik erabaki zuten pobrezia murrizteari, lanaren produktibitatea handitzeari, baliabideen erabilera eraginkorragoa lortzeari eta gizartearentzat etekin handiagoak lortzeari dagokionez «emakumeengan inbertitzeak» ekarriko lituzkeen ekonomia eta gizarte etekinak nabarmentzea.

Genero ekitatearen eta eraginkortasun ekonomikoaren arteko sinergiak nabarmentzeko asmoz, *emakumezkoen giza kapitala* eraikitzea azpimarratu zen haien hezkuntza eta osasunean inbertituz eta maileguak eta trebakuntza teknikoa emanez. Haien argudioetariko asko ohikoak bihurtu ziren nazioarteko lankidetzako diskurtsoan: emakumeen hezkuntzak du inbertsio guztien artean gizarte itzulkinik handiena (eragina), ugalkortasuna murrizten duelako eta haurren hilkortasuna saihesten duelako; haurrak edukitze-ko adinean dauden emakume helduentzat osasun arretetan gastatzeak beste edozein talde demografikotan egindako edozein gastuk baino gizarte etekin gehiago ematen ditu.

Nahiz eta, batez ere Afrikarentzat, nabarmenak izan diren landako emakumeen kapital fisikoan eta giza kapitalean inbertitzearen etekinak, bai eta eraginkortasunean oinarriturik argudiatzeak EG taldeari Bankuan leku solidoago bat eraikitzeke balio izana ere, emakumeen GKEak eta emakumezko ikerlariak ez daude argudio horien merituz hain konbentzituak. Oro har, aditzera eman dute horrek esku-hartzeak emaitza ekonomikoak nabarmenak diren kasuetara bakarrik mugatzea ekartzen duela eta planteatzen duten galdera da zer

gertatu den genero ekitatearen helburuarekin haren bilaketak proiektu baten arrakasta ekonomikoa laguntzen ez duenean.

Gainera, tentsio nabaria dago emakumeengan MBk gobernuari gomendatuak egokitzapen ekonomikoaren parte gisa gomendaturiko inbertitzearen eta gastu publikoaren politika murriztaileen eraginaren artean. Horregatik, Beijingo Biltzarrean, Bankuko lehendakariari aurre egin zioten erakunde horrek lagunduriko jarduerak Hegoaldeko herrialdeetan pobrezia eta generoko desberdinkeriak areagotu zituztelako. Milaka emakumek sinaturiko eskaera batek ondorengoetara jotzen zuten ekimenak hartzera premiatsu zuten:

- Emakumeen erakundeek politika ekonomikoen adierazpenetan parte hartzea sustatzea;
- Genero ikuspegia instituzionalizatzea proiektuen diseinu eta ezarpenean;
- Emakumeen onurarako diren oinarritzko hezkuntza, osasun eta mailegu programetara zuzenduriko Bankuaren maileguak ugaritzea;
- Bankuan erabakiak hartzeko postuetan dauden emakume kopurua handitzea.

Presio horien eta beste batzuen ondorioz, 1996an MBk erabaki batzuk hartu zituen: Generoko Kontsultarako Taldea sortu zuen, Bankuko funtzionarioek, emakumezko akademikoek eta emakumeen GKEen ordezkariak osaturiko instantzia bat; erakundeko eskualdekoei ekintza plan xehatuak eskatu zizkien genero helburuak lortzeko; hainbat proiektu pilotu jarri zituen martxan helburu horiekin (Tanzanian, Ghanan eta Zinbawen), eta bere lehendakariordeei eskatu zien Bankuarentzat mandatu eta estrategia berriak diseinatzeke, hala garapen ekonomikoa nola giza garapena sustatzera zuzendurikoak.

Emaitzen balantzea, aldiz, ez da hain pozgarria. 1995ean, Bankuaren eragiketen %28k bakarrik (egitura egokitzapenak egiteko 130 mailegu eta inbertsio proiektuetarako 1612) biltzen zuen berariaz generokoa zen ekintzaren bat. Azken 25 urteetan zehar, 615 proiektu eskasek (guztizkoaren %12) eduki dute genero osagaien bat; proiektu horietako gehienak herrialderik pobreenetara zuzendu ziren (Afrikan %41) eta giza baliabideen alorrean (hezkuntza, osasuna, biztanleria eta elikadura) eta nekazaritzako sektorean arreta gehiegi jarri zuten. Bestalde, MBaren erakunde kultura dela-eta, dirudienez ziurra da emakumeen aurrerapena eta ekonomiaren eraginkortasuna batera eta gatazkarik gabe lortzen den eremuak esplotatzen jarraituko duela.

Atzeratutako paradigma: Generoa eta Egokitzapena Saharaz hegoaldeko Afrikan

Hori da 1993an Munduko Bankuaren Afrikako bulegoko Genero Taldeak egindako txostenaren titulua, erakundearen proposamen makroekonomikoei buruzko barruko eztabaidari gehitzeko, genero ikuspegitik eta «egokitzapenaren giza kostuak baino» harantzago doazen ekonomia argudioekin. Agiriak ondorioztatzen du egokitzapen eta garapen programek genero dimentsioa eduki dezaten bost bektore ekonomiko berraztertu behar direla:

- Ordainsaririk gabeko ekonomiaren ikusezintasuna, ekonomia diziplinaren kontzeptu eta tresnengenero zuloaren ondorioz;
- Emakume eta gizonen sustagarrietako desberdintasunak, baliabide ekonomikoak eskuratu eta kontrolatzeko garaian dauden genero desoreken ondorioz;
- Baliabideak banatzerakoan eraginkortasun eza, gastu publikoaren murrizketen lan indarraren birproduktzio kostuak lekuz aldatzea eskatzen dutenean gertatzen dena, ekonomia ikusgarritik (ordaindutakoa) ikusezinerara (etxe-koa);
- Emakumezkoen esku lanaren mugikortasunaren oztopoak, enplegu merkatuaren zorrozatasuna eta etxean lana ordezkatzeko ahalmen mugatua direla-eta;
- Arretarik ez jartzea etxeak desberdinak eta asimetrikoak direnari, etxe barruan baliabideen banaketa eta erabakiak hartzeko desberdinkeriei eta guzti horrek emaitza ekonomikoan duen eraginari.

«Genero dimentsioa duen egokitzapenaren» bere proposamenaren oinarria da «faktore ekonomikoen desberdintzea modu esplizituan kontuan hartzen ez duten politikek ziurrenik emakumeen nahiz gizonen egoera okertzen dutela, eta desberdinkeria eta eraginkortasun eza bultzatzen dituztela, bai eta errendimendua ekonomiko txikiagoa ere. Hori guztia egokitzapenaren helburuen aurkakoa da, eraginkortasuna, malgutasuna eta ekonomia-aren dinamismoa hobetzearen aurkakoa». Horregatik guztiagatik txosten horrek hau proposatzen du:

- Emakumeen lanerako eskakizunak handitzen dituzten (nahita edo nahi gabe) baina lan karga arintzeko konpentsazio neurriak ematen ez duten egokitzapen neurriak ez dira iraunkorrak eta ez dira praktikan jarri behar.
- «Genero analisiak» hazkunde ekonomikoa sustatzera eta pobrezia murriztera zuzenduriko politika eta programen diseinuaren parte izan behar du.

- Emakumeen denbora mugei aurre egin behar zaie. Emakumeek beren funtzio anitzak aldi berean betetzen dituztenez eta ordainduriko eta ordaindu gabeko ekonomiaren eskaerak orekatzen saiatzen direnez beren denbora mugatuarekin jokatzuz, ezinbestekoa da zeregin guztietan (etxeakoak eta ekoizpenekoak) lana erraztuko dien teknologia eskuratzea.
- Denboraren erabileraren produktibitatea hobetuko duten neurriak ere ezinbestekoak dira: azpiegitura, hezkuntza, osasun eta finantza zerbitzu eraginkorragoak, egurra eta ura lortzean eta garraioan hobekuntzak. Inbertsio publikoak eta gizarte gastuak norabide horretan ulertzeak garapenean gastu horiei lehentasuna ematea ziurtatuko luke, gastu horiek egokitzapen arrakastatsu baten katalizatzaileak direlako.

Iturria: Blackden y Morris-Hughes, 1996.

3.2. EMAKUMEAK GOBERNUEN ARTEKO LANKIDETZAN

3.2.1. **Garapena Laguntzeko Batzordea (ELGA): emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko jarraibideak**

Garapena Laguntzeko Batzordea (GLB), Ekonomiako Lankidetzan eta Garapenerako Antolakundearena (ELGA) dena, 1961ean sortu zen garapen bidean zeuden herrialdeei zuzenduriko baliabideen bolumena eta eraginkortasuna handitzeko helburuarekin. Helburu horretarako, bere 22 kideek —munduko garapenari ematen zaion laguntza ofizialaren %90 adierazten dute— aldizka alde biko eta alde askotako laguntza programei egiten dizkieten ekarpenen bolumena eta izaera aztertzen dute. Batzordearen eztabaidetan irakasteko talde bat sortzen da Estatu kideek beren lankidetzan estrategietarako erreferentzia puntu gisa hartuko dutena (eta errespetatu egin behar dute, haren erabakiak lotesleak izan ez arren, juridikoki eragin handia dutelako, GLBk urtero kideen laguntza programak aztertzen baititu).

Aurreko hamarkadaren hasieratik, GLBk aitortzen du garapenak, iraunkorra izan dadin, emakumeen behar guztiak islatu behar dituela. 1983an *emakumeek garapenean duten funtzioa laguntzeko Printzipio Gidariak* onartu zituen —1989an berrikusi zirenak Nairobiko Biltzarretik sortutako estrategiak bil zituzan— eta horietan emakumeen aukera faltak beren parte-hartzea kaltetzen zuen eta garapenerako ahaleginak zailtzen zituzten eremuak identifikatzen ziren.

1995ean, Beijingo Biltzarra baino hilabete gutxi batzuk lehenago, GLBk *Emakume eta gizonen arteko berdintasuna: pertsonan arreta jartzen duen garapen iraunkor batera* titulu zuen adierazpen politikoa onartu zuen eta gaia tratatzeko ikuspegian aldaketa nabaria ezarri zuen: emakumeak proiektu eta jarduera espezifikoek jasotzaile gisa ikustea alde batera utzi eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna indartzen duen garapenaren eta lankidetzaren ahaleginen oinarritzko helburu moduan.

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna ezarri zenean estrategia guztiaren helburu gisa, hori lortzeko erantzukizuna GLBri, bere organo subsidiarioei eta Idazkaritzari egokitu zitzaie, GLBko Emakumeak eta Garapenari buruzko Adituen Taldearentzat (1988an Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Lan Taldea bihurtu zena), aldiz, aholku eta laguntza funtzio berriak eta zabalagoak edukitzea suposatzen du.

Gainera, aurrez aipaturiko GLBaren adierazpenak gai horiek bere lanean modu sistematikoan sartzeko Generoko Plan bat egiteko konpromisoa hartu zuen, politikak egitean, laguntzak aztertzean, printzipio eta praktiken garapenean eta estatistika txostenetan genero berdintasunari heltzeko egutegiak, erantzukizunak eta baliabideak zehaztuz.

Bestalde, emakume eta gizonen arteko berdintasuna garapenerako ezinbestekoa dela pentsatzeak eskatzen du helburu horretan inbertitzea, ez helburuan bere horretan bakarrik, bai eta hazkunde ekonomiko iraunkorra eta garapenaren beste helburu batzuk lortzeko ezinbesteko baldintza gisa ere. Horregatik, elkaturiko herrialdeekin dituzten erlazioetan, GLBko kideek bi erantzukizun osagarri hartzen dituzte: beren prozesu eta produktuetan genero ekitatea sartzeko delako ziurtatzea eta elkaturiko herrialdeek helburu hori sustatzeko egiten dituzten ahaleginak laguntzea.

1998an GLBk *Garapenerako lankidetzan emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta emakumearen boteretzea lortzeko jarraibideak* onartu zituen, 1995eko adierazpenak praktikan jartzera eta hala Iparraldeko nola Hegoaldeko gobernuak Beijingen emakume eta gizonen arteko berdintasun gaien inguruan harturiko konpromisoekin bat datozen politikak eta programak ezartzera zuzenduriko jarraibideen multzoa. Jarraibide horiek aurreko hamarkadan harturiko printzipio gidariak ordezkatzeko dituzte eta aurreko EG ikuspegia Genero Garapenean oinarrituriko beste batek ordezkatu duela islatzen du.

GLBaren egungo ikuspegia «proiektu handietan emakumeen arazoari dagozkion osagaiak aldatzen joatean baino gehiago, proiektu guztien helburu eta lehentasunen azken helburua berdintasuna izatean datzala» dioten proposamenen laburbiltzen da. Adierazpen hori koherentea da bere jarraibideek genero ikuspegia garapenean (*mainsatreaming*) sartzeari ematen dioten lehentasunarekin eta jarraibideek horrekin erlazionaturik hau azpimarratzen dute:

- a) Emakumeen boteretzearen eta maila guztietako erabakietan parte-hartze handiagoa izatearen emaitza garapenaren agendaren diseinu berri bat denean lortzen dela estrategia horren indarririk handiena.

Mainstreaminga zentzu integratzailean ulertzen dutenen aurrean (ikuspegi horren arabera sektoreko gaiak egokitu egiten dira haietan emakumeak eta generoa kabi daitezzen, garapenaren agenda orokorra asko aldatu gabe), GLBk azpimarratzen du *mainstreaminga* emakumeen ardurak programa eta proiektuetan sartzeko hutsa baino urrunago joaten dela eta garapenaren kontzeptuen eta praktiken aldaketa bat eskatzen dela, hau da, garapen agendaren diseinu berria.

- b) Genero ikuspegia garapenaren agenda nagusian sartzeko ez du berriaz emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzera zuzenduriko proiektuak laguntzea alde batera uzten.

Proiektu horiek emakumei, gizonei edo erakundeei zuzendu daitezke, baina oinarrizko betekizuna da genero ekitatea berriaz laguntzea. Adibidez, emakumeen erakundeen finantzaketa, gobernuak Beijingen harturiko konpromisoak betetzera bultzatzeko; gizonei zuzenduriko kanpainak sexu eta erreproduktzio osasunaren inguruan dituzten ardurak eta eskubideak jakinarazteko; edo estatuko erakunde juridikoak indartzea Emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak desagerrarazteari buruzko Hitzarmena praktikan jartzeko.

- c) Emakumei bakarrik zuzenduriko proiektuek ez dituzte nahitaz genero ekitatearen helburuak laguntzen.

Bistakoa da, genero egiturak arduraz kontuan hartu gabe eta plangintza ekonomiko egokirik gabe, *sarrerak sortzeko proiektuek*, nahita egin gabe, emakumeen lanari karga handiagoa gehi diezaioketela emakumeek ordain esanguratsurik jaso gabe.

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna, garapenaren helburu nagusia

«Giza garapen iraunkorra lortzeko emakume eta gizonen arteko berdintasunerantz aurreratzeko beharraren» inguruan dagoen eta geroz eta handiagoa den adostasuna onartuta, Garapena Laguntzeko Batzordeak 1995eko adierazpenean hau planteatzen du:

- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea ez da bereizirik ulertu behar den *sektore* bat, sektore guztiei eragiten dien zeharkako gai bat baizik; ez da *emakumeen* gai bat ere, emakume eta gizonek batera tratatu behar duten gizarte gai zabal bat baizik.
- Emakume eta gizonek, berdintasun baldintzetan elkarrekin lan eginez, garapenerako agenda definitu, ikuspegia eta helburuak finkatu eta estrategiak egin behar dituzte. Horretarako guztirako garapen agenda aldatu behar da hala emakumeen nola gizonen ikuspegiak, interesak eta beharrak sartzeko eta sexuen arteko desberdinkerien egitura arazoak eta kultura erroak identifikatu behar dira.
- Garapen gaitan emakumeei arreta egokia jartzea eragozten duten garapenerako lankidetzaren metodologia ahultasunak zuzendu behar dira, horien artean lankidetzaren termino tekniko, ekonomiko eta sektorial estuetan definitzeko joera; alderdi soziokulturalen nahikoa ez den funtzioa eta gizarte eta ekonomia analisisien artean egiten den bereizketak kaltegarria.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburua lankidetzako eremu eta modalitate guztietan aplikatu daiteke eta politikei buruzko elkarrizketetan, herrialdekako analisi eta estrategietan, laguntza programetan, sektoreen erreforma eta berregituraketan, alde biko proiektuetan, erakundeak eta estatuetako gaitasunak indartzerakoan, gizabidezko eta larrialdietako laguntzan, GKEen proiektuetan eta kontratista publiko eta pribatuen arteko hitzarmenetan sartu behar da.
- Era berean, garapenaren beste helburu batzuen definizioaren parte izan behar du eta demokratizazioaz, giza eskubideez, gatazka armatuez, pobreziaz, garapen ekonomikoaz, hezkuntzaz eta ingurumen iraunkortasunaz, hitz egitean ere kontuan eduki behar da.
- Ezinbestekoa da genero ikuspegiaren ekarpen garrantzitsuak aitortzea eta garatzea, genero ikuspegia erabiltzen duten lanak garapenaren alderdi sozio-ekonomikoak eta giza alderdiak tratatzeko hasitako ahaleginen abangoardian egon direlako.

Iturria: Garapena Laguntzeko Batzordea, 1998.

3.2.2. Europar Batasuna: genero politikak Lomeko Hitzarmenetan

1980ko hamarkadaren erdialdetik, eta beste erakunde multinazionalekin alderatuz atzerapenarekin, emakumeak garapenean parte-hartzearen inguruko Europar Batasunaren politika kodifikatzen eta doitzen joan da Parlamentua eta Kontseiluaren erabakien arabera eta Batzordea da gai horretako ekintza konkretuen arduraduna.

1981n egin zuen Europako Parlamentuak lehenengo adierazpen ofiziala eta onartzen zuen komunitateko lankidetzak bereziki kontuan eduki behar zituela emakumeen beharrak. Batzordeari bere laguntza politikak garapen bidean dauden emakumeei interes gehiago jartzeko egokitzeko gomendatu zion eta aldi berean emakumeen egoera ikertzeko batzorde bat sortu zuen, urte batzuk beranduago Emakumeen Eskubideen Batzordea bihurtuko zena, Parlamentuan emakumeak eta garapenari buruzko txostenak eta proposamenak aurkeztearen arduraduna.

Aipaturiko parlamentuko adierazpenak gaiari buruzko eztabaidak bultzatu zituen eta 1982an Kontseiluak erabaki zuen bat onartu zuen non emakumeek garapenean duten papera errekonozitzea eta garapen armoniatsu baten onerako hori laguntzea eskatzen zen, laguntza jasotzen zuten herrialdeekin batera. Ondoren, sei aldiz, Kontseiluak erabaki hori zehaztu du, «emakumeen aldeko ekintza herrialde jasotzaileen garapen helburuetan sartzeko» estrategia azpimarratuz.

1984an Emakumeen Eskubideen Batzordeak txosten bat argitaratu zuen non esaten zuen sentitzen zuela garapen proiektuek «laguntzak jasotzen dituzten herrialdeetan beti emakumeen egoeran hobekuntza bat eragin ez izana, eta zenbait kasutan areagotu izana» eta emakumeen gaia Lomeko Hirugarren Hitzarmeneko elkarrizketetan lehentasuneko gai gisa sartzea eskatzen zuen. Txostenaren azalpena onarturik, Parlamentuak Batzordeari eta Estatu kideei gomendatu zien beren lankidetzak hiru modutan hobetzea: a) emakumeei zuzenduriko proiektuetara zuzenduriko laguntzak handituz; b) hiriko emakumeen egoera hobetzeari lehentasuna emanaz, eta c) emakumeak trebatzeko proiektuak babes-tuz, emakume enpresaburuen erakundeak mantentzen lagunduz eta emakumezko biztanleriari buruzko informazioa izatea eta haien egoeraz jabetzea sustatuz.

Parlamentuak 1989an 0,5 milioi ecuko aurrekontu lerro bat sortu zuen emakumeak garapenean sartzeko politikak

laguntzeko ekintzak finantzatzeko, eta bi urte beranduago zenbateko bereko beste lerro bat emakumeek munduan duten goerari buruzko ikerlanak eta txostenak finantzatzeko.

Bestalde, Batzordeak 1982an EG sail bat sortu zuen Garapenaren Zuzendaritza Nagusiko (DG-VIII) Giza Baliabideen zuzendaritzan. Zuzendaritza horren funtzioak funtzionarioak sentsibilizatu eta trebatzean, laguntza teknikoa ematean eta proiektuak eta programak balioztatzean jartzen zuten arreta, emakumeen interesen ikuspegitik. 1991n *EGn aditu* bat izendatu zuten Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza Nagusian (DG-I), eta aditu hori zen «emakumeek ekoizpenean duten ezinbesteko funtzioa eta garapen ekonomikoari eta giza garapenari egiten dioten ekarpena garapena laguntzeko programa eta proiektu guztietan kontuan hartzeko» ekintza plana prestatzearen arduraduna.

Laburbilduz, 1990eko hamarkadaren hasiera bitarte, komunitateko estrategiak emakumeek sarrerak lortzeko gaitasuna eta aukerak hobetzeko ahalegina egin zuen, bi ekintza ildoren bitartez:

- Emakumeei beharrezko guztia ematea beren produktibitatea eta sarrerak hobetu ditzaten garapen prozesu orokorretan sartuz.
- Epe luzera giza kapital bat eraikitzea hezkuntzaren, elikaduraren, famili plangintzako zerbitzuen eta beste-lako oinarrizko osasun zerbitzuen bitartez, egitura egokitzapen programen giza dimentsioari arreta berezia jarritz.

1993 bitarte, komunitateko lankidetzaren programen %30 eskasek hartzen zituen esplizituki kontuan emakumeen behar eta interesak. Garai hartan, Kontseiluaren politiken ondorioen balioztapen batek eragin zuek hark adieraztea «emakumeek garapenean parte hartzea oraindik ere oso gutxitan gertatzen dela». Gainera aitortu zuen «genero desberdinkeriak zuzentzea garapenarentzat funtsezko gaia dela, laguntzaren eraginkortasuna eta gizarte justizia hitzetan», Kontseiluak 1995ean *Genero ikuspegia garapenerako lankidetzaren sartzeari buruzko erabakia* hartu zuen, gobernuek Beijingo Munduko Biltzarrean harturiko konpromisoak nazioarteko lankidetzaren eremura eramaten dituzten jarraibideak.

Jarraibide horiek martxan jartzea azkartzeko bi Generoa eta Garapena Unitate (bata DG-VIIIan eta bestea DG-IBn) sortu ziren eta aurrekontu lerro bat ireki zen, B7-611, erabaki hori ezartzea sustatu eta laguntzen duena.

Europako Batasuneko Kontseiluaren *Genero Erabakia*

Komunitateak eta Estatu kideek egiten duten lankidetzara orientatu behar duten printzipio multzo bat biltzen du eta printzipio horien artean hauek daude:

- Hala emakumeek nola gizonek garapen prozesuan berdintasun baldintzetan parte hartu behar dute eta berdintasun baldintzetan jaso behar dituzte etekinak. Genero desberdinkeriak murrizteak du lehentasuna gizarte osoarentzat.
- *Genero analisiak*, maila makro, meso eta mikrosozialetan, guztiz sartuta egon behar du garapen politika eta ekintza guztien sorreran, formulazioan eta martxan jartzean, bai eta segimenduan eta balioztatpenean ere.
- Garapenerako lankidetzak jarrera, egitura eta mekanismo aldaketa lagundu behar du eremu politikoan, juridikoan, sozialean eta etxekoan, genero desberdinkeriak murrizteko helburuarekin, eta bereziki sustatu behar ditu erabakiak hartzeko prozesuko parte-hartze berdintasuna, maila guztietan; baliabide ekonomikoak lortu eta kontrolatzeko berdintasuna; eta giza garapena lortu eta kontrolatzeko berdintasuna.
- Kanpo laguntzako ekintzetan, herrialdekako proiektu, programa eta estrategien mailan, hala *mainstreaminga* nola *ekintza positiboak* estrategia osagarritzat hartu behar dira, emakume eta gizonek garapenean duten botere guztia aprobetxatzera eta ekonomia, politika eta gizarte garapen aukeak berdintasunez edukitzera zuzenduak.

Iturria: Europako Batzordea, 1995.

Lerro horren bitartez, Europar Batasunak finantza eta teknika laguntza eskaintzen ditu emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko gaiak garapenerako lankidetzako gaietako politika eskuartzeetan sartzeko. Proiektuak eskala txikira finantzatzea baino gehiago, ekimen estrategiko multzo bat garatu nahi da emakumeen aldeko eragin biderkatzailerik hautemangarria eta eraginkorra izen dezakeena. Lerro horren kargurako finantzaketak erabiltzeko, jarduerak, beste batzuen artean, helburu hauek eduki behar dituzte:

- a) *Genero analisiak* garapenaren lankidetzaren eremu guztietan horizontalki sartzeko laguntzea.
- b) Genero ekitateari dagozkion ekintzak garapenaren aldeko komunitateko esku-hartzeetan sartzeko erraztea.
- c) Pixkanaka aurrera egitea komunitateko esku-hartzeak GLB-ELGAK gai horren inguruan dituen irizpideekin bat datozen egoerarantz.

- d) Garapen bidean dauden herrialdeen gaitasun publiko eta pribatuak garatzea beren garapen politikan ekimenak eta erantzukizunak hartu ahal izateko genero ekitatearen inguruan.

1988an zehar Europako Kontseiluak hainbat erabaki hartu zituen genero ikuspegia Komunitatearen eta Estatu kideen lankidetzaren programen araudietan eta jarraibideetan sartzera jotzen zutenak eta Araudi bat onartu zuen non, beste gauzen artean, ezartzen zuen 1999-2003 epealdian 25 milioi euro zuzenduko zirela berdintasunaren aldeko programa martxan jartzera.

Europar Batasuneko emakumeak garapenean sartzeko gaietako politikaren bilakaeraren adierazle ona da Lomeko Hitzarmenetan —Europar Batasunaren eta Afrikako, Karibeko eta Pazifikoko (AKP) 70 herrialderen arteko lankidetzaren eremu nagusian, 1975az geroztik— emakumeei buruzko erreferentzia espezifikokoak sartzeko. Lomeko Lehenengo eta Bigarren Hitzarmenek ez zituzten berariaz emakumeak aipatzen, baina Hirugarren Hitzarmenak erreferentzia bat sartu zuen giza eta kultura garapenaren kapituluan, eta Laugarren Lomeko Hitzarmenak 153. artikulua onartu zuen, *Emakumeak garapenean* titulua zuena eta baieztatzen zuena «lankidetzak AKP Estatuaren ahaleginak lagunduko zituela, betiere ondorengoetara zuzentzen baziren:

- a) Emakumeen estatusa igotzea, haien bizi baldintzak hobetuz, ekonomian eta gizartean duten funtzioa zabaltuz eta ekoizpen eta garapen prozesuan, gizonekin berdintasunean, parte-hartze osoa izatea sustatuz.
- b) Arreta berezia jartzea emakumeek lurrera eta lanera, teknologia aurreratuetara, maileguetara eta lankidetzako erakundeetara iristeko duten aukerari, bai eta haien zeregin latzak arintzeko egokiak diren teknologiak lortzeari ere;
- c) Emakumei trebakuntzara eta hezkuntzara iristea erraztea;
- d) Hezkuntza sistemak egokitzea emakumeen behar, erantzukizun eta aukeren arabera;
- e) Arreta berezia jartzea emakumeek familiaren osasunean, elikadura eta higienan, baliabide naturalen kudeaketan eta ingurumenaren babesean betetzen duten ezinbesteko funtzioari».

1984an «EG lan talde» bat sortu zen AKP-EU Biltzar Paritarioan, Europako eta AKPko herrialdeetako emakumezko parlamentariak osatzen zutenean. Taldeak ebazpen bat proposatu

zuen —Batzarrak onartu zuena— eta bertan defendatzen zuen emakumeak programa eta proiektu guztietan sartzea (eta ez beraientzako espezifikoak diren jardueren formulazioarekin) eta azpimarratzen zuen «lankidetzaren biztanleria osoari zuzentzen zaionean, emakumeei aintzatespen espliziturik egin gabe edo generoaren arabera bereizketarik egin gabe, emakumeen egoera larritu daitekeela hobetu beharrean».

Lomeko Laugarren Hitzarmenean emakumeen estatusa hobetzeko konpromisoak hartu ziren arren, egindako ikerlanek adierazten dute emakumeek ez dituztela lankidetzaren ekintzetatik gizonen hainbesteko etekinak lortu. Europako Garapen Funtsak Afrikako zortzi herrialdeetan finantzatutako lankidetzaren garapeneko bederatzi proiektuen inguruan 1991n egindako balioztapen batek aditzera eman zuen bi proiektutan bakarrik hartzen zutela parte eta lortzen zituztela etekinak emakumeek eta haiek helburu talde esplizitua osatzen zutenetan, proiektuek emakumeen lan karga areagotzen zutela ordainean etekinik eskaini gabe.

Azpimarratzekoa da 2000. urtearen erdialdetik aurrera aldatuta garrantzitsuak gertatzen ari direla gai hori heltzeko moduan. Urte horretako maiatzean, genero gaia integratzea garapenerako lankidetzako komunitateko politikaren printzipio gidari gisa hartu zen eta generoarekin erlazionaturiko alderdiak zeharkako gai gisa hartzea pasatu ziren garapen ekimen guztietan. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko estrategia markoak (2001-2005) komunitateko jardueraren guztiek emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburua lagundu behar zuten jardueraren marko bat eskaintzen zuen, zehaztuz Batzordeko sail guztiek beren politikak egokitu behar zituztela (genero mainstreaminga) edo emakumeei zuzenduriko ekintza konkretuak egin (berariazko ekintzak).

2001eko ekainean onartu zen «Garapenaren komunitateko lankidetzaren generoa sartzeko Ekintza Programa», «genero politikak desagertzearen» fenomenoari aurre egin eta politikak egikaritzearen artean dagoen zuloa ixteko helburuarekin, barruko gaitasuna finkatuz trebakuntzaren bitartez, funtzioak eta erantzukizunak argituz, segimendu metodo, adierazle eta sistema egokiak hartuz. Programa horrek, 5 urteko epea duena (2001-2006), 2001erako 2,2 milioi eurotako aurrekontu lerroa (B7-6220) lortu zuen.

Gaur arte programa horren bi balioztapen egin dira. Lehenengoan 40 txosten estrategiko nazional berrikusi ziren eta ateratako ondorioak hauek izan ziren: a) generoa zeharkako gai gisa aipatzen zen, baina emakume eta gizonen arteko berdintasuna sartzaren kontzeptua bereiztea zaila zen;

b) arreta erdigunea emakumeak eta haien egoera ziren, baina gizonen eta mutilen buruzko analisiak falta ziren; eta c) generoa hezkuntzaren, osasunaren eta giza eskubideen testuinguruan aipatzen zen, baina EEaren funtsen (garraioa eta laguntza makroekonomikoa) zatirik handiena jasotzen zuten sektoreek ez zuten genero arazoa ikusten.

Bigarrena 2003an eman zen aditzera eta haren emaitzek adierazten dute, EEk genero ekitatea laguntzeko konpromiso handiak hartu izan arren, horiek ez direla behar hainbeste ezagutzen, ekintzak gutxi integratuta daude eta eragin iraunkor gutxi dituzte, finantza baliabideak mugatuak dira, erakunde kultura oraindik ez da genero ekitatearen oso lagun eta mekanismoak falta dira genero politikei garapenaren lankidetzan jarraipena emateko.

3.2.3. **Emakumeak eta Garapena Espainiako lankidetzan ofizialean**

Espainiako gobernuko lankidetzaren jarraibideek, 1987ko abenduan Ministro Kontseiluaren erabaki bidez ezarritakoek, ez zioten berariazko erreferentziarik egiten emakumeak eta garapenaren arteko erlazioari, eta 1991n Espainiako Estatu ELGAN eta Garapena Laguntzeko Batzordean (GLB) sartzea izan zen genero ikuspegia Espainiako lankidetzan sartzeko lehenengo ahaleginak markatu zituen gertakaria.

1992an, *Garapenaren Lankidetzan eta Laguntzarako Espainiako Politikaren Helburu eta Ildo Nagusiei* buruzko Biltzarreko Txostenak lehenengo ematen zuten emakumeen zuzenduriko hezkuntza eta osasun proiektuei eta aldi berean emakumeen talde ahul gisa egiten zuten erreferentzia, haurrekin batera, bai eta gai aurrerakoi gisa ere kulturako lankidetzaren eremuan. Senatuaren txostenak, 1994an, emakumeen eta garapenaren arteko erlazioa lankidetzaren alderdi espezifikoa gisa hartzen zuen, giza eskubideekin eta ingurumenarekin batera.

Nahiz eta SECIPIK 1993an egindako lankidetzaren jardueren memorian *Emakumeak eta Garapenari* buruzko idazpuru bat badagoen non genero ikuspegia lankidetzan sartzeko egin diren ahaleginak azaltzen diren, Nazioarteko Lankidetzarako Ministroarteko Batzordeak (NLMB) 1995erako onarturiko lankidetzaren ildoetan aurkitzen da lehen aldiz «lankidetzaren helburua garapen iraunkor bat lortzea dela, ingurumen eta genero inpaktua, biztanleria gaiak eta giza garapenaren kontuan edukitzea dituen».

NLMBk 1996rako proposaturiko ildoetan genero ikuspegia 8. puntuan aipatzen da, adierazpen hauekin: «Genero ikuspegia programa eta proiektuetan sartzeari lagunduko da eta emakumeak garapenean eragile aktibo gisa parte hartzea bermatuko da. Era berean, emakumeek lana, trebakuntza eta eremu politiko, ekonomiko eta sozialetan erabakiak hartzeko aukera berdintasuna izatea bermatzen duten politikak izango dute lehentasuna».

Adierazpenetan hori esan arren, genero ikuspegia garapenerako lankidetzari ofizialean sartzeari oraindik ere hasi besterik ez da egin. Printzipio horiek eta politika konkretuen artean dagoen distantziaren adierazgarri da egun arte emakumeak garapenean parte hartzearen helburua ez dela sartu Espainiako gobernua 1988az geroztik lankidetzan aritzen den herrialdeekin sinatu dituen alde biko tratatu batean ere.

Bestalde, Espainiako Nazioarteko Lankidetzarako Agentzia (AECI) da, 1988an sortutakoa eta Atzerri Arazoetako Ministerioan (MAE) kokatutakoa, ordaindu ez daitekeen alde biko lankidetzari kudeatzearen ardura duen erakundea eta emakumeak garapenean parte hartzearen inguruko gaiak, aldiz, Emakumeen Institutuaren ardura dira, Gizarte Gaietarako Ministerioaren (MAS) erakunde autonomoarenak.

1990ean ministerio baten artean sinaturiko hitzarmen baten eta AEClren eta MASen arteko urteroko protokoloak kokatzen dituzte lankidetzako jarduerari guztiak gizarte sektorean. Hitzarmen horrek ezartzen du emakumeen zuzenduriko garapen proiektuak Emakumeen Institutuak zuzenduko dituela, bi erakundeen arteko lankidetzari baldintzak definitzen ditu eta, bereziki, Institutuak sustaturiko proiektu batzuk AEClrekin batera finantzatzea ziurtatzen du.

Espainiako gobernua GLBn sartu zenean, AEClk genero ikuspegia bere programa eta proiektuetan sartzeko beharrezkoak ziren mekanismo administratiboak lortu behar izan zituen. 1991n Agentziak Kabinete Teknikoko Programari Zuzendaritzan postu bat sortu zuen gai horietaz arduratzeko, eta 1992an *Emakumeak eta Garapenari* buruzko programa bat AEClren lehendakari zapean eta programa horretako titularra GLBko *Generoa eta Garapeneko* Aditu Taldearekin egiten diren bileretara joaten da eta haien mandatuak ezarriko direla bermatzen du.

Orain arte, genero lankidetzari politiketan sartzeari balantzea ez da oso pozgarria. Emakumezko adituak bat datoz balioztatzerakoan AEClk formalki *mainstreaming* estrategia hartu duela, baina ez dela GLBren orientabideak bere politika

helburuetan sartzera iritsi. Gertakariei begiratu, haien jarduerak EG ikuspegitik gertuago daude genero planteamenduetatik baino, emakumeak *talde zail* gisa ikusten jarraitzen dutelako eta hezkuntza, enplegu edo osasun zerbitzu gehiago ematean jartzen dutelako arreta, emakume eta gizonen arteko desberdinkeria arrazoiak eta eragina kontuan hartu gabe.

Emakumeen Institutuari dagokionez, bere *Emakumea eta Garapena* programa 1990az geroztik AECIrekin egindako hiztarmenean sartzen da eta hiru alorretan jartzen du arreta:

- Emakumeak/Generoa eta Garapena gaien inguruko prestakuntza, 1989az geroztik, erakundeak *Emakumeak eta Garapena* maisutzarekin zehazten dena, nazioarteko lankidetzaren alorrean emakumezko adituak prestatzera zuzendutakoarekin.
- Aukera berdintasunaren aldeko politiken arduradunak diren estatuko erakundeak aholkatu eta laguntzea eta nazioarteko erakundeekin elkarlanean aritzea, Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE) eta Osasunaren Erakunde Panamerikarra (OEP) kasu, munduko emakumeei zuzenduriko programetan.
- Programa eta proiektu espezifikoak finantzatzea, emakumea garapenean, prestakuntza alorretan sartzera, azpiegiturara, osasunera, ikerketa eta hedapenera, ekoizpenera eta enplegua sortzeko proiektuetara, emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztera, aldaketa juridikoak eta parte-hartze politikoa sustatzera zuzendurikoak.

Egun arte, AECI-EI hitzarmenaren inguruan egindako lankidetzak emakumeekin egindako proiektu espezifikoak azpimarratu ditu, emakumeen beharrak eta ikuspegia garapenaren agenda orokorrean sartu baino gehiago. Hala eta guztiz ere, AECIn gailentzen den EG ikuspegiari kontrajarrita, Emakumeen Institutuak emakumeen boteretzeari garrantzia handia ematen dio, Hegoaldeko emakumeen erakundeei laguntza ematen die eta emakumeak komunitateko buru eta aldaketaren eragile izateko gaitasuna hobetzea azpimarratzen du.

Azkenik, emakumeen egoera hobetzera zuzenduriko baliabideei dagokienez, GLBk 1994an egindako Espainiako lankidetzaren lehenengo azterketak agerian utzi zuen «emakumeen aldeko jardueri lehenetsun handiagoa emateko eta integratutako jarduerak ugaritzeko» beharra, emakumeen aldeko jarduera espezifikoak emandako zenbatekoak ez zirelako milioi bat dolaretara iristen eta *integratutako* jardueren zenbatekoa guztira 7,6 milioi dolar zelako, hau da, alde biko lankidetzaren %1 baino gutxiago.

Bestalde, PACiek (gastu aurreikuspenak biltzen dituzten nazioarteko lankidetzako urteko planek) eta Segimenduko-PACiek (modu eraginkorren egikaritutako ekintzak) ez zuten 1993 bitarte emakumeen proiektuei buruzko bereizitako informaziorik biltzen, ez eta lankidetzan jarduten den herrialdeetan genero desberdinkeriei aurre egitera zuzenduriko baliabideen haztapen bat ere. Ondorengo koadroan «Emakumeak Garapenean» sektoreari azken urteetan zuzenduriko zenbatekoak islatzen dira, bai eta alde biko Laguntza Ofizialean duten pisua ere.

17. koadroa. **«Emakumeak Garapenean» sektoreari zuzenduriko garapenerako alde biko laguntza ofiziala**

	1992	1993	1994	1995	1996	1997
Emakumea garapenean (milioi pezetatan)	322	144	281	925	324	546
Alde biko laguntza ofizialaren gaineko portzentajea	0,29	0,12	0,24	0,91	0,28	0,49

Iturria: Informe de la Ayuda 1998/99, Intermon.

Emakumeak eta Genero Ikuspegia Espainiako Garapenerako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Legean

2. artikulua. Printzipioak.

Garapenerako nazioarteko lankidetzako Espainiako politikak Espainiako herriak garapen bidean dauden herrialdeekin duen elkartasuna adierazten du (...) printzipio hauen arabera:

... b) giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak, bakea, demokrazia eta emakume eta gizonen arteko baldintza berdintasunean herritarrek parte hartzea eta, oro har, sexu, arraza, kultura edo bestelako diskriminaziorik ez egotea defendatzea eta sustatzea.

7. artikulua. Sektorekako lehentasunak.

Espainiako garapenerako nazioarteko lankidetzako politika, pobrezia mota guztien aurka borrokatzeko helburua lortzeko, sektorekako lehentasun hauetara zuzenduko da bereziki:

... c) Giza eskubideak babestu eta errespetatzea, aukera berdintasuna, emakumeek gizartean parte-hartzea eta integratzea eta ahulenak diren biztanleria taldeak defendatzea...

Iturria: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Legea, 1998.

3.2.4. Emakumeak Euskadiko lankidetzan publikoan

Eusko Jaurlaritzak garapenerako lankidetzan diharduen ia hamabost urteetan zehar, laguntza ofizialak geroz eta gehiago finkatzeko bidea jarraitu du, hala aurrekontu nola erakunde mailan: 1985ean egokitutako 10 milioi sinbolikoetatik 1998ko ekitaldian esleituriko 4.500 milioi arte; 1998ko Aurrekontuen Legean garapenerako laguntza finantzatzera zuzenduriko kontusail bat sartzeko parlamentuko ekimenetik, 1990ean Garapenerako Lankidetzan eta Laguntza Funtza (Focad) eta 1998an Garapen Lankidetzarako Aholku Batzordea sortu arte.

Euskadiko lankidetzaren doktrina euskarria eta definizio estrategikoa oraindik ere mugatuak dira: laguntzaren ekintza erregulatzen duten printzipioen adierazpen zehatzik ez dago GGKEi emandako laguntzen zeharkako aipamen orokorrez gain, ez eta lankidetzarako programen helburuenak ere. Focad Programa erregulatzen duten xedapenek —bereziki 53/1997 dekretuak— programa horren kargurako laguntzen deialdiatarako oinarritzko printzipioak biltzen dituzte eta i) atalean «Genero ikuspegia ekintzen adierazpenean, egikaritzean eta baliotzatzean kontsultatu eta sustatzeko» beharra ezarri zuen.

Aipatu dekretuak lankidetzako hiru modalitate desberdin ezartzen ditu. Lehenengoa Hirugarren Munduko garapen bidean dauden herrialdeetako proiektuak batera finantzatzea da, GGKEen bitartez. Modalitate horrek, beste helburuen artean, azpimarratzen du «emakume eta gizonen baliabideak, zerbitzuak, hezkuntza eta trebakuntza lortzeko garaian aukera berdintasuna ziurtatzea, hala badagokio, ekintza positiboak ezarriz genero analisia proiektu eta programa guztietan sartuz». Gai horri ez zaio erreferentziarik egiten beste bi laguntza modalitateen helburuetan.

1988tik 1997 bitarte, Eusko Jaurlaritzak 715 proiekturen (garapenekoak, sensibilizaziokoak eta hezkuntzakoak, gizabidezko laguntzakoak, eta abarrekoak) gauzatzea batera finantzatu du 12.402 milioi pezetatiko guztizko zenbatekoarekin. Hala eta guztiz ere, oraindik ere ez dago sexuka bereizitako adierazlerik emakumeen egoera hobetzera edo Eusko Jaurlaritzan lankidetzan aritzen den herrialdeetako emakume eta gizonen arteko desberdinkeriak kentzera zenbat zuzentzen direnari buruzko estatistikak egiteko aukera ematen duenik.

Bi ikerlan kualitatibok bakarrik, bata berariaz emakumeei zuzenduriko proiektuei buruzkoak⁶ eta bestea, Eusko Jaurla-

⁶ GONZÁLEZ, S. (1995), *La cooperación pública vasca para el desarrollo de las mujeres del Tercer Mundo entre los años 1988 y 1994*. Mimeo.

EMAKUNDE eta garapen bidean dauden herrialdeekin egindako erakunde lankidetzan genero ikuspegia sartzea

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Emakumeen Hirugarren Ekintza Positibo Planak, bere 10.2 atalean «garapen bidean dauden herrialdeekin egindako lankidetzak politika eta programetan genero ikuspegia sartzea sustatzea pertsonarengan arreta jartzen duen garapen iraunkor bat lortzeko» hartu du helburu. Horiek lortzeko EMAKUNDEk ekintza hauek egingo ditu:

- Jarraibideak, prozedurak, metodologiak eta tresna analitikoak egitea garapenerako lankidetzako diseinuan, garapenean eta balioztatzean emakumeen interesak eta behar estrategikoak sartzea generoaren arabera.
- Garapenerako lankidetzarako laguntza publikoetan balioztapen betekizun gisa ezartzea genero ikuspegia lankidetzak proiektuen zikloan sartzea eta aipatu zikloaren helburu den taldeko partaide diren emakumeen parte-hartze adierazgarria sartzea.
- Garapenerako lankidetzarako laguntza publikoaren balioztapen betekizun gisa ezartzea genero ikuspegia aipatu proiektuetako sentsibilizazio ekintzetan sartzea.
- GKEetako eta bestelako laguntza erakundeetako zuzendariei eta teknikariei zuzenduriko trebakuntza programak egitea genero ikuspegia lankidetzan sartzearen inguruan.
- Ikerlanak eta emakumeak garapenean sartzea eta aukera berdintasunean aurrera egitea errazteko beharrezkoak diren politikei buruzko eredu onak ematera zuzenduriko esperientzien sistematizazioa sustatzea.
- Euskadiko erakunde edo organizazioetan garapen bidean dauden herrialdeetan aukera berdintasunaren alde lan egiten duten emakumei zuzenduriko trebakuntza programak egitea.
- Euskadiko eta garapen bidean dauden herrialdeetako erakundeen artean lankidetzako eta trukeko ekintzak sustatzea jardunaldien, hitzaldien, nazioarteko sareen, argitalpenen, eta abarren bitartez.

Iturria: EMAKUNDE, 1999.

Emakumeak eta genero ekitatea garapenerako udal lankidetzan

Vitoria-Gasteizko Emakumeentzako Ekintza Positiboko Udal Planak genero ikuspegia lankidetzan politika eta programetan sartzea du helburu eta horretarako ekintza hauek ezartzen ditu:

1. Lankidetzan jarduten duten pertsonak hurbiltzea sustatzea, batez ere GGKEetakoak eta emakumeen elkarte eta kolektiboetakoak, genero ikuspegiak lankidetzan gaietan dituen ondorioen inguruko hausnarketa errazteko helburuarekin.
2. Garapen bidean dauden herrialdeetan finantzatzen ari diren eta genero ikuspegia sartzen duten edo emakumeak elementu nagusia diren esperientziak aditzera ematea.
3. Garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeen kolektiboen eta gure inguruko emakumeen kolektiboen arteko topaketa sustatu eta erraztea, emakumearen paperari buruzko esperientziak eta ikuspegiak eta gizartean eta politikan duten parte-hartzea eta pisua handitzera jotzen duten estrategiak banatzeko helburuarekin.
4. Diru-laguntzak eta lankidetzan hitzarmenak ematerakoan balioztapen irizpide gisa ezartzea haien diseinuan genero ikuspegia sartzea, bai eta segimendu eta balioztapenerako emaitzak sexuka desberdintzen dituzten adierazleak, emakumeek kudeaketan duten parte-hartzea eta proiektuek duten eragina zehaztea ere, emakumeek duten parte-hartze sozio-politikoari dagokionez.
5. Lehentasunez emakumeak laguntzea, baldintza akademiko berdinetan, garapen bidean dauden herrialdeetako pertsonen eskaintako trebakuntza beketako balizko programetan.
6. Genero ikuspegia garapenean sartzeari buruzko gaien inguruko trebakuntza programak antolatu eta koordinatzea, GGKEei zuzendurikoak eta garapen bideetan emakumeekin lan egiten esperientzia duten kolektibo eta erakundeen parte-hartzera irekiak daudenak, aurkezten diren proiektuek emakumeen diskriminazio eta emakume eta gizonen funtzio tradizionalen egoera ez errepikatzekeko helburuarekin.

Iturria: Vitoria-Gasteizko Udala, 1999.

ritzak Txilen eta Guatemalan batera finantzaturiko proiektuetan genero ikuspegiaren analisisan jartzen duena arreta⁷, ematen dute esparru horretan joan den mendearen amaiera bitarte egindako Euskadiko lankidetzaren ofizialaren ahaleginak balioztatzeke aukera.

Lehenengoak ondorioztatzen du 1988 eta 1994 artean, proiektuen %9 eskas eta Euskadiko laguntza ofizialaren zenbatekoaren %7 zuzendu zela emakumeen proiektuetara. Bigarrenak biltzen du 1988 eta 1997 artean Txilen eta Guatemalan finantzaturiko 65 proiektuetatik 5 bakarrik zuzendu zirela berriaz emakumeei eta beste hiruk kontuan hartzen zutela haien ekintzek gauzatzen diren komunitateetan izaten duten genero eragina (ikerlan horrek ez ditu *emakume osagai* bat duten eta emakumeei haien ugaltze funtzioekin erlazionaturiko zenbait jarduera esleitzen dizkieten proiektuak analizatzen).

Eusko Jaurlaritzak emakumeek garapenean duten parte-hartzea hobetzeko eta genero ekitatea lortzeko egindako ekintzen balantze orokorra ez da oso pozgarria izan joan den mendearen amaiera bitarte. Hala eta guztiz ere, azken bi urteetan Lankidetzarako Zuzendaritzan ekitateari buruzko printzipioen adierazpenak GLB-ELGAREN orientabideekin koherenteak diren lankidetzarako estrategia eta politika bihurtzeko ahalegin sakona ikusten da.

18. koadroa. Emakumeei zuzenduriko proiektuak (1988-1994)

Urtea	Emakumeentzako proiektuak	Proiektuen guztizkoaren gaineko %	Emakumeentzako proiektuentzako laguntza	Guztizko laguntzaren gaineko %
1988	3	7,5	14.037.760	4,8
1989	4	12,1	31.275.890	7,2
1990	6	9,8	47.067.753	5,4
1991	4	5,6	101.507.000	11,2
1992	8	25,1	101.174.239	17,2
1993	1	3,2	8.917.000	0,9
1994	4	7,1	45.431.103	5,2
Guztizkoa	30	9,2	349.410.745	7,1

Iturria: González, S., 1995.

⁷ VALLÉS, E. (1998), *El enfoque de género en los proyectos financiados por el Gobierno Vasco en Chile y Guatemala desde 1988 hasta 1997*. Mimeo.

Garapeneko genero ekitatearen inguruan harturiko konpromisoak *desagertzea*

Azken bi hamarkadetan, lankidetzan aritzen diren gobernu guztiek emakumearen garapeneko parte-hartzearen edo emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko politikak hartu dituzte. Laguntza jasotzen duten herrialde gehienek ere konpromiso politikoak hartu dituzte, estatuko berariazko adierazpen politikoan, NBEaren Emakumeen aurkako diskriminazioa desagerrarazteari buruzko Hitzarmena berrestearen edo Beijingo Munduko Ekintzako Plataforma bezalako nazioarteko adierazpenak hartzearen bitartez.

Hala eta guztiz ere, Sara H. Longwek (1995) azpimarratu zuen moduan, konpromiso politiko horiek askotan desagertu egiten dira politikak eta programak formulatu eta martxan jartzeko garaian. Hori guztia bi motatako faktoreen ondorio da:

- Iparraldeko gobernuak ez diote arreta sistematikorik jartzten emakumearen parte-hartze edo berdintasun gaietako beren konpromiso politikoei programak formulatzeko garaian edo lankidetzan instrumentuen plangintzan edo kudeaketan zehar.

Herrialdeko eta sektoreetako estrategiak formulatzeko egingandako analisiek konpromiso horien erreferentziak bil ditzaizkete baina bereizitako atal batean aurkezten dira analisia osatzen duen zati gisa beharrez. Konpromiso politikoa geroz eta gutxiago ikusten da proiektuaren helburuak, espero diren emaitzak eta egikaritze eta balioztapen estrategiak zehazteko prozesua aurrera doan heinean. Gertatzen da ere konpromiso hori baliabideak esleitzerakoan lehentasun gutxi duen *emakume osagai* izatea edo hainbat jardueratan parte hartzen duten *emakumeak zerrendatzean* datzan ikuspegia izatea.

- Era berean, garapenerako laguntza jasotzen duten herrialdeetan gobernuak harturiko konpromiso handiak askotan ez dira sektoreko politikan islatzen.

Kasu askotan, emakumeei eta berdintasunari buruzko gaiak emakumearen garapen sektore gisa hartzen dira eta ez dira sektoreko analisietako, programen formulazioko eta haien egikaritzearen segimenduetako prozesu orokorretan biltzen.

Iturria: Garapena Laguntzeko Batzordea, 1998.

19. koadroa. **Emakumeentzako proiektuak jarduera sektoreka (1988-1994)**

Sektorea	Proiektuak	Proiektuen guztizkoaren gaineko %	Zenbatekoa (pezetak)	Guztizko zenbatekoaren %
Trebakuntza	18	60,0	265.527.668	76,0
Osasuna	3	10,0	11.482.000	3,3
Sentsibilizazioa	2	6,7	1.886.000	0,5
Etxebizitza	4	13,3	20.710.761	5,9
Nekazaritza	1	3,3	20.543.417	5,9
Artisautza	2	6,7	29.260.899	8,4
Guztizkoa	30	100,0	349.410.745	100,0

Iturria: González, S., 1995.

20. koadroa. **Eusko Jaurlaritzak finantzaturiko emakumeei zuzenduriko proiektuak eta genero ikuspegia duten proiektuak (1988-1997)**

Herrialdea	Proiektuen guztizkoa	Zenbatekoa (milioi pezeta)	Emakumeentzako proiektuak	Genero ikuspegia duten proiektuak	Guztizko zenbatekoaren gaineko %
Guatemala	24	258	0	3	31,0
Txile	41	909	5	0	17,3

Iturria: Vallés, E., 1998.

4

Emakumeak eta generoa gobernuz kanpoko lankidetzan

4.1. GGKEAK, EMAKUMEAK ETA GENERO EKITATEA GARAPENEAN

Nahiz eta Iparraldeko herrialdeetako gobernuz kanpoko erakundeek urte batzuk daramatzaten Hegoaldeko emakumeen aldeko lankidetzari arreta jartzen, generoa garapenean gaiari buruzko haien hausnarketa nahiko berria da, eta askoz ere berriagoa da oraindik ikuspegi hori beren ekintzetan eta erakunde funtzionamenduan sartzea.

GGKEetako emakumeak eta garapenari buruzko eztabaidetan behin eta berriz errepikatzen den gaia da erakundeetan bertan aldaketak sartzeko beharra, arazoa badagoenaren kontzienteagoa izateko eta bere lan alor guztietan praktika koherenteagoa sustatzeko. GGKEek beren Hegoaldeko erakunde elkartuei emakume eta gizonen arteko berdintasunari arreta gehiago jartzeko ezin diete eskatu beraiek ez badute hori bera egiteko asmorik erakusten eta ikuspegi horretatik sortzen da, neurri batean behintzat, beharra.

1988an Europako GGKEek egindako inkesta batek⁸ adierazi zuen %3 eskasek zuela pertsona, talde edo sail bat emakumeak eta garapenarekin erlazionaturiko gaietarako (zifra %4raino joaten zen Frantziako erakundeen kasuan eta %61era Holandakoenen kasuan); Europako GGKEen %93k ez zuen berriaz emakumeekin egindako proiektuetara zuzenduriko aurrekontu sail bat eta, bazutenetan, esleituriko zenbatekoa aurrekontu guztiaren %9 zen batez beste.

⁸ GGKE-EB Lotura Batzordea. *La situación de las mujeres en las ONGD europeas*. 1989.

Emakumeei zuzenduriko garapen ekintzak martxan jartzeko GKEEek aipaturiko arazoan artean baliabide falta, erabakiak hartzeko barruko egiturak, genero gaien kontzientzia nahikoa eza eta lan estrategia eta ikuspegiak aldatzeko borondate falta zeuden. Inkestak mezu oso argia bidaltzen zuen: GKEEek beren printzipio adierazpenak lankidetzaren politika bihurtu ahal izateko, aurrez generoaren hausnarketa beren erakundeetan *instituzionalizatu* behar zuten.

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna garapenaren helburu estrategiko gisa aitortzea GGKEentzat erronka da eta erakunde horiek ziurtatu behar dute berdintasuna eta beste lehenetasunen eta garapeneko alorren artean lotura argiak egotea. Berdintasuna *osagai* gisa tratatzen bada arrakasta edukitzeko probabilitateak oso urriak izango dira.

GGKE askok tratatu dituzte *emakumeen proiektuak* gainerakoetatik bereizitako sektore edo alor gisa. Zaila gerta daiteke ikuspegi hori gaingintzea eta politika eta programa guztietan *genero integratzeko* estrategia bihurtzea.

GGKE batzuk mantentzen dute emakumeei orientatuak daudela eta horrekin nahikoa dela. Nahiz eta garrantzitsua den haien parte-hartzea handitzea, horrek ez du automatikoki emakume eta gizonen arteko erlazio ekitatiboagoetara eramaten. Gerta daiteke emakume gehiago onuradun egiteak desberdinkeria zuzentzeko ez balio izatea, botere gaiak jorratzen ez badira eta emakumeak berdintasun egoeran sartzen ez badira erabakiak hartzeko prozesuan.

Iturria: Comité de Ayuda al Desarrollo, 1998.

4.1.1. **Genero ikuspegia instituzionalizatzeko mekanismoak**

GGKE askok garapen prozesuetan genero ekitatea lortzeko politikak egin dituzte, horien lankidetzaren ekintzetatik zer lortzea espero duten eta aurrera nola eramango dituzten nahiko argi ezarriz. Hala eta guztiz ere, esperientziak azaltzen du genero politiken existentzia, nahiz eta idatzita dagoen eta ofiziala den, ez dela nahikoa praktikan jartzea ziurtatzeko.

Genero ekitatearen alde egindako lana indartzeko, GGKE batzuk beren intentzio politiko onak errealitate bihurtzeko, beren programa eta proiektu guztiek genero gaiak kontuan edukiko dituztela ziurtatzeko eta haien segimendua eta baliotzatzea errazteko aukera ematen dieten mekanismoak eta prozedurak ezarri dituzte. Horietako erakunde batzuk beren

lan egitura eta kultura aztertu dituzte, erakundearen barruan boterea nola erabiltzen den eta, bereziki, erakundearen bertan emakumeek duten mendekotasun egoera eztabaidatuz.

Hausnarketa horretan elementua gakoa «genero trebakuntza da, jarduera batek emakume eta gizonen arteko erlazioetan eta kontzientziaren oinarriaren plangintzan dituen dimentsio, ikuspegi edo ondorioei buruzko kontzientzia sortzeko prozesu» gisa ulertua.

GGKEek genero trebakuntza hainbat modutan erabiltzen dute: hezkuntzako tresna gisa, kontzientzia hartzeko eta emakumeak boteretzeko estrategia gisa, hausnarketarako eta eztabaidarako espazio gisa, bai eta genero interesen inguruko errebindikaziorako eta borrokarako aukera gisa ere. Hala eta guztiz ere, edozein delarik ere berehalako funtzionaltasuna, genero trebakuntza *aldaketa prozesu bat da*: genero gaien inguruan harturiko ezagupen berriek berekin erakundea osatzen dutenen jarrera aldaketa eragitea nahi du. Hauek dira garrantzi handia duten alderdi batzuk:

- Genero trebakuntza hezkuntza prozesu jarraitua da, trebakuntzaren gertaera konkretura mugatzen ez dena, hausnarketaren segimendu eta eguneratze etengabea behar duena baizik.
- Erakunde baten langile guztiekin garatu behar da, zuzendaritzarekin boluntarioekin eta administrazioko langileekin. Jendeak bere erakundeko lan kultura kritikoki begira dezan laguntzen du eta, maila zabalagoan, garapenaren gaiarekin erlazionaturiko gai teoriko eta estrategikoei buruzko eztabaida eta analisi emankorrak eragin ditzake.
- Genero trebakuntza ez da *emakumeei buruz edo emakumeentzako*, emakume eta gizonetan eta haien botere erlazioetan datza. Europako zenbait GGKE berariaz gizonei zuzentzen ari dira eta EUROSTEP Europako GGKEen sarea osatzen duten bi agentzietatik batek gizonak erabiltzen ditu genero trebatzaile gisa.
- Oso espezializatua den jarduera profesionala da, horretan jarduten direnei etengabeko trebakuntza eskatzen diena testuinguru desberdinetara egokitzeko gai izateko, tresna eta metodologia egokiak sortuz.

Hala eta guztiz ere, GGKEetako langileek genero trebakuntza edukitzeak ez du ziurtatzen, bere horretan, ikuspegi hori erakundearen pentsamenduan eta ekintzan sartzea. Zentzu horretan, ELGAko Garapena Laguntzeko Batzordeak

planteatzen du, horretaz guztiaz gain, egitura berriak eraiki behar direla: «Nahiz eta ez dagoen adostasunik emakume eta gizonen arteko politikak egikaritzen laguntzeko egitura instituzionalik onena zein denaren inguruan, bistakoa da berdintasun helburuen katalizatzaile eta defendatzaile gisa balioko duen mekanismo baten beharra. Genero politikak ez dira “auto-egikarigarriak”, baliabideak behar dira».

Europako GGKEek genero lana beren egituretan sartu duten modua analizatzean, desberdintasun ugari topatzen dira: batzutan, gai hori nahiko integratua dago beren egitura formaletan, erakundearen instantzia gakoetan generoan espezializaturiko unitatea edo bulego edo pertsona aditu batekin; besteetan, lana boluntarioetan edo aholkulari kontratazio zehatzetan oinarrituta egiten da; kasu batzuetan, gehiengutan, ez dago gai horiek lantzeko ez politikaririk ez eta egituraririk ere eta egiten den gutxia emakumezko kide batzuen uste sendoaren eta konpromisoaren mende dago.

Eztabaida etengabe bat dago GGKEetan —bai eta gobernuko eta alde askotako lankidetzak agentzietan ere— genero berdintasunaren inguruko berariazko ezagupenak eta ardurak dituzten pertsonak non jartzearen inguruan. Galdera aukera moduan aurkeztu ohi da: Desiragarria al da genero unitate bat erakundearen gainerako sailetatik bereizita ezartzea edo komenigarriagoa al da genero gaian adituak diren langileak erakundeko sail guztietan sartzea?

Formula bat edo bestea erabiltzen hainbat urte daramatzaten Europako GGKEen esperientziak adierazten du konponbiderik egokiena dela estrategia biak aldi berean erabiltzea, ez baitira ez antagonikoak ez eta baztertzailak ere, batak bestea indartzen du. Hori bai, erakunde bakoitzak bere kultura instituzional berezia eta genero ekitatearen aldeko aldaketarako indarra ditu —eginkizunaren eta helburuen, historiaren, tamainaren, jardueren, funtzionamendu ereduaren arabera eta aldaketaren aurrean dituen erresistentzia eta blokeoen arabera— eta kontuan hartu behar dira genero lanerako egitura onena aukeratzeko garaian.

Hiru gaietan, aldiz, badago adostasuna generoaren eta garapenaren eremuan lan egiten dutenen artean:

- a) *Generoa erakundeetan sartzeko* prozesua ez litzateke pertsonak postu onetan jartzen dituen prozesu gisa bakarrik ikusi behar, genero ekitatea lankidetzak erakundearen pentsamendu eta praktiketan sartzeko helburuarekin ere, edo hobe esanda, batez ere helburu horrekin ikusi beharko litzateke.

- b) Ekitate helburuak GGKEen programetan sartzeak konpromiso politiko bat eskatzen du abiapuntu gisa, bai-na bai eta ezaguera teknikoak ere; genero lana espezializazio profesional bat da eta GGKEek baliabide kualifikatuak behar dituzte horretan jarduteko.
- c) Genero politikak ezartzearen eta GGKEen praktikak aldatzeko baliabideak erraztearen ardura erakundeko zuzendaritzarena da. Giza garapenerako lankidetzan aritzen den erakunde bat zuzentzearen funtzioak erakundean generoa sartzea eskatzen du, maila guztietan eta alor guztietan, eta zuzendaritzak eremu horren inguruan egindako aurrerapenen berri eman beharko luke.

Genero ikuspegiaren instituzionalizazioa Europako zenbait GGKEtan

OXFAM (Erresuma Batua eta Irlanda)

GGKE horrek mila langile baino gehiago ditu, 72 herrialdeetan lan egiten du eta *tokiko* 45 bulegotatik eta Oxforden dagoen egitura nagusitik zuzentzen da, aholku unitateak eta funtsak biltzen, hezkuntzan eta kanpainetan aritzen diren sail eta alorrak ditu. 1993an bere genero politika onartu zuen, sei urtean zehar prestaketan, eztabaidan eta negoziaketan aritu ondoren eta agiriaren hamabi zirriborro eztabaidatu ondoren. Erabakia, neurri handi batean, Genero eta Garapen Unitatearen (GADU) lanaren emaitza izan zen.

Bere zuzendariaren erabakiz 1985ean sortua, GADU OXFAMek bere bulego nagusietan duen unitate aholkulari bat da, zehazki Itsasoz Besteko Laguntzarako Dibisioan dagoena. 1988az geroztik, unitatea genero eta garapen adituek osatzen dute (kontratu finkoa duten lau pertsona eta aldi baterako kontratua duten beste batzuk, proiektu espezifikoen arabera) eta aholkulariak kontratatzen ditu lan konkretuetarako. Bere mandatua genero-erakundearen ardura garapenerako politika eta programen alderdi guztietan sartzea da, bai eta erakundearen trebakuntza eta presio politikoko ekintzetan ere.

Nahiz eta bere jarduera eskualdeko bulegoek aurkezten zizuten aholkurako eskaerei erantzuna emanez hasi zuen, berriki bulego horietan genero politikako adierazpenei laguntza emateari bulego nagusiko langileen laneko jarreraren eta praktiketan eragiteko sareak sortzea gehitu dio, bai eta Erresuma Batuan eta Irlandan egindako ikerketa, trebakuntza, balioztapen, presio politiko eta zabaltze jarduerak ere.

Aholku unitatea denez, GADUk kontsultarako funtzioa du, ez du aurrekonturik erabiltzen eta ez du erabakiak hartzeko bo-

tererik, eta bere indar nagusia presio eta kontrol unitate gisa jardutea da, gaia etengabe agendan egon dadin ziurtatzeko. Nahiz eta bere kideek baieztatzen duten bereizitako unitate bat egotea erabakigarria izan dela genero politikak formulatzeko, aitortzen dute beren zailtasun nagusiak OXFAMen ezaugarri instituzionalatik etorri direla eta arazo horien artean daude aholku unitateek duten estatus baxua, genero unitateak bulego nagusietan duen kokalekua versus erakundearen funtzionamendu nahiko deszentralizatua, eta geopolitikan indar handiagoa jartzea gairakako edo zeharkako lanean baino.

NOVIB (Holanda)

Genero lana erakundearen funtzionamenduan guztiz instituzionalizatua dago, egitura bikoitz baten bitartez: genero ardurdun edo aholkulariak erakundearen lau sailetariko bakoitzean (Hezkuntza, Barne Arazoak, Proiektuak eta Idazkaritza Nagusia) eta Emakumeen Lan Taldea, sail bakoitzeko emakumezko bi ordezkari osatzen dutena, gaiaren inguruan dituzten ezagupenetan eta konpromisoan oinarrituz aukeratzen direnak.

1981n talde hori sortzeak Direktorio nagusiko emakumezko kide batzuen eskaerari erantzun zion. Emakume horiek emakumeen erakundeetako ordezkariak ziren eta NOVIBen barruko eta kanpoko politika bat definitzea bultzatzen zuten. Behin taldea sorturik, Direktorioak hezkuntza eta proiektuetako sailen kanpoko jardueran bakarrik sartuko zela azpimarratu zuten; hala eta guztiz ere, Latinoamerikan NOVIBekin elkarturiko emakumeen erakundeek ohartarazi zioten kanporako genero politika bat ezin dela eta ez dela zuzendu behar barruan antzeko bat eduki gabe eta kritika horrek bultzada garrantzitsua eman zion genero politikari NOVIB barruan.

1980ko hamarkadan Emakumeen Lan Taldeak Emakumea eta Garapenari buruzko politika agiri batzuk egin zituen, NOVIBek gai horren inguruan zuen jarrera *paperean jartzeko* asmoz, baina 1990eko hamarkadaren hasieran taldea konturatu zen idatzitako politika ez zela ezarri. 1991n taldeak berriz ere zereginari ekin zion, baina oraingoan ikuspegi desberdina erabili zuen: hala agiria egiteko prozesuan nola edukietan bistakoa zen NOVIB osoaren planteamenduak zirela eta horiek ezartzea erakundearen erantzukizuna zela. Idazkiak, *NOVIBen politikaren profilak emakumeei dagokienez* izenburua zuenak, sail bakoitzarentzat helburu konkretuak adierazten zituen eta ezartzearen azken erantzukizuna zuzendaritzari uzten zion eta ez generoan adituak zirenei edo Emakumeen Lan Taldeari.

Direktorioak agiria onartu zuen eta garai berri bat hasi zen: egun, generoaren inguruko politika eta hori egikaritzea kontuan edukitzen dira NOVIBen urte anitzeko eta urteroko plangintza ziklo zabalean, Emakumeen Lan Taldeak aldiz, ez du haren aplikazioa kontrolatu besterik egiten.

NOVIBek helburu hauek bideratzen ditu bere genero politikarako:

- Emakumeen antolatzeke moduak indartzea;
- Emakumeek erabakiak hartzeke prozesuetan parte hartzea sustatzea;
- Emakumeek baliabide ekonomiko eta ekologiakoak eta oinarriko zerbitzuak (osasun arreta, hezkuntza, edateko ura eta elikadura) lortzeke aukera gehiago edukitzea, bai eta horiei buruz erabakitzeke botere handiagoa ere.
- Emakumeek beren gorputzari buruz erabakitzeke botere handiagoa edukitzea;
- Genero kontzientzia sustatzea gizon eta emakumeen artean, gizon eta emakumeen arteke erlazioei buruz dagoen irudiaren aldaketa eragiteke;
- Iparraldean eta Hegoaldean laguntza sozialaren eta borondate politikoarean oinarria handitzea gizon eta emakumeen arteke botere erlazio desberdinen aurka borroka egiteke.

NCOS (Garapenerako Lankidetzako Estatuko Zentroa, Belgika)

Flandesko 60 GGKEk osatzen duten *aterki erakunde* horrek 1985ean Emakume eta Garapen sail bat ezarri zuen, informazioa eta esperientziak trukatzeko foro gisa balio zuena, bai eta GGKEek batera egindako ekintzak garatzeko ere. Urte batzuk pasa ondoren, beren egiturak aldatzea eta zentroko lan eremu guztietan generoan adituak ziren emakumeak sartzea erabaki zuten. Egun mantentzen dute, aldaketarekin, emakumeek boterea eta ikusgarritasuna galdu zutela eta ondorioztatzen dute hobe dela emakumeen egitura autonomo eta berezia edukitzea.

Beren balantzean adierazten dute genero ikuspegia erakunde batean ondo sartzen denean eta lan horren emakumezko ardurdunak egituraren mailetan sartuta daudenean, zuzendaritzak arazo horren inguruan duen erantzukizuna amaitutzat jo dezakeela eta horrek eragin dezake genero politika paperean bakarrik gelditzea. Horregatik azpimarratzen dute genero lan horretan arreta jartzen duen unitate txiki bat egoten jarraitzeke beharra.

CHRISTIAN AID (Ingalaterra)

30 langile inguru dituen erakunde da, generoa eta garapenaren inguruko lanean berariaz aritzen den unitate bat ez edukitzea erabaki duena, gai horiek erakundearen politika, programa eta prozedura guztietan sartzea erabaki duena baizik.

Bere Emakumeen Foroak, genero gaiak erakundearen lan bakoitzean nabarmentzen saiatzen den aholku gorputzak, gomendio multzo bat idatzi zuen 1983 eta 1987an. Dibisioetarike

batek, Laguntza Sektoreak, haiei erantzun zien erakundearen proiektuen agiriekin genero gaiak behar bezala ez sartzeak arduratzen zuelako eta horrek proiektuetarako funtsak esleitzean eragiten zuelako.

Erakunde txikia izanik, eremuko bulegorik ez duena eta egoitza nagusian aholku unitaterik ere ez duena, CHRISTIAN AIDek erabaki zuen genero lanaren erantzukizun eskusiboa zuen pertsona bat ez edukitzea, proiektuen funtsen inguruko erabakiak hartzeko ardura zuten langile guztiak genero plangintzan trebatzea lehenestea baizik. Epe luzerako prozesu gisa hartu eta instituzionalizatu egin zuen, trebakuntza eta generoko aditu talde bat osatuz, erakundeko jardura guztietan generoa sartzeko modu egokiena bezala hartu zuena lan hori. Plangintza prozedurak ere aldatu zituzten, egiaztatze zerrendak berriz diseinatu eta genero gidalerroak proiektu mailan sartuz.

Iturriak: Moser, C., 1995; Macdonald, M., 1994; NOVIB, 1994.

Genero ekitatea GGKEen Jokabide Kodean

1.1. GGKEen kontzeptua eta ezaugarriak

(...) 4. Gizartea aldatzeko borondatea edukitzea, aktiboki gizartearen hobekuntzan parte hartuz, Iparraldea eta Hegoaldearen arteko erlazio justuago eta ekitatiboagoen aldekoak diren eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna garapen prozesuari atxikitako eta ezinbesteko zati gisa sustatzen duten proposamenekin.

8. Karguak aukeratzeko edo izendatzeko mekanismo garden eta parte-hartzearekin jardutea, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatuz.

1.2. Zenbait kontzepturen inguruko oinarritzko adostasuna

GGKEek pobrezia desagerraraztearen alde borroka egiten dute, pobrezia gizon eta emakumeek dignitate fisiko, mental eta espiritualarekin bizi eta garatzeko oinarritzko elementuen gabezi gisa ulertua, generoari, baliabideei, balio kulturaleri, adinari eta talde etnikoari dagozkien beharrak kontuan edukita.

GGKEek garrantzi handia ematen diete bere pentsamendua eta ekintzari buruz modu erabakigarrian informazioa ematen duten hiru alderdiri: genero berdintasuna, ingurumena errespetatzea eta giza eskubideak sustatzea.

GGKEek, beste batzuen artean, emakumeek, komunitateko kide moduan, erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko bal-

dintzak sortzea izan behar dute helburu; bai eta garapen eta giza-bidezko laguntzako programa guztietan aktiboki sartzea sustatzea ere, horien baliabide eta etekinak lortzeko eta kontrolatzeko aukera berdinak edukitzea ziurtatzeko.

2.1. *Garapenerako proiektuak*

GGKEek Hegoaldean egiten duten lanak pobrezia-aren kausa estrukturalen aurka jardutea eta herrien giza garapena laguntzea du helburu. Horretarako, beharrezkoa da haien arazo-zen zergatiak analizatzea, Hegoaldeko erakundeekin elkarrizketa arina eta lan iraunkorra mantentzea eta beti kontuan edukitzea onuradunen lehentasunak eta protagonismoa, bai eta desberdinkerien (generokoak, etniakoak, eta abarrekoak) aurrean ahalgoak diren taldeak eta haien kolektibo antolatutako lehenestea ere.

2.3. *Garapenerako Sentsibilizazioa eta Hezkuntza*

Jarduera horiekin GGKEek lortu nahi dutena da: (...) justizia, bakea, ekitatea, emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna, demokrazia, parte-hartzea, elkartasuna eta ingurumena babesteko irizpideetan oinarrituriko gizarte aldaketa batera jotzen duten balio eta jarrerak sustatzea.

4.3. *Giza Baliabideak*

(...) GGKEek erakunde barruan arraza, sexu, nazionalitate edo erlijio arrazoiengatik edozein diskriminazio edo bazterkeria gertatzea saihesteko beharrezko neurriak hartu beharko dituzte.

5. *Komunikazio gidalerroak, publizitatea eta irudien erabilera*

Beren komunikazio lanean GGKEek ondorengo gidalerroak errespetatu beharko dituzte:

(...) GGKEen «funtsezko» balioak nabarmentzea beti, justizia, elkartasuna, erantzukizuna eta genero ekitatea kasu.

GGKE-EB Lotura Batzordearen Irudi eta Mezuen Kodean bildutako gomendioak jarraitzea, bereziki hauei erreferentzia egiten dietenak:

(...) Mezuak mota guztietako diskriminazioak saihestu behar ditu (arrazak, sexua, kultura, erlijioa, sozio-ekonomiaren araberakoak).

Iturria: GGKEen Jokabide Kodea, 1998.

Kultura eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna

Genero ekitatearen aldeko borrokaren aurka erabilitako argudio nagusietako bat da elkarturiko herrialdeetako kulturen eskua sartzea dela. Lankidetzak erakundeak «mendebaldeko feminismoa inposatzen» saiatzeko lepora ez diezaieten ahalegindu dira eta, nahiz eta munduko gobernu guztiak onartu duten emakume eta gizonen arteko berdintasuna lehentasunezko gaia dela (Pekineko Munduko Biltzarrean argi geratu zen moduan), maila askotan badago *injerentzia kulturala* kontsideratu daitekeenetik ondorioztatutako kezka bat.

Interesgarria izan ohi da galdetzea zeinek erabiltzen dituen objektu horiek eta zergatik azaltzen duten gaia horrela. Zergatik jotzen da argudio hori erabiltzera desberdinkeria erlazio batzuk defendatzeko jada materializatzen ari diren beste aldaketa batzuen aurka erabiltzen ez denean? Norbaitek genero desberdinkeriak zalantzan jartzen dituztenean zergatik hartzen da tradizio kulturalen manipulazio gisa, baina ez da iritzi berdina izaten aberastasuna edo klaseari dagozkion desberdinkeriak zalantzan jartzen direnean?

Nazioarteko Garapenerako Suediako Aginpideko (SIDA) Genero Berdintasunerako Unitateak bost argudio erabili ditu genero ekitatea lortzeko ahaleginak laguntzea kulturalki desagokoa dela dioen baieztapenaren aurka:

- la garapenerako lankidetzak guztiak mota bateko edo beste aldatzekin du zerikusia, egitura ekonomikoekin, nekazaritza ohituretakoekin, komunikabideetan parte hartzerakoan edo giza eskubideak erabiltzean gertatzen direnekin. Aldaketa guzti horiek kulturen ondorioak dituzte.
- Garapenerako lankidetzak gobernuari laguntzean jartzen du arreta Pekineko *Ekintzarako Plataforma* eta beste hitzarmen batzuk sinatzerakoan hartu dituzten nazioarteko konpromisoak praktikan jartzen. Laguntza zuzena edo zeharkakoa izan daiteke, gizarte zibilaren erakundeekin laguntza forman, batez ere emakumeenei, beren gobernuek konpromisoak bete ditzaten egiten duten presio lanetan.
- Geroz eta gehiago eskatzen dute aldaketa garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeek. Jada ezin da argudiatu berdintasun eskakizunak mendebaldeko herrialdeetatik bakarrik datozenik. Zoritxarrez, emakume horien ahotsak lankidetzak erakundeek —ez diete iritzirik eskatzen— ez dituzte beti entzuten, ez eta komunikabideek, edo beren herrialdeetako funtzionario edo politikariek ere.
- Kulturen hainbat modutan eragiten da. Ekonomiaren geroz eta globalizazio handiagoa eta irudien nazioarteko emaria dela-eta, ia kultura guztiak aldatzen ari dira. Nor-

tasunean eta sexu funtzioetan aldaketan eragiten dituzten irudiak ez dituzte garapenerako programek bakarrik sortzen, beste iturri batzuek ere sortzen baitituzte, Amerikako Estatu Batuetako filmak, pop musika edo Coca-Colaren iragarkiak kasu. Mugimendu erlijioso eta politikoek ere manipulatu dituzte irudiak. Noren kulturaz ari dira kezu direnak? Nork definitu ditu elementu horiek babestu behar diren elementu erabakigarri gisa?

- Azken finean, genero ekitateko gaietako lankidetzaren estrategien oinarritzko printzipioa da erabakiak hartzeko prozedurak zabaltea, hala emakumeek nola gizonek garrantzitsua zer den eta zein beharrek eduki beharko luketen lehentasuna definitzean parte hartzeko. Oinarritzko helburu horren aurka dauden gizonek (hala Iparraldekoak nola Hegoaldekoak) maizegi erabiltzen dute *argudio kulturala*.

Iturria: Garapena Laguntzeko Batzordea, 1998.

Emakumeen irudiak Garapenerako Hezkuntzan

Aldiak	Garapenerako Hezkuntza Ikuspegia	Emakumeen irudiak Garapenerako Hezkuntzan
1950 eta 1960ko hamarkadak	Hegoaldearekiko sensibilizazioa: <ul style="list-style-type: none"> — <i>Garatu beharreko</i> biztanleriaren ikuspegi paternalista. — Karitatezko limosna eskatzen da mezu eta irudi oso gogorrekin. — Helburua funtsak biltzea da. 	<ul style="list-style-type: none"> — Ez dira garapenerako subjektu gisa ikusten. — Dramaren protagonista pasiboak dira, beren ezjakintasunaren biktimak, biztanleria ahula. — Gizonekiko eskubide eta aukera desberdinerari buruzko aipamenik ez.
1960 eta 1970eko hamarkadak	Zapaldukoekiko eta askapenerako mugimenduekiko elkartasuna: <ul style="list-style-type: none"> — Munduko desberdineriaren arrazoi estrukturalak salatzen ditu. — Mendebaldeko eredu menderatzailearekin kritikoa da. — Gizarte klasea da desberdineriaren analisiaren aldagai nagusia. 	<ul style="list-style-type: none"> — Pobreziak ez du sexurik. — Emakumeen zapalketa sistema ekonomiko eta politikoaren ondorioa da. — Emakumeek beren borroka aldaketa politikoa gertatu ondoren arte atzeratzen dute. — Emakumeek paper garrantzitsua dute borroka politikoan, baina eremu pribatuan duten funtzio tradizionala ez da eztabaidatzen.

.../...

.../...

Aldiak	Garapenerako Hezkuntza Ikuspegia	Emakumeen irudiak Garapenerako Hezkuntzan
1980 eta 1990eko hamarkadak	Garapen eredu berria: <ul style="list-style-type: none">— Mundu mailako emantzipazio ekintza, giza garapena eta garapen iraunkorra lagunduko dituena.— Tolerantzia, dibertsitatea eta ingurumena errespetatzea, bakea eta sexuen arteko berdintasuna sustatzen ditu.	<ul style="list-style-type: none">— Emakumeek garapena laguntzen dute.— Gizonezkoenetatik desberdinak diren oinarritzko beharrak dituzte.— Ez dituzte baliabideak lortzen.— Ezinbestekoa da giza kapital horretan inbertitzea.— Genero ikuspegia garapenean sartzeko beharra aitortzen da.

Iturria: Antolín, L.,1999.

4.1.2. Ekitatearen onurarako aldaketa prozesuak: bultzadak eta erresistentziak

GGKEek emakumeak eta genero ekitatea garapenean gaiari eskaintzen dioten arreta emakumeen taldeen sensibilizazio eta presio prozesu luze baten emaitza da, erakundeen barruan eta kanpoan. 1980ko hamarkadatik emakumeen nukleoak egin dira eskatzen dutenak gobernuz kanpoko lankidetzako agentziek gaiaren inguruan jarrera bat hartzea. Horretarako ikerlanak eta balioztapenak bultzatu dira, proiektuek Hegoaldeko emakumeen bizitzetan duten eragin eskasa, negatiboa ez denean, azaltzen dutenak. Froga horiekin hasi dira GGKEak emakumeak/generoa garapenean gaia kontuan hartzen.

Egun, GGKEak aldaketa prozesu batean daude non genero ikuspegia instituzionalki onartu eta eztabaidatzen ari diren. Dena ez dago ez definitua ez eta guztiz argi ere, baina Iparraldeko GGKEetan genero proposamena legitimatzeko prozesuan, oraindik amaitu ez denean, momentu desberdinak identifika daitezke:

- GGKEko langileak sensibilizatzea generoa eta garapenaren gaiaren inguruan.
- Irizpideak eta adierazleak egitea hitzarmenak betetzen direla kontrolatzeko.
- Elkartutako erakundeekin elkarrizketan aritzea ikuspegiaren zehaztapenak eztabaidatzeko.

—GGKEek generoa eta garapenaren gaia beren erakunde politikaren zati gisa onartzea.

Egoera zaila da, GGKEetan aldaketarako bultzadak ba-daudelako baina bai eta erresistentzia edo desadostasun fin eta irekiak ere. Aldaketak sustatzen dituzten emakumeek egin behar dituzte politika irizpideak, programetaz arduratzen diren beren kideei erreferentzia gisa balio dieten instrumentuak eta planteatutako helburuak betetzen diren kontrolatu eta balioztatzeko adierazleak, GGKEko kideak generoarekin erlazioaturiko alderdietan trebatzeaz gain.

Genero ikuspegia garapenean sartzea defendatzen dutenek hainbat argudio erabili dituzte garapen agentzietako politikariak, planifikatzaileak eta zuzendariak konbentzitzeko genero ekitatea garrantzitsua izateaz gain ezinbestekoa ere badenaz. Oro har, erabili diren argudioak mota desberdinetakoak izan dira:

- Eraginkortasunean oinarrituriko argudioak: funtsezko arrazonamendua da emakume eta gizonen arteko berdintasuna laguntzea garapenarentzat ona dela, helburu handiak lortzen laguntzen duela, populazioaren hazkundera murriztea, gizarte arloetan egindako inbertsioen eraginkortasuna edo hazkunde ekonomiko handiagoa kasu.
- Ekitate argudioak: oinarritzko arrazonamendua da berdintasun helburuak onartu behar direla hori ez egiteak injustizia handia suposatuko lukeelako. Edozein garapen agenda osatzen dutenez, neurri aktiboak hartu behar dira derberdinkeriak zuzentzeko.

ELGAko Garapena Laguntzeko Batzordeak planteatzen du beharrezkoa dela eraginkortasunean oinarrituriko argudioak erabiltzerakoan kontuz ibiltzea, saihestea beharrezkoa den ondorioak eragin ditzaketelako:

- a) Ziurtatu behar da argudioaren enuntziazioa ez dela gure kontran bueltatuko, emakumeengan eragin negatiboa izanez.

Alde handiz, emakume eta gizonen arteko berdintasun gaietan oinarrituriko plangintza bat kontutan hartu behar duten politikariak konbentzitzeko modurik errazena da emakumea gutxiegi erabiltzen den, aintzatzat hartzen badira, eta dagoen politikaren ezarpena errazteko mobilizatu daitekeen baliabide gisa aurkeztea... Hala eta guztiz ere, emakume guztiei, dirua duten gutxi batzuei ezik, eragiten dien arazoa ez da gutxiegi erabiltzen den baliabidea izatea, alderantziz,

gehiegi esplotatzen den baliabidea direla baizik. Bada-go berdintasuna defendatuz kontrakoa lortzeko arriskua: emakumearen denboraren eta lanaren erabilera maximizatzea (Elson, 1995).

- b) Berdintasun helburuak eraginkortasun argudioetan barrik oinarrituz justifikatu nahi badira, argudiatzeak porrot egingo du haien aurkako frogaren bat aurkeztean.

Aurkako frogek eraginkortasunean eta emakumearen merezimenduetan oinarrituriko argudioei kontra egin diezaieke frogatzen bada emakumearen produktibitatea gizonarena baino dezente txikiagoa izan daitekeela. Kasu horretan, merkatuaren logika jarraituz, baliabide gutxiago mereziko ditu (Goetz, 1995).

- c) Zalantzak daude genero ekitatearen helburuak *siner-gia* argudioak erabiliz bideragarriak ote direnari buruz, horien arabera berdintasun politikek eta beste edozein politikek beti emaitza hobekak izango dituztelako batera aplikatzen direnean.

Beharrezkoa da genero gaiak «pobreziaren tranpatik» ateratzea. Emakumearen mendekotasuna ez da pobreziaren biktima diren emakumeen arazoetan arreta jarrita konponduko, berdintasun gaiak garapen programetan berriaz kontuan hartuta baizik. Pobreziaren aurkako politikak ez dira bereziki egokiak genero gaiak jorratzeko, ez baita pobrezia emakumearen mendekotasunaren arrazoa (Jackson, 1996).

Genero ekitatearen aurkako erresistentziak

Emakume eta gizonen artean erlazio ekitatiboagoak ezartzea prozesu geldoa da. Beharrezkoa da edozein aldaketaren aurrean mobilizatzen diren erresistentzia formak ulertzea. Erresistentzia kontzientea edo inkontzientea izan daiteke; maila desberdinetan gerta daiteke (pertsonala eta instituzionala); eta bere eragileak emakumeak nahiz gizonak izan daitezke. Sara H. Longwek (1994) hasi zuen erresistentzia estrategiak identifikatzeko prozesua. Ondorengo zerrenda haren lanean oinarritzen da:

Ukapena: argudiatzea emakume eta gizonen arteko berdintasuna ez dela herrialdearentzat (edo eskualdearentzat edo komunitatearentzat) kezkatzeko moduko gaia; edo programa jakin batek ez dituela emakumeak diskriminatzen.

Ekintza sinboliko baten aukeraketa: aitortzen da zerbait egin behar dela berdintasunaren inguruan baina uzkur dira aldaketa

garrantzitsuak kontuan hartzera, beraz, proiektu global baten barruko berariazko proiektu bat edo ekintza bat aukeratzen da, *zerbait* egiten ari direla frogatzeko (baina ez da berdintasuna helburu gisa hartzearen aldeko apustu serioa egiten).

Aho txikiko defendatzailea: erretorika mailan gaia aitortzen da, baina ez da ekintza esanguratsurik egiten.

Ikerlanak enkargatzea: jardun beharrean erabakiak atzeratzen dira informazio gehiago emango duen ikerlan bat enkargatuz, ikerlana amaitzen denean arazoa egongo ez denaren itxaropenarekin.

Emakumeen izenean hitz egitea: aurre-suposatzea emakumeak ikuspegi bakarra eta interes multzo bakarra eta zehatza duen kolektibo homogeneoa direla eta esperientzia bat edo bi emakume guztiei aplikatu dakiekeen baieztapen orokor bihurtzea.

Gaia amaitutzat ematea: berdintasunaren eremuko jardueira atzeratzen da, plangintza prozesu edo erabaki zabalagoen zain.

Konpartimentazioa: ez aitortzea berdintasun gaiak zeharkakoak direla eta ekintza guztiak emakumeen garapenaren arduradun ofiziala den pertsonaren gain uztea. Ondorioz, berdintasunarekiko ardura *sektore* bihurtzen da.

Genero ikuspegia sartzeak esan nahi duena gaizki interpretatzea: emakume eta gizonen arteko berdintasuna proiektu integralaren helburu gisa hartu beharrean, emakumeak tradizionalki beren ekarpena gutxienekoa den jarduera eta programetan sartzean jartzen da askotan arreta. Edo emakumeentzako berariazko programarik ez dagoela argudiatzean, programaren jarduera guztietan parte hartzen dutelako (edo parte hartzera gonbidatzen dituztelako).

Izendapen sinbolikoa: emakumeak batzordeetako partaide izan daitezke izendatzen dira edo erabakiak hartzeko prozesu batean parte hartzera gonbidatzen dituzte. Aldaera bat da emakume eta gizonen arteko berdintasun gaietan interes gutxi duten emakumeak aukeratzea, hain zuzen ere, arrazoi horregatik. Beste bat da berdintasunarekin konprometitutako emakume bat gonbidatzea, baina prozesu osoan eragin txikia duena.

Iturria: Garapena Laguntzeko, 1998.

4.2. 'PRAKTIKA ONAK' HEGOALDEKO EMAKUMEEKIN EGINDAKO LANKIDETZAN

4.2.1. 'Emakumeen Arteko' sarea: Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko lankidetzaren esperientzia

Bere genero politikaren funtsezko zati gisa, NOVIBek egun emakumeen 85 erakunde laguntzen ditu —berekin elkaturiko erakunde guztien %10 inguru. 1987an *Emakumeen Arteko Sarea* sortu zuen, NOVIBen eta Latinoamerikako emakumeen bost erakunderen —gehienak ibilbide luzeko zentro feministak— Hegoalde-Iparralde proiektu bat. Ekimena NOVIBen biltzar batean adostu zen Latinoamerikako 26 erakunde elkarturekin, planteatu zutenak ez zeudela behar hainbeste konprometituak NOVIBen hezkuntza eta presio lanarekin eta, beste alde batetik, NOVIBek Holandan Hegoaldearen irudi errealistagoa aurkeztu behar zuela.

Emakumeen Arteko Hegoaldea-Iparraldea proiektuak, NOVIBeko Proiektu Sailarekin lankidetzan, genero ikuspegi bat sartu zuen agentzia horrek Latinoamerikan laguntzen dituen garapen proiektu guztietan, bai eta, Hezkuntza Sailarekin batera, Holandako publikoari zuzenduriko hezkuntza errealistarako ekintza plan bat garatu ere, bereziki emakumei zuzendurikoa.

Proiektu hori 1992an Hegoalde-Iparralde emakume sare bat bihurtu zen, Hegoaldeko GKEen politiketan, erakunde emaileak eta Munduko Bankua, Europako Batzordea eta Nazio Batuen agentziak bezalako nazioarteko agentzietan eragiten aritzen zena. Egun, *Emakumeen Arteko* Sareak Latinoamerikako 14 herrialdeetako emakumeen erakundeak eta erakunde mistoak biltzen ditu, eta lankidetzaren politikak formulatu eta kontrolatzeko eremuan eragiten du batez ere, garapenerako lankidetzaren eta demokratizazio prozesuetan genero ekitatea eta justizia sustatzeko.

Bere lan ardatzek, parte hartzen duten erakundeekin elkarlanean edo kontinenteko akordioen ondorioz garatutakoak, hauek biltzen dituzte:

- Genero informazioa eta trebakuntza lankidetzako erakundeetako kideentzat, bai eta Latinoamerikako GKE eta gizarte mugimenduentzat ere.
- Garapenari, lankidetzari eta genero erlazioei buruzko kontzeptu eta metodologia erreferentzia diren argitalpenak ekoiztu eta banatzea.

- Kontrolako, elkarrizketako eta presio politikoko ekin-tzak Latinoamerikako hainbat herrialdetako gobernu-ko, gobernuz kanpoko, alde biko eta alde askotako lankidetzaren erlazioetan genero ekitateko politikak sar-tzeko.
- Estatu, kontinente eta mundu mailako beste sare ba-tzuekin elkartzearako lankidetzarako erakundeek genero politikak eta ekintza positiboak garatu eta egikaritzeko.

4.2.2. **Emakumeak Garapenean Europan (WIDE): Europako emakumeen sarea Hegoaldeko emakumeekin lankidetzan**

1985ean sortutako Europako sarea da eta emakumeekin, generoarekin eta garapenarekin erlazionaturiko gaiekin lan egiten duten GGKE, estatuko koordinakunde eta emakume indibidualek osatzen dute. Egun 14 herrialdetan ditu plata-formak, gehienbat Europar Batasunean, eta loturak eraikitzen ditu Europako ekialdeko herrialdeetako emakumeen taldeekin. Europako Batzordearen, GGKEen eta zenbait gobernu-ren finantzamendua jasotzen du. Talde txiki bat du Bruselan eta haren zuzendaritza herrialde bakoitzeko emakumezko ordezkari batekin osatu da eta lanari dagokionez, globaliza-zioan, ekonomia eta merkataritza alternatiboan, Europar Ba-tasuneko politikan, ingurumenean, komunikabideetan, eta abarretan adituak direnen taldeetan egituratzen du.

WIDE osatzen duten taldeek eta emakumeek lau helburu nagusi banatzen dituzte:

- Informazioa trukitzea eta modu eraginkorrean aurre egitea Hegoaldeko emakumeen garapenerako garran-tzitsuak diren gaiei, gai horien inguruko kontzientzia publikoa sakondu eta zabaltzeko ikuspegiarekin.
- Estatuko sareak indartzea Hegoaldeko herrialdeetara zuzenduriko Europako herrialdeen politiketan eragite-ko, Hegoaldeko emakumei, hala Hegoaldean bizi di-renei nola orain Iparraldean bizi direnei, eskainitako laguntza hobetzeko helburuarekin.
- Hegoaldeko emakumeekin erlazionatzea sustatzea, haien lehentasunak WIDEk emakumei garapenean laguntze-ko egiten dituen jardueren printzipio gidariak bihur dai-tezen.
- Europako eta nazioarteko erakundeen aurrean presioa egitea garapenarekin erlazionaturiko gaien inguruan.

Presio politikoa (lobby) WIDEn funtsezko lan bat da, pentsatzen duelako, Europako sare bat denez, Hegoaldeko emakumeak baino baldintza hobeetan dagoela Hegoaldeko herrialde gehienetako garapen politikak zehazten dituzten erakundeen politikak eta programak aldatzeko presioa egiteko, Munduko Bankua, Nazioarteko Moneta Funtsa, Europar Batasuna eta herrialde bakoitzeko alde biko lankide-tzako agentziak kasu. WIDE gehienbat Europako Batzordeari eta Europako gobernuari zuzentzen da Hegoaldera oro har zuzentzen diren haien politiketan eta bereziki Hegoaldeko emakumei zuzendurikoetan eragiteko helburuarekin.

Bere presio politikoko lanak funtsezko zenbait elementu ditu:

- Europako gizartearen analisiak sakontzea genero ikuspegi batetik eta Iparraldea bilduko duen garapen ikuspegi bat birdefinitzea.
- Iparralde-Hegoalde aliantzak indartzea Hegoaldeko emakumeekin sareak sortuz, bereziki DAWNekin, Iparraldea eta Hegoaldearen artean adostasuna eta konfiantza sortzeko.
- Europar aliantzak indartzea, nazioarteko gaietan lan egiten duten emakumeen erakundeen eta estatu gaietan aritzen direnen artean dauden desakordioak puskatzeko. Europar bizi diren Hegoaldeko emakumeen erakundeekin eta Europako beste sare batzuekin, EUROSTEP, APRODEV eta EURODAD kasu, lotura egonkorrak erakitzea.
- Europako Batzordearen eta gobernuen politiketan eragitea, emakume eta genero politiketan, kontrol eta balioztapenean eta Batzordeko langileen genero trebakuntzan egindako aurrerapenak lagunduz.

4.2.3. **Generoa eta garapenaren inguruko lan taldeak Europako GGKE sareetan**

GOOD: Europako GGKE protestanteen sareko Genero taldea

GOOD taldeak generoa eta garapenaren inguruan lan egiten du APRODEV sarean, Europako GGKE protestanteak biltzen dituenean. Taldea 1990ean hasi zen Holandako ICCO agintzaren ekimenez eta laster sartu ziren AG-KED osatzen zuten erakundeak (Alemaniako garapen agentzia protestanteak biltzen dituen egitura, eta bertan daude Pan Para el Mundo eta EZE ere) eta Christian Aid. Oso poliki

hazten ari dira, prozesuan Eskandinaviako eta Suitzako agentziak sartzen saiatzen ari direlako, batez ere HEKS.

Bere egituran talde nagusi bat dauka, Holanda, Alemania, Christian Aid eta Eskandinaviako agentzia bakoitzeko ordezkari bat duena. Elizen Munduko Kontseilua eta Munduko Federakuntza Luteranoaren emakumeen bulegoarekin lankidetzan aritzen dira. Beren helburuak dira informazioa trukatzea eta elkarrengandik ikastea, beren erakundeetan genero lana indartzeko helburuarekin; garapenerako lankidetzak Hegoaldeko emakumeak boteretzea laguntzeko lanean aritzea. Helburu zabalagoa da zalantzan jartzea egun garapenerako lankidetzan gailentzen diren paradigmatik, genero ikuspegitik kontzeptu berrien definiziora.

EUROSTEP

EUROSTEP 15 herrialdeko 22 GGKEtako sare bat da (Novib, Intermon, Ibis, Oxfam, NCOS, MS, Mani Tese, Hivos, CNCI, Ayuda en Acción, besteak beste). GGKE horiek Asian, Afrikan eta Latinoamerikan lanean aritzen dira eta beren baliabide eta ahalmenak bateratzen dituzte garapenerako lankidetzako Europako politiketan eragiteko. EUROSTEPen lan programak bost gairi ematen die lehentasuna: ingurumena, kanpo zorra, Europan integratzea, nazioarteko merkataritza eta Afrika suspertzea.

1993ko maiatzean, EUROSTEP osatzen duten agentziatarako emakumeak Oxforden bildu ziren honetarako:

- Ikerketan, monitorizazioan, balioztapenean dituzten esperientziak trukatzea sustatzeko, bai eta emakumeak/generoa eta garapenarekin erlazionaturiko beren lanerako tresna praktikoa eta estrategia buruzko informazioa ere.
- Metodologia berrien garapena sustatu eta alor horretan praktikarik onenak sistematizatzeko.
- Sarea osatzen duten erakundeetan genero lana indartu eta batera lan egiteko moduak identifikatzeko esfortzuak bikoiztea saihesteko, modu eraginkorrean aurrera egin eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Bileraren emaitza bat izan zen EUROSTEPen Genero Sarea sortzea. Haren helburuak dira Europar Batasunaren lankidetzan politiketan eragitea, emakumeentzako nazioarteko lankidetzaren kalitatea hobetzea eta estrategia komunak definitzea alde askotako eta alde biko laguntzaren norabidea aldatzeko, Hegoaldeko emakumeen bizitzetan eragin erabakigarria baitu.

4.2.4. 'Genero espazioak' Espainiako Estatuko gobernuz kanpoko lankidetzan

Espainiako GGKEen Koordinakundeko 'Emakumea eta Garapena' taldea

GGKEen Koordinakundearen lan talde bat da 1989an sortua eta gobernuz kanpoko hainbat erakundetako emakumeek osatzen dute. Bere helburua da GGKEekin lan egitea generoaren eta garapenaren inguruan, hezkuntza programetan eta garapenerako laguntza programetan sartzeari sustatuz, hala gobernuko lankidetzan nola gobernuz kanpokoan.

Ondorengoak dira bere helburu nagusiak:

- Espainiako eta Europako politiketan eragitea generoarekin eta garapenarekin erlazionaturiko gaien kontzientzia hartzeko eta emakumeek munduan duten papera indartzeko eta berdintasuneko garapen bat sustatzeko.
- Genero ikuspegia GGKEen lanean sartzeari.
- Hegoaldeko emakumeekin eta nazioarteko emakume sareekin duten kontaktua indartzea.

Bere jarduerak generoa eta garapenaren inguruan ikastaroak eta mintegiak egitea da nagusiki; hitzaldiak, eztabaidak eta ikerketak Hegoaldeko emakumeen egoeraren inguruan; presio politikoa garapenerako lankidetzarekin erlazionaturiko erakunde publikoei; argitalpenak eta laguntza sareak sortzea. Era berean, WIDE sarean parte hartzen du eta lankidetzazuzenean aritzen da Latinoamerikako emakume sarearekin, informazioa eta agiriak zabaltzearen bidearen eta nazioarteko foroetan parte hartzearen bidez.

Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Genero taldea

2000. urtean sortu zen eta Genero Taldea Euskadiko GGKEen Koordinakundearen talde operatiboa da eta gobernuz kanpoko lankidetzan aritzen diren 15 bat erakundetako emakume eta gizonak osatzen dute.

Badakite eman beharreko lehenengo pausua GGKEak sensibilizatzea dela emakume eta gizonen arteko desberdineriekin erlazionaturiko gaien inguruan, hala lankidetzan aritzen diren Hegoaldeko gizarteetan nola Euskadiko gizarteetan. Taldeak helburu hauek ditu:

- GGKEetan lan egiten dutenak edo haiekin lankidetzan aritzen direnak prestatzea eta trebatzea bultzatzea, ga-

rapenean genero ekitatea lortzearekin erlazionaturiko gaietan.

- GGKEen hausnarketa laguntzea barruko funtzionamenduan duten genero desberdinkeriei buruz (egitura eta prozedurak, zuzendaritza karguak lortzeko mekanismoak, zereginen banaketa, antolamendu kultura).
- Estrategiak sustatzea GGKEek genero ikuspegia beren jarduera guztietan sartzeko, bereziki garapen proiektuetan eta hezkuntzako ekintzetan.
- Lankidetzaren legea eta lankidetzaren politika publikoak egitean eragitea, genero ekitatea lortzea gehiago lagun dezaten.
- Elkarrekiko koordinazioa eta laguntza erlazioak ezartzea gainerako GGKEen erakundeen emakume eta genero espazioekin.
- GGKEen eta Hegoaldeko emakumeen erakundeen arteko erlazioak eta trukeak sustatzea.

Bere jarduerak bi gidalerro jarraitu dituzte: alde batetik, generoaren eta garapenaren plangintzaren inguruko ikastaroak antolatzea, GGKEetako langile teknikoei zuzenduak; eta bestetik, material didaktikoa prestatzea (*Guía para alfabetizarse en Género y Desarrollo* izenburua duen liburua, adibidez), GGKEei emakume eta gizonen arteko desberdinkeriararen inguruko beren ikusmoldeak, jarrerak eta praktikak berrikusten lagunduko diena.

Bibliografia

GOMENDATURIKO OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

BARRIG, M. y WEHKAMP, A. (ed.) (1994), *Sin morir en el intento. Experiencias de planificación de género en el desarrollo*. Novib / Entre Mujeres, Lima.

Liburu honek Latinoamerikako eta Holandako aholkulariek generoaren garrantzia garapeneko proiektuetan sartzeko askotan zaila den bidean izan dituzten esperientziak laburbiltzen ditu. Liburuki honek askotariko gaiak jorratzen ditu, plangintzako eta balioztapenaren metodologiako estrategiak barne, begirada gobernuz kanpoko erakundeetan, emakume nekazarietan eta lankidetzako agentzietan jarriz.

BOSERUP, E. (1993), *La mujer y el desarrollo económico*. Minerva arg., Madril.

Liburu hau aitzindaria da garapenari loturiko modernizazioak eta industrializazioak emakumeengan izan duen eraginari buruz ikeritzen eta eztabaidatzen, eta xehetasun osoz analizatzen du emakumeek nekazaritza sistema desberdinetan duten funtzioa, garapenak haien lanean eta ekoizpenean duen eragina, lurraren jabetza edukitzeko eskubidea eta mendebaldeko sistema ekonomikoak Afrika eta Asiako zenbait herrialdeetan duten eragina. Emigrazioak eta nekazaritza gailentzen zen bizimodu batetik industrializazioan oinarrituriko sistemara iragaiteak beren lanbideetan eta industrian aukera berriak zituzten emakumeen bizitzan izan dituzten ondorioak ere aztertzen ditu egileak.

CAD (COMITÉ DE AYUDA AL DESARROLLO) (GLB, GARAPENA LAGUNTZEKO BATZORDEA) (1998), *Directrices y guía de conceptos del CAD sobre la igualdad entre mujeres y hombres*. AECI / MAE, Madril.

Liburu honek ELGAko GLBak onarturiko bi agiri biltzen ditu: gizon eta emakumeen berdintasuna eta emakumeen boteretzeari lotzeko jarraibideak eta emakume eta gizonen arteko berdintasunare-

kin erlazionaturiko kontzeptu eta ikuspegi gidaliburua. Lanerako eta analisisirako nazioarteko mailan homologatuak dauden jarraibideak eskaintzen ditu emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaren inguruan eta eremu horretan garapenerako lankidetzaren eraginkortasuna eta kalitatea hobetzen laguntzeko asmoa du.

GUZMÁN, V., PORTOCARRERO, P. y VARGAS, V. (comp.) (1991), *Una nueva lectura: Género en el Desarrollo*. Entre Mujeres / Flora Tristán, Lima.

Gazteleraz idatzitakoen artean argitalpen aitzindaria da genero ikuspegitik emakumeei zuzenduriko garapenerako lankidetzan. Garapenaren eta Iparraldea eta Hegoaldearen arteko lankidetzaren gai garrantzitsuen irakurketa berri bat proposatzen du. Moser eta Youngen artikuluek emakumeen behar eta interesak, Estatuarekin duten erlazioa eta genero plangintzaren irizpideak ulertzeko oinarritzko kontzeptuak ematen dituzte. Gainerako egileek Latinoamerikako emakumeek duten egoera diagnostikatzen dute teknologia berrien, hezkuntzaren eta trebakuntzaren, bortizkeriaren eta etxeko lanen gizarteratzearen inguruan; garapenak eta lankidetzak emakumeentzat dituzten arazoak jorratu eta genero plangintza egikaritzeko tresna erabilgarriak eskaintzen dituzte.

KABEER, N. (1998), *Realidades trastocadas. Las jerarquías de género en el pensamiento del desarrollo*. Paidós arg./ UNAM, Mexiko.

Egileak, Sussexeko Unibertsitateko Garapenaren Ikerketetako Institutuko ikertzailea denak, «emakumeen» egoera larria analizatzen du garapenaren pentsamenduko berariazko kategoria gisa eta eremu alternatiboak eskaintzen ditu generoko hierarkiak analizatzeko. Liburuak garapenaren teoriaren ikuspegi kritiko bat ematen du trebakuntzaren ikuspegi desberdinen alderaketarekin eta genero plangintzarekin, bai eta garapen politika zehazten duten erakundeen analisi bat ere.

LÓPEZ, I. y ALCALDE, A. R. (coords.)(1999), *Relaciones de género y desarrollo. Hacia la equidad de la cooperación*. Los libros de la Catarata / IUDC-UCM, Madril.

Liburu honetako analisi eta proposamenek garapenaren gakoa diren hainbat dimentsio jorratzen dituzte Latinoamerikako, Afrikako eta Magrebeko herrialdeetako esperientzietatik eta parte-hartzea, demokratizazioa, pobrezia eta giza eskubideak azpimarratzen dituzte genero ikuspegitik. Arazoak ere analizatzen dira eta proposamenak egiten dira genero berdintasuna garapen bidean dauden herrialdeetako erakunde publikoetan, GGKEetan, lankidetzaren proiektuetan eta garapenerako hezkuntzan sartzeko.

MOSER, C. (1995), *Planificación de Género y Desarrollo. Teoría, práctica y capacitación*. Entre Mujeres / Flora Tristán, Lima.

Moserren generoan oinarrituriko plangintzari buruzko idatzi guztien bilduma. Metodo horrek dio emakume eta gizonen Hirugarren Munduko gizarteetan funtzio desberdinak dituztela eta ondorioz, behar desberdinak dituztela. Genero plangintzako ikuspegiak

generoa proiektuen plangintzan sartzeko egitura teorikoa eta tresna metodologikoak eskaintzen ditu, emakumeen funtzio hirukoitzean eta generoen behar praktikoa eta behar estrategikoen arteko desberdintasuna aitortzean oinarrituz. Egileak emakumeak eta garapena gaiari (ongizatea, aukera berdintasuna, pobrezia, aurreraketa, eraginkortasuna eta boteretzia) aplikaturiko ikuspegi desberdinen inguruko kritika bat egiten du.

OSTERGAARD, L. (coord.) (1991), *Género y Desarrollo. Guía práctica*. MAE / Comisión de las Comunidades Europeas, Brusela.

Liburu hau, Europako Batzordearen Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak argitaraturikoa, saiatzen da azaltzen nola handitzen den garapen programen eraginkortasuna genero ideia horietan sartzen denean. Liburukiak metodo berriak eskaintzen dizkigu emakumei buruzko informazio fidagarria biltzeko eta genero gaiak garapenerako laguntza sartzeko beharrezko elementuak analizatzeko, bai eta lortzeko jarraibide praktikoa eman ere. Beste egileek idatzitako kapituluak nekazaritzaren, enpleguaren, etxebizitzaren edo garraioaren alorrean emakumei eragiten dieten genero arazoak jorratzen dituzte. Osasuna, sarreren banaketa eta familiako baliabideen kudeaketa bezalako gaiak ere aztertzen dituzte.

PNUD (Programa de Naciones Unidas para el Desarrollo) (Garapenerako Nazio Batuen Programa), *Informe sobre Desarrollo Humano 1995*.

Giza garapena, emakumearen egoera biltzen ez duenean, arriskuan dago. Hori da 1995eko Giza Garapenari buruzko Txostenaren mezu sinplea, baina garrantzi handia duena. Txosten horretan emakume eta gizonen egoeran dauden desberdintasunak murrizten azken hamarkadetan egin den aurrerapena analizatzen da; emakumearen geroz eta handiagoa den gaitasunaren eta bere aukera mugatuaren arteko diferentzia handiak eta iraunkorrak azpimarratzen dira; bi neurketa berri sartzen dira munduko herrialdeen artean sexuen arteko berdintasunean lortutako emaitzen arabera hierarkizazio bat ezartzeko; emakumearen gutxiespena eta haien lanaren aintzatespen eza analizatzen dira eta bost puntutako estrategia bat eskaintzen da sexu biei datozen hamarkadetan eskainiko zaizkien aukerak orekatzeko.

SEN, G. y GROWN, C. (1988), *Desarrollo, crisis y enfoques alternativos: perspectivas para la mujer en el Tercer Mundo*. El Colegio de México, Mexiko D.F.

Liburu hau Hegoaldeko emakumeekin egindako lanean boteretzaren ikuspegiaren lehenengo adierazpentzat hartzen da. Azken hogeita hamar urteetako garapen politiken ondorioak aztertzen ditu, bai eta egungo krisi globalek —ingurumenarenak, kanpo zorrenak, fundamentalismoarenak eta militarizazioarenak— emakumeengan izan duten eragina ere. Liburua emakume pobreek beraien artean laguntzeko, mobilizatuz eta antolatuz, egin dituzten ahaleginen analisiarekin amaitzen da.

TINKER, I. (1990), *Persistent Inequalities. Women and World Development*. Oxford University Press, New York.

Emakumeak eta garapenaren gaiaren sarrera bat eskaintzen duen antologia da, arazo horren inguruko iraganeko eta egungo hausnarketak kontuan hartuta egin dena. Liburuan biltzen diren artikuluek, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeetako hainbat emakumek idatzitakoek, hiru gai nagusi jorratzen dituzte: emakumeak eta garapenaren inguruko politikak, familia barruan lanaren banaketa eta kontrola eta generoaren araberako lanaren banaketa.

VV. AA. (1997), «Más allá de Beijing. Género, cooperación y desarrollo». *Temas de Cooperación* 9. zenb. Coordinadora de ONGD-España, Madrid.

Estatuko GGKEen Koordinakundearen zenbaki monografikoa, genero ikuspegia lankidetzako teorian eta praktikan sartzeko ahaleginean izandako aurrerapenak islatzera zuzendurikoa. Latinoamerikako eta Europako hainbat emakumeren hausnarketa teorikoak eta Europar Batasuna eta Espainiako gobernua genero ikuspegia aplikatzeko ari diren moduaren inguruko azterketa sakona biltzen ditu, bai eta gaiaren inguruko agiri ofizialak eta Europako ebazpenak ere.

VISVANATHAN, N. (ed.) (1997), *The women, Gender and Development Reader*. Zed Books, Londres.

Emakumeei, generoari eta garapenari buruzko oinarritzko irakurketen laburpena da, non gaiaren inguruko eztabaida teoriko garrantzitsuak eta hitzaldiak biltzen diren ikuspegi historiko batetik eta aldi berean munduko eskualde guztietako kasu azterketak aurkezten dira.

EMAKUMEEI, GENEROARI, GARAPENARI ETA LANKIDETZARI BURUZKO ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

ACORD y HADJIPATERAS, A. (1997), «Implementing a gender policy: strategies, constraints, and challenges», *Gender and Development*, 5. lib., 1 zenb., Oxford.

AGARWAL, B. (ed.) (1988), *Structures of Patriarchy: State, Community, and Household in Modernising Asia*. Zed Books, Londres.

ANDERSON, J. (1992), *Intereses o justicia. ¿Adónde va la discusión sobre la mujer y el desarrollo?* Entre Mujeres, Lima.

ANKER, R. (1998), *Gender and jobs: Sex segregation of occupations in the world*. LANE, Geneva.

ANTOLÍN, L. (1999), «Género y educación para el desarrollo: hacia la construcción de un nuevo paradigma», en López y Alcalde (coords.): *Relaciones de género y desarrollo. Hacia la equidad de la cooperación*. Los libros de la catarata / IUUC-UCM, Madrid.

— (1999), «La perspectiva de género en la cooperación de las ONGD», en de Villota, P. (ed.): *Globalización y género*. Síntesis arg., Madrid.

— (2000) (coord.), *Política de género y gestión de ONGD*. ACSUR-Las Segovias, Madrid.

- BENERIA, L. y SEN, G. (1982), «Desigualdades de clase y de género y el rol de la mujer en el desarrollo económico: Implicaciones teóricas y prácticas», en León, M. (ed.): *Sociedad, Subordinación y Feminismo*. ACEP, Bogota.
- BLACKDEN, C. M. y MORRIS-HUGHES, E. (1996), «El paradigma postergado: género y ajuste económico en el Africa Subsahariana», en Van Osch, T. (ed.): *Nuevos enfoques económicos. Contribuciones al debate sobre Género y Economía*. San Jose.
- BUVINIC, M. (1983), «Women's issues in Third World poverty: a policy analysis», en *Women and poverty in the Third World*. John Hopkins University Press, Baltimore.
- CIDCA (1994), «Género en el desarrollo rural. Un proceso en construcción». *Ruralter aldizkaria* 11/12 zenb., La Paz.
- CONSEJO DE EUROPA (1998), *Mainstreaming de género. Marco conceptual, metodología y presentación de «buenas prácticas»*. Instituto de la Mujer (1999), Madrid.
- DE BARBIERI, T. (1992), «Sobre la categoría género. Una introducción teórico-metodológica». *Ediciones de las Mujeres* 17, ISIS, Txileko Santiago.
- DEERE, C. D. y LEÓN, M. (2000), *Género, propiedad y empoderamiento: tierra, Estado y mercado en América Latina*. PUEG-FLACSO, Mexico.
- DELISO, A. (1999), «La incorporación del enfoque de género en el trabajo de las ONGD», en López y Alcalde (coords.): *Relaciones de género y desarrollo. Hacia la equidad de la cooperación*. Los libros de la catarata / IUUC-UCM, Madrid.
- DE VILLOTA, P. (ed.) (1999), *Globalización y género*. Síntesis arg., Madrid.
- ELSON, D. (1987), *The impact of structural adjustment on women: concepts and issues*. City University, London.
- (1995), «Conciencia de género en la modelación del ajuste estructural», *Pensamiento Propio* (nueva época) 1. zenb., CRIES, Managua.
- (1995), *Male Bias in the Development Process*. Manchester University Press, Manchester.
- GARCÍA, A. I. (1997), «Políticas públicas para la equidad de género», en *Visiones hacia el futuro*. Ilora Tristán, Lima.
- GERMAN AGRO ACTION (1996), *Women's advancement in development cooperation*. GAA, Bonn.
- GOETZ, A. M. (1995), «Institutionalizing Women's Interests and Gender-Sensitive Accountability in Development», *IDS Bulletin*, 26. lib., 3.zenb.
- (1997), *Getting Institutions Right for Women in Development*. Zed Books, Londres.
- HAFKIN, N. y TAGGART, N., *El género, la tecnología de la información y los países en desarrollo: estudio analítico*. AED/Learnlink (www.aed.org/learnlink)
- HAMING, B. (1999), «La institucionalización transversal del enfoque de género en las políticas de los países en vías de desarrollo. El papel de la cooperación internacional para el desarrollo», en López y Alcalde (coords): *Relaciones de género y desarrollo*.

- Hacia la equidad de la cooperación. Los libros de la catarata / IUDC-UCM, Madrid.*
- HERNÁNDEZ, I., y RODRÍGUEZ, A. (1996), «Igualdad, desarrollo y paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres». *Cuadernos de Trabajo* 17. zenb., Hegoa, Bilbo.
- JACKSON, C. (1996), «Rescuing Gender from the Poverty Trap», *World Development*, 24 lib., 3. zenb.
- JACOBSON, J. L. (1994), *Discriminación de género: un obstáculo para un desarrollo sostenible*. Bakeaz, Bilbo.
- JAQUETTE, J. (1994), «Género y justicia en el desarrollo económico». *Propuestas* 4, Entre Mujeres, Lima.
- KABEER, N. (1991), «Gender, Production and Well-being». *IDS Discussion Paper* 288, Institute of Development Studies, University of Sussex, Brighton (Inglaterra).
- (1994), «Gender-aware policy and planning: a social-relations perspective», en Macdonald, M. (ed.): *Gender Planning in Development Agencies*. Oxfam, Oxford.
- (1999), «Acción productiva, bienestar y desigualdad. Reflexiones sobre las dimensiones de género de la pobreza», en López y Alcalde (coords): *Relaciones de género y desarrollo. Hacia la equidad de la cooperación. Los libros de la catarata / IUDC-UCM, Madrid.*
- KURIAN, R. (1996), «Las mujeres y el crecimiento económico sostenible», en Van Osch, T. (ed.): *Nuevos enfoques económicos. Contribuciones al debate sobre Género y Economía*. San Jose.
- LAGARDE, M. (1996), *Género y feminismo. Desarrollo humano y democracia*. Horas y Horas arg., Madrid.
- LEÓN, M. (comp.) (1997), *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Tercer Mundo Editores, Santafé de Bogotá.
- LONGWE, S. H. (1991), «Gender Awareness: The Missing Element in the Third World Development Project», en Wallace y March: *Changing Perceptions: Writings on Gender and Development*. Oxfam, Oxford.
- LONGWE, S. H. y CLARKE, A. (1997), «El marco conceptual de igualdad y empoderamiento de las mujeres», en León, M. (comp.): *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Tercer Mundo Editores, Santafé de Bogotá.
- MACDONALD, M., SPRENGER, E. y DUBEL, I. (2000), *Género y cambio organizacional. Tendiendo puentes entre las políticas y la práctica*. Real Instituto para el Trópico, KIT Press, Amsterdam.
- MACDONALD, M. (ed.) (1994), *Gender Planning in Development Agencies*. Oxfam, Oxford.
- MELSBACH, G. (1994), «Networking: the experience of the GOOD group in APRODEV», en Macdonald, M.: *Gender planning in development agencies*. Oxfam, Oxford.
- MOLYNEUX, M. (1986), «¿Movilización sin emancipación? Intereses de la mujer, el Estado y la Revolución: El caso de Nicaragua», en Coraggio y Deere (coords.), *La transición difícil: la auto-determinación de los pequeños países periféricos*. Siglo XXI, Mexiko.
- MOSER, C. (1991), «La planificación de género en el Tercer Mundo: enfrentando las necesidades prácticas y estratégicas de gé-

- nero», en Guzmán, Portocarrero y Vargas (comps.): *Una nueva lectura: Género en el Desarrollo*. Entre Mujeres / Flora Tristán, Lima.
- (1995), *Planificación de género y desarrollo. Teoría, práctica y capacitación*. Entre Mujeres / Flora Tristán, Lima.
- (1999), «Acción productiva, bienestar y desigualdad. Reflexiones sobre las dimensiones de género de la pobreza», en López y Alcalde (coords): *Relaciones de género y desarrollo. Hacia la equidad de la cooperación*. Los libros de la catarata / IUDC-UCM, Madrid.
- MURGUIALDAY, C. (1999), «Mujeres y cooperación: de la invisibilidad a la equidad de género». *Cuadernos Bakeaz*, n.º 35, Bilbao.
- MURGUIALDAY, C., DEL RÍO, A., ANITUA, E. y MAOÑO, C. (2000), *La perspectiva de género en las ONGD vascas*. Seminario Mujer y Desarrollo / Mugarik Gabe, Bilbao.
- NACIONES UNIDAS (2000), *Situación de la mujer en el mundo. Tendencias y estadísticas*. Departamento de Asuntos Económicos y Sociales, Nueva York.
- (1976), *Plan de Acción Mundial para la implementación de los objetivos del Año Internacional de la Mujer*. Nueva York.
- NAVARRO, N. (2000), «Género desde una perspectiva intraorganizacional: visión, obstáculos y estrategias», en Antolín, L. (coord.): *Política de género y gestión de ONGD*. ACSUR-Las Segovias, Madrid.
- NOVIB (1997), *Más poder, menos pobreza. Política de NOVIB con respecto a género y desarrollo hasta el año 2000*. La Haya.
- NUSSBAUM, M. C. (1999), «Mujeres e igualdad según la tesis de las capacidades». *Revista Internacional del Trabajo*, vol. 118, n.º 3. OIT, Ginebra.
- (2002), *Las mujeres y el desarrollo humano*. Ed. Herder, Barcelona.
- O'CONNELL, H. (1994), «WIDE: an european network for lobbying», en Macdonald, M.: *Gender planning in development agencies*. Oxfam, Oxford.
- OIT (2001), *Panorama Laboral*, OIT, Lima.
- (2003), *La hora de la igualdad en el trabajo*. www.ilo.org/declaration
- PALMER, I. (1996), «Cuestiones sociales y de género en la asesoría sobre políticas macroeconómicas», en Van Osch, T. (ed.): *Nuevos enfoques económicos. Contribuciones al debate sobre Género y Economía*. San José.
- PAPMA, A. y SPRENGER, E. (1994), «NOVIB y género: situación actual y temas de debate», en Barrig y Wehkamp (eds.): *Sin morir en el intento. Experiencias de planificación de género en el desarrollo*, Entre Mujeres / Novib, Lima.
- PARPART, J. (1994), «¿Quién es el "otro"?: una crítica feminista post-moderna de la teoría y la práctica de Mujer y Desarrollo». *Propuestas 2*, Entre Mujeres, Lima.
- PEARSON, R. (1999), «El género cuenta en el desarrollo», en Carrasco, C. (ed.): *Mujeres y economía*. Icaria, Barcelona.
- PNUD, *Informes sobre Desarrollo Humano 1995-2002*. Nueva York.
- (1991), *Gender and Development*. Nueva York.

- PORTOCARRERO, P. (1990), «Mujer en el desarrollo: historia, límites y alternativas», en Portocarrero y Ruiz Bravo: *Mujeres y desarrollo. Recorridos y propuestas*. IEPALA, Madrid.
- RAZAVI, S. y MILLER, C. (1995), «Gender mainstreaming: A study of efforts by the UNDP, the World Bank and the ILO to institutionalize gender issues». *Occasional Paper 4*, UNRISD, Geneva.
- (1995), «From WID to GAD: Conceptual shifts in the Women and Development Discourse». *Occasional Paper 1*, UNRISD, Geneva.
- RIBEIRO DAS NEVES, M. y MARTINS COSTA, D. (eds.) (1995), *Género y desarrollo institucional en ONGD*. MAE / IBAM, Madrid.
- SEAGER, J. (1997-2000): *The state of Women in the World. Atlas*. Penguin Group, Londres.
- SEN, A. (1990), «Gender and Cooperative Conflicts», en Tinker, I. (ed.), *Persistent Inequalities. Women and World Development*. Oxford University Press, Oxford.
- (1991), «Faltan más de 100 millones de mujeres». *Ediciones de las Mujeres 15*, ISIS Internacional, Txileko Santiago.
- SEN, G. (1998), «El empoderamiento como un enfoque a la pobreza». *Ediciones de las Mujeres 26*, ISIS Internacional, Txileko Santiago.
- SWEETMAN, C. (ed.), «Gender in Development Organisations». *Gender and Development*, 5. lib. 1. zenb., 1997.
- UNIFEM, *El progreso de las mujeres en el mundo (2000). Progress of the world's women (2002)*. Unifem, New York.
- VAN DER VEKEN, M. y HERNÁNDEZ, I. (1989), *Mujeres, tecnología y desarrollo*. MAE / Instituto de la Mujer, Madrid.
- VV. AA. (1991), *Políticas de cooperación para el desarrollo y participación de las mujeres*. Hegoa, Bilbo.
- VV. AA. (1997), «Mujeres y desarrollo. Estrategias y proyectos». *Temas de Cooperación 3*. zenb., Coordinadora de ONGD-España. Madrid.
- WHITEHEAD, A. (1979), «Some Preliminary Notes on the Subordination of Women». *IDS Bulletin*, 10. lib., 3. zenb., 1979.
- WIERINGA, S. (1998), «Rethinking Gender Planning: A Critical Discussion of the Use of the Concept of Gender». *Working Papers 279*, Institute of Social Studies, Haga.
- YOUNG, K. (1991), «Reflexiones sobre cómo enfrentar las necesidades de las mujeres», en Guzmán, Portocarrero y Vargas (comps.), *Una Nueva Lectura: Género en el Desarrollo*. Entre Mujeres, Lima.
- (1993), *Planning Development with Women: Making a World of Difference*. Macmillan, London.
- ZABALA, Idoie (1999): «Un viaje a través del tiempo: 30 años de pensamiento económico feminista en torno al desarrollo», en Carrasco, Cristina (ed.): *Mujeres y economía*. Icaria, Barcelona.

GENEROAN ETA GARAPENEAN TREBATZEKO ESKULIBURU ETA GIDALIBURUAK

- ANDERSON, M., BRAZEAU A. y OVERHOLT C. (1992), *A framework for People-Orientated Planning in Refugee Situations. Taking*

- Account of Women, Men and Children: A Practical Planning Tool for Refugee Workers.* ACNUR, Geneva.
- ARGIBAY, M. y otros (1998), *Vidas paralelas de las mujeres. Guía didáctica de Educación para el Desarrollo.* Hegoa, Bilbo.
- CCCI, MATCH y AOCIQ (1994), *Dos mitades forman una unidad.* Consejo Canadiense de Cooperación Internacional, San Jose.
- DE LA CRUZ, C. (1998), *Guía metodológica para integrar la perspectiva de género en proyectos y programas de desarrollo.* EMAKUNDE y Secretaría General de Acción Exterior, Vitoria-Gasteiz.
- KABEER, N. y SUBRAHMANIAN, R. (1996), «Institutions, relations and Outcomes: Framework and Tools for Gender-Aware Planning». *Discussion Paper 357, IDS, Sussex (Inglaterra).*
- KERSTAN, B. (1996), *Enfoques participativos sensibles a los aspectos de género en la cooperación técnica.* GTZ, Eschborn.
- LÓPEZ, I. y SIERRA, B. (2001), *Integrando el análisis de género en el desarrollo. Manual para técnicos de cooperación.* IUDC-UCM, Madrid.
- MARCH, C., SMYTH, I. y MUKHOPADHYAY, M. (1999), *A Guide to Gender-Analysis Frameworks.* Oxfam-UK, Oxford.
- OVERHOLT, C., ANDERSON, M., CLOUD, K. y AUSTIN, J. (1985), *Gender Roles in Development Projects: A Case Book.* Kumanian Press Inc, Connecticut.
- PARKER, R. (1993), *Another Point of View: A Manual on Gender Analysis Training for Grassroots Workers.* UNIFEM, New York.
- PROYECTO PROEQUIDAD (1995), *Herramientas para construir equidad entre mujeres y hombres. Manual de Capacitación.* GTZ / Departamento Nacional de Planeación, Santafé de Bogota.
- SOJO, D., SIERRA, B. y LÓPEZ, I. (coords.) (2002), *Salud y género. Guía práctica para profesionales de la cooperación.* Médicos del Mundo, Madrid.
- UNICEF y ConMujer (2000), *Paso a paso. Guía metodológica para aplicar el enfoque de género a proyectos.* Mexiko D.F.
- WILLIAMS, S., SEED, J. y MWAU, A. (1997), *Manual de Capacitación de Género de OXFAM.* Flora Tristán / OXFAM, Lima.

